

SINADURAK

 IÑAKI GOITIA / 8	 JOSU ZUBIA / 26
 ENERITZ URRUTIA / 12	 MIKEL IRIZAR / 40

'EUSKAL Y'-AREN ERDIGUNEAN, ANGIOZAR ZULATZEN

Arrasate, Elorrio eta Bergara arteko lotuneak egiteko lanean ari dira, gau eta egun; EAEko Abiadura Handiko Trena egiten / 4



Kamioiak eta hondeamakinak Bergarako lotune hirugarren sektoreko lanetan, Angiozarko Azkuneta auzoan, asteen. IMANOL SORIANO



Arrasateko lorezainak kanpaina abiatu dute txakur-kaken aurka, eta arduraz jokatzeko eskatu diete jabeei / 12

Aratz elkarteak eta Atzegik egindako 'Respect' film laburra estreinatuko dute Aretxabaletan / 17

Lope Agirreri buruzkoa izango da Oñatiko Olaiturri elkartearen kultura hamabostaldia / 26

COVID-19a: inoiz baino kutsatu gehiago astebetean -754- eta egun bakarrean: 127 / 2

Azken asteetako euriteen ondorioz, Urkuluko urtegia erabat betetzetik gertu: %90etik gora / 6

puntua

Oraingo asteen ez da *Puntua* aldizkaririk argitaratu. Hurrengoa abenduaren 17an argitaratuko da.

2MÓ
99€
graduatu erreflexuen
aurkako lenteekin



Otalora Lizentziaduna, 18
Tel: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel: 943 76 15 75
BERGARA

www.multiópticas.com

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen

Hasier Larrea DEBAGOIENA

Azken asteak osasun egoerarekin lotutako aldaketa eta albiste ugari ekarri ditu. Jarraian azaltzen da, atalez atal, zein den azken ordua.

HAURREN TXERTAKETA

5 ETA 11 URTE ARTEKOAK, HILAREN 15ETIK AURRERA

Gotzone Sagardui Osasun sailburuak adierazi duenez, 11 urtekoekin hasi eta adinean jaisten joango dira. Prozesu horretarako 60.000 dosi jasoko ditu Eusko Jaurlaritzak asteartean, hilak 14. Haurrek gurasoen laguntzarekin joan beharko dute Bergara, Arrasate, Oñati eta Aretxabaletako Lehen Mailako Atentzioko Unitateetara.

ADINEKOEN EGOITZAK

13 POSITIBO ATZEMAN DITUZTE ITURBIDEN

Arrasateko egoitzako zuzendaria, Olatz Etxabek, adierazi du egoiliar guztiak daudela arriskuz kanpo: "Asintomatikoak dira, hirugarren dosia jasota baitaude". Osasun zentroak "beteta" daudela-eta, Iturbiden bertan egokitu dute positibo eman dutenendako gunea.

'COVID ZIURTAGIRIA'

ZAPATUAN HASI ZIREN ESKATZEN ZENBAIT ESTABLEZIMENDUTAN

Txertaketa fasea pasa dutenak eta COVID-19a duela sei hilabete baino gutxiago harrapatu zutenak bakarrik sar daitezke,



Ostalariek COVID ziurtagiri digitala egiaztatzeko app-a darabilte kontsumitzaileen datuak frogatzeko. H.L.

Egoerak txarrerera egin duela-eta, zorroztu egin dituzte neurriak

Establezimendu batzuetan hasiak dira 'COVID ziurtagiri digitala' eskatzen. Horren aitzakian, milaka lagunek deskargatu dute ziurtagiria azken egunetan. Osasun Sailak dio EAEk kutsatze-faserik okerrenetakoa bizi duela: "74 positibo daude ZIUn"

COVID ziurtagiriarekin, 50 lagun baino gehiagorendako tokia duten jatetxeetan eta hirugarren zein laugarren kategoriako ai-

sialdi-guneetan. Hirugarren kategoriakoak pub lizentzia dutenak dira -22:00etatik aurrera daude behartuta eskatzera-,

eta laugarrenekoak kafe antzokiak eta diskotekak -une oro eskatu behar dute-. COVID ziurtagiria lokal batzuetan bai

eta besteetan ez eskatzea ez dute oso zentzuzko ikusten zenbait ostalarik, Aretxabaletako Orlyko Iker Ezkibelek, esaterako, besteak beste: "Ondoko tabernakoak ez bezala, gu sarreran langile bat jartzera behartuta gaudelako".

OSAKIDETZAKO KONTSULTAK PREMIA BEREZIRIK EZ DUTENAK, ATZERA

EAEko osasun sisteman "tentsio gora" doalako hartu dute premia larririk ez duten kontsultak atzeratzeko erabakia. Debagoieneko Ospitalean Espezialitateen arloarekin lotutako kontsultetan ez da aldaketarik egon, bai, ordea, Lehen Arretako kontsultetan. Aurrez hitzartutako kontsultak mantentzen dituztela gaineratu dute, "baina eskertuko genuke larriak ez diren hitzordu-eskaerak atzeratzea".

HIRUGARREN DOSIA

HASI DIRA JASOTZEN 60 ETA 69 URTE ARTEKOAK

Dagoeneko 60 urtetik gora duten debagoienarren %60k jaso du errefortzu dosia. Debagoieneko ESiren datuen arabera, "erritmo onean" doa txertaketa.

DEBAGOIENENKO OSPITALERATUAK

18 GAIXO DAUDE ISOLATUTA

Debagoieneko Ospitalean COVID-19agatik positibo diren hamabi pazienteak eta, horrez gain, konfirmatzeke dauden beste sei daude ospitaleratuta. Horiei arnasteko arazoak dituztenak batuta, "tentsio gora" doa antolakuntzan.

A-636 Beasain-Bergara

autobian ere bai,
askoz gehiago!

AURREZ AURREKO INFORMAZIOA

BIDEGIK A-636 autobideko bidesari berniari buruz informazioa emateko eta ABIATU gailua tramitatzeko gaitu dituen informazio-puntuak:

- ANTZUOLA Abenduak 13. Udaletxean.
- BERGARA Abenduak 14-15. Ondartzan-AP-1 (Goizez) Udaletxean (Arratsaldez)


Ordutegia: 9.30-13.30 / 16.00-20.00

ERRAZTASUN GEHIAGO

AURREZPEN HANDIAGOA


INBERTSIO HANDIAGOA

Informazio gehiago: info@bidegi.eus / 943 105 106 / GI-20 - KP/PK 14,800 - Aritzeta-Usurbil



Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



Positibo kasuak eta intzidentzia

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak biztanleekiko	Intzidentzia tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko
Arrasate	317	175	4.180	%18,93	2.228
Bergara	188	74	2.245	%14,93	1.742
Arexabaleta	91	34	1.141	%16,12	1.765
Eskoriatza	64	47	662	%16,13	2.705
Oñati	56	52	1.809	%16,48	941
Aramaio	15	7	269	%18,18	1.486
Antzuola	10	12	401	%18,40	1.009
Elgeta	8	2	103	%9,11	884
Gatzaga	5	0	21	%8,40	2.136
DEBAGOIENA	754	403	10.912	%16,84	1.785

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

Pandemiako kutsatu kopururik handiena izan da azken astean

754 lagun kutsatu dira astebetean, eta egun bakarrean 127 kasu izan dira. Pandemiako daturik okerrenak dira

Jone Olabarria ARRASATE
Kutsatuei dagokienez, aste bakarrean pandemiako hazkundarik okerrena izan du bailarak astean. Hilaren 2tik 8ra arte, 754 kasu izan dira; horietatik 317, Arrasaten. Aurretik, 403koa

zen astebetean Debagoiengan atzemandako kopuru handiena. Egunkako datuetan ere daturik okerrena izan da: 127 positibo izan ziren eguaztenean. Ordura arte, 121ekoa zen altuena, abenduaren 7an erregistratua.

Zifrok 1.785,24an kokatu dute bailarako intzidentzia; Gipuzkoarekin alderatuta 541 puntu gehiago dira eta EAEkoa baino ia 1.000 puntu handiagoa. Arrasaten, Eskoriatzan eta Gatzagan 2.000ko langa gainditu du.

Zentzuz erosi.
Ondo informatu zaitez.
Ezagutu zure eskubideak.
Baztertu estereotipoak.

Zeu zara
zure
influencer
onena.

#KontsumitzenJakin



kontsumoBIDE
KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO GOVERNAMENTO DE EUSKADI GOVERNORIO VASCO



Ezkerretara, lurrazaleko tunela; aurrean, trenbidearen eremua, inguruan eustormak eraikitzen ari direla. ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO



Aurreko argazkiaren segida eginez, lur azpiko hiru tunelak, gauez.

Hasier Larrea DEBAGOIENA

Euskal Y-aren epizentroan dago Angiozarko bailara. Gasteiz, Donostia eta Bilbo konektatzeko proiektuak bertan finkatu zuen Abiadura Handiko Trenaren bidegurutzera duela hiru hamar-kada, hasieratik jakinda Erkidegoan egitekoak ziren obrarik zailena izango zela. Lanak egiteko onartutako lehen kontratua bertan behera utzi zuen Espainiako Gobernuak 2016an, eraikuntza enpresek onartu zutelako lanen kostua hitzartutakoa baino altuagoa izango zela, eta erabili behar ziren teknikak ez zirelako eraginkorrak.

Hiru sektoretan banatuta

2018an onartu zuen Trenbide Azpiegituren Administrazioak (Adif), azkenean, guztira 17,4 kilometroko zortzi tunelez eta beste hiru zubibidez osatuko litzatekeen eraikuntza. Hiru sektoretan banatu zuten: lehen sektoreak, 5,1 kilometrokoak, Bergaratik Angiozarrerako bidea egingo du, Udalatz eta Karraskain azpitik igaroz. Donostiatik Bilbora eta Gasteizera joateko baliatuko dute, eta alderantziz. 134 milioi eurogatik esleitu zitzairen OHLk, Geotunelek, Costrucciones Adolfo Sobrinok eta G&Ok sorturiko aldi baterako enpresei. Lehen sektore hori bigarren eta hirugarrenarekin elkartzen da Angiozarren; puntu horretan gauzatzen da, hain zuzen, Bergarako lotunea.

Bigarren sektoreak Gasteiz-rako noranzkoa hartzen du, Kobateko zubibidera iritsiz. Bide hori Kanpazarko errepidearen azpitik igaroko da Besaideraino. 182,7 milioi eurogatik hartu zuten 5,2 kilometroko zati hori eraikitzeke arduratzen Dragadosek, Tecsa Empresa Constructorak eta Construcciones Amenabarrek

Angiozarko bailara eta auzotarrak astintzen dituen eraikuntza-lana

Abiadura Handiko Trenaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuak konektatzeko funtsezko puntua da Angiozarren kokatuta dagoen Bergarako lotunea. Irailetik ari dira, 24 orduz, tunelak zulatzen: "Jasanezinak dira eztaidak"

aldi baterako sorturiko enpresek. Angiozarko lotuneko hiru tunelen bi alboetatik pasako dira trenak, albo batetik Gasteizko noranzkoan eta bestetik Donostiakoan. Tarte horretan bi adarrak bereizita badaude ere, batu

egingo dira Garagartzako Kobatera iritsi aurretik.

Bi adar horiek bereizita egotearen arrazoia da erdiko tunela Gasteiz eta Bilbo arteko trenbidea egiteko baliatuko dutela. Tunel bakarra izan arren, bi

noranzko izango ditu, eta horregatik da alboko bi tunelak baino handiagoa. Hirugarren sektoreari dagozkion lanak egingen ari dira bertan, Donostia eta Bilbo konektatzeko. Beste bi sektoreak baino laburragoa izan-

go da, 2,8 kilometrokoa; bi kilometroko luzera izango du tunelak, eta Elorrioko Iguria auzoraino iritsiko da. Campezo Obras y Servicios, Comsa, Cycasa Canteras y Construcciones eta Nortunel enpresei esleitu zitzairen lan hori 66,3 milioi eurogatik.

Eustormak indartzen

Lehen sektorearen azken zatiak Angiozar sarreran dagoen lur-gaineko galeria artifiziala lotu-nearekin konektatzen du. Ere-muaren bazter batean baso al-dapatsua dago, eta beste bazterretik Angiozar erreka igarotzen da. Ezaugarri geologiko konplexu horien ondorioz, luiziak saihesteko eustormak eta basoetatik jaisten diren erreka-ak desbideratzeko kanalak egiten dabilta. Ramon Loiti auzotarrak gertutik jarraitzen dihardu prozesua. Adierazi du hasieran

Goimendi eta Angiozar lotzeko baso-bide eske

Lur-hondakinei irtenbide praktikoa eman nahi diete Angiozarko auzotarrak, "hamarkadatarako eskaerari" erantzuteko. Zehazki, baso-bide bat egin nahi dute Goimendi eta Angiozar artean. Kanpazarko mendatean dago Goimendi auzunea, Angiozartik bi kilometro ingurura: "Obren aurretik, Asentzio zeharkatu genezakeen bertara joateko, baina orain, 12 kilometroko buelta egin beharra dago, baso-bide guztiak moztu dituztelako".

Angiozarko auzotarrak ohartu ziren Adifek Goimendira bidean dagoen "600 mila metro kubiko inguruko" lursail bat desjabetu zuela. "Obrak bideratzeko asmoz, sail horretako basoa bota

eta garbitu egin zuten, eta guk eskatzen duguna da obretako lur-hondakinez betetzea lursail hori, gainean baso-bide bat eraikitzeke".

Hori lortzeko negoziatzen ari dira Bergarako Udalarekin eta Adifekin. Diote Foru Aldundiak dirulaguntzak ematen dituela halakoetarako: "Ekonomikoki ez dugu askorik eskatzen, eta, Angiozartik gasbidea, goitentsioko linea eta AHTa pasako direla aintzat hartuta, kontuan hartzeko modukoa iruditzen zaigu".

Lamiategiko zabortegea

Arazoa, baina, Angiozar eta Bergara arteko Lamiategiko zabortegean dagoela uste dute,




Larrañaga, Loiti eta Alustiza angiozartarrak, obren planoari eusten. H.L.

bertara bideratzen baititutze eraikuntza enpresek lur hondakinak: "Lamiategi partikular batena da; guztion poltsikotik milioi bat euro inguru jasoko ditu lur-hondakinak

bertan gordetzeagatik. Interes batzuk daude kontratu horren atzean. Guk proposatu dugu lur hondakinak Lamiategira eraman beharrean Goimendira bidean dagoen lursailera eramatea".

'Euskal Y'-a Debagoiengan

ITURRIA: ADIF



pentsatutakoa baino gehiago kostatzen ari zaiela enpresei igarobide segurua eraikitzea: "Hasieran egindako horma ez zen egonkorra, eta metro bazueta beste horma bat egitea

erabaki zuten. Tartean dagoen hutsunea ezin dute obra-hondakinekin bete, bigunegiak direlako, eta Udalatxeko harrobiko kareharriarekin beteko dute, ondorioz".

Eztandak, gau eta egun

Baina Angiozarko bizilagunei kalte gehien eragiten diena aipatutako hiru tunelen exekuzioa da. Pasa den irailetik hona etengabeko dinamita-hotsak jasaten

ari direla salatu dute: "Eguneko 24 orduetan entzuten dira burrunbak, gauez esnatzen gaituzte, eta sarri ikaratu ere egiten gara eragiten duen oihartzunagatik", salatu du Ainhoa Larrañagak. Paulino Alustizak gaineratu du azken astean "bi eztanda handi" entzun dituela.

Dinamitak gauez ea leherrazai daitezkeen galdetuta, Adifekoek Ramon Loitiri erantzun zioten "dezibelioen neurgailuek diotela legea betetzen ari direla". Gainera, "arrazoi teknikoengatik ezinezkoa" da eztandak erlojuaren arabera kalkulatzeko. Hori horrela, dinamita kargatzen dutenean langileek kanpora irten eta tinbrea jotzen dute eztanda gertatuko dela abisatzeko.

Lur azpian egiten ari direna lan konplexua da, tunelek bihurtuak eta aldapak izango dituztelako. Gainera, trenak pasako diren bideen artean segurtasun pasabideak ere eraiki behar dituzte, istripurik balego.

Hori guztia egiteko behar-beharrezkoa dute gauez argia edukitzeko foku erraldoiak piztea. "Egunez obrak inpresio handia

ematen badu, imajinatu gauez; beste galaxia bat dirudi", aipatu du Larrañagak.

Tunelaren irteera, "2026an"

Obrako sektore guztiak 2018ko uztaierako esleitu bazituzten ere, exekuzioari pandemia hasi aurreko hilabeteetan ekin zioten, bizilagunek gogoratzen dutenez. 38 hilabetezko gehienezko epea jarri zien Adifek *euskal y*-aren epizentroaren eraikuntza lanei. Jakina da zati hori eta hiriburuetako geltoki zein sarbideak izango direla amaitzen azkenak. Gero, erraiak eta trenak igarotzeko azpiegitura guztiak jarri beharko dituzte. Espainiako azken aurrekontuek 2026rako jarri dute Erkidegoko obra guztien akabera. Ikusteko dago ordurako egingo ote duten, edo enegarren aldiz luzatuko duten obratzararen irekiera.

BERGARAKO LOTURAKO HIRU SEKTOREAK BATUTA, 382 MILIOI EUROKO KOSTUA ERAGIN DUTE

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

TicketBAI

Etorkizunerako prestatzen.

2022an, TicketBAI Gipuzkoara iritsiko da. Etorkizunerako prestatzen gaituen online fakturazio-sistema berria.

Anima zaitetz zure enpresan edo negozioan borondatezko epean ezartzera eta ezagutu kenkariak eta abantailak.

Informa zaitetz

- gipuzkoa.eus/ticketbai
- Aurrez aurreko informazioa (nitzordua)
- 943 113 000
- ticketbaikontsultak@gipuzkoa.eus

TicketBAI
GIPUZKOAN | EN GIPUZKA
gipuzkoa.eus/ticketbai



Urkuluko urtegia atzo, eguena; atzean, Kurtzebarri mendia, tontorra zurituta. IMANOL BELOKI

Euriak ez du atsedetik eman hogeit egunean

Hilabete euritsua izan zen azaroa, eta bide beretik doa abendua ere. Azken hiru asteetan, egunero egin du euria. Urkuluko urtegia edukieraren %90ean da; iazko egoerarekin alderatuta, zazpi puntu gaintik. Deba ibaiak gainezka egin zuen atzo

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Euri artean egin dugun hogei-garren eguna da gaurkoa, aler-ta laranja eta guzti. Eguazten eguerdira arteko datuen arabera –eta Arrasate, Elorregi eta Urkuluko neurgailuen batez bestekoa eginda–, 335 litro bota ditu metro karratuko azken bi asteetan; azaroko hilabete osoan baino 53 litro gehiago. Iraila eta urria lehorrak izan ziren. Urri osoan, batez beste, 40,3 litro egin zituen metro karratuko Debagoienean; azaroan baino zazpi aldiz euri gutxiago, hain zuzen ere. 2020ko azaroaren 25etik abenduaren 8ra bitartean, 144 litro erregistratu ziren bailaran metro karratuko; eta 2021eko epe berean, 335 litro. Bikoiztu egin dira prezipitazioak aurten.

Deba ibaiak gainezka

Azken orduetan egoerak okerrera egin du eta atzo Deba ibaiak gainezka egin zuen: Aretxabaleta eta Arrasate artean, Bergarako Ibaiondon, Osintxun...

Egun bakarrea 58 litro

Azaroaren 28a eta abenduaren 5a izan dira azken asteetako egun euritsuenak. Batez beste, eskualdean 53,8 litro erregistratu ziren azaroko egun hartan; baina azpimarratzekoa da Arrasaten kokatutako neurgailuak 58,8 litro batu zituela metro karratuko. Aurreko domekari dagokionez, batez beste, 38,2 litro bota zituen; kasu horretan ere, gehien, Arrasaten: 45,3 litro.

Urkulu, ia %90era

Urtegiei erreparatuta, Ur Kontorzioaren azken datuak dio Urkuluk bere edukieraren %89,65 duela beteta; 10.000.000 metro kubiko sartzen dira Urkulun, eta 8.965.000 metro kubiko ur

AZARO OSOAN BAINO EURI GEHIAGO EGIN DU AZKEN BI ASTEETAN: 335 LITRO BOTA DITU METRO KARRATUKO

daude orain. Iaz, zazpi puntu gutxiago zituen –%82,55era zegoen– eta duela bi urte, berriz, beteago zegoen: %91,16. Halere, 2018an eta 2017an beherago zegoen ehunekoak; zehazki, 2017an %60,20koa izan zen edukiera.

"Okerrena igaro da"

Pello Zabala eguraldi iragarlearen arabera, Ipar Polotik, mendebaldetik, etorri dira azken asteetako euriteak, eta "ondoe-torriak" izan direla dio: "Egokia da sasoi honetan euria egitea, lurrak ere gustura hartu du; dena xurgatu du". Edozelan ere, aldaketa datorrela iragarri du Zabalak: "Hemendik aurrera, gutxiago botako du, aste honen bukaera alderako egoera normaltzen joango da. Esango nuke gehiena eman duela". Euskalmetek ere horixe dio; joera aldaketa etorriko da aste-buruan: domekan eta, batez ere, astelehenean, eguzkiak ordezkatu du euria, eta tenperatura igo egingo da.

Pandemiak eragindako egoera dela-eta, anestesistak lanean

Anestesistek greba bertan behera uztea erabaki dute, COVID-19aren pandemiak hartu duen bilakaerarengatik

U.I.L. ARRASATE

Debagoieneko Ospitaleko anestesistek greba abiatu zuten azaroaren 29an, "baldintza duinak" aldarrikatzeko eta baita espezialista gehiago kontratatzea eskatzeko ere, besteak beste. Egubakoitzean, baina, lanuzteak aldi baterako etetea erabaki zuten, COVID-19aren pandemiak hartu duen indarrarengatik.

Marta Macho langileak azaldu duenez, zortzitik bost anestesistak egin dute greba, baina egoerak behartu ditu geldialdia egitera: "Gaixo larriak daude eta iruditzen zaigu ez dela lanuzteak egiteko unea. Nolanahi ere, egoera lasaitzen denean, greba egitera itzuliko gara".

Greba egiteko "oztopoak"

Lanuzteei dagokionez, salatu dute greba-astea "gaizki" joan dela: "Ospitaleko zuzendaritzak grebarako dugun eskubidea etengabe urratu du, gutxieneko zerbitzuen baitan sartzen ez diren kirurgiak eginaraziz". Machok azaldu du kirurgia urteak, esnatzeko unitatea eta tumoreak detekta ditzaketen probak direla gutxieneko zerbitzuen artean daudenak, baina ospitaleak ebakuntza-gelaren plangintza aldatzea erabaki zuela salatu du, eta horrek eragina izan duela greban. "Zuzendaritzaren erabakiei uko eginez gero diziplina-espediente bat irekitzen da, eta bidezko kaleratzea egin diezagukete", gehitu du Debagoieneko Ospitaleko anestesistak.

Osasun zerbitzuak, kolokan

Langileen egoeraz galdetuta, adibide bat jarri nahi izan du Machok: "Sei anestesistak bakarrik egiten ditugu guardia, eta bakoitzak hilabetean hiru guardia egin behar ditu legez –borondatez gehiago egin ditzakeen arren–. Hortaz, hiru guardia badira eta sei langile bagara, hemezortzi egun bakarrik bete ditzakegu –borondatezkoak kontuan hartu gabe–. Hilabeteek, ordea, 30-31 egun dituzte. Jende asko falta da". Langileek salatu dute "ezinezkoa" dela ospitalean "jarduera normalari" eustea, eta

arreta ez dela "ez kalitatekoa eta ezta egokia ere".

Beste salaketa bat asteen

ESK sindikatuak salatu du ospitalea ordubetez anestesistarik gabe egon zela, guardia egiten zegoen langileak COVID-19a hautemateko proban positibo eman zuelako eta zuzendari medikoak etxera joateko agindu ziolako. Marta Machok erabakiaren "larritasuna" azpimarratu du: "Erditzeen kasuan, adibidez, epidurala beste mediku batek jar diezaioke amari, baina erditzea zailtzen bada eta zesarrea egin behar bada, anestesistarik ez badago, ezin du inork pazientea lokartu haurra jaio dadin. Horrez gain, bihotz-biriketako geldialdi bat izan dezake plantan dagoen batek edota istripu baten ondorioz datorren batek odol-hodiren bat hautsita ekar dezake... Ospitalea anestesistarik gabe zegoen ordu hartan, herritarren bizi-arriskua oso handia izan da".

Halako kasuetan, erreleboa etorri arte itxaron behar dela azaldu du Machok: "Nola edo hala eutsi behar da, eta momentu horretan gorabeheraren bat badago, profesionala dagozkion EPIekin jantzi behar da ez kutsatzeko –COVID positibo bat artatzen ari balitz bezala –, baina hor egin behar du".

Ospitaletik erantzunik ez

Debagoieneko Ospitaletik, momentuz, ez dute gertakariengatik inguruko adierazpenik egin.

LANGILEEK ADIERAZI DUTE DEBAGOIENENKO OSPITALEAREN ZERBITZUA EZ DELA KALITATEZKOAK

ESK-K SALATU DU ANESTESISTA ZERBITZURIK GABE EGON ZELA OSPITALEA ORDU BATEZ

D2030: ELKARRIZKETA

Miren Arregi ARRASATE

Eskualde-industria eraldatzera bideratuko den proiektua da HIREKIN. Lankidetzaren, ikerketaren eta ekintzailatzaren bitartez emisioak murriztera eta ingurumen helburuak betetzeko irtenbideak bilatzera bideratuko dena. Proiektuak espazio propioa izango du, Garaian kokatuko da eta 2023 bukaerarako prest egotea espero da.

Trantsizio industrial iraunkor eta justuaren mesedetan sortutako proiektua da HIREKIN. Zergatik behar du industriari horrelako trantsizio bat?

Orokorrean, Europa osoan eta neurri berdintsuan baita gure eskualdean ere, klima-aldaketaren aurkako borrokarekin bateraezinak diren industrian oinarritutako ekonomiak dauzkagu. Beraz, sektore horietan aritzen diren pertsonak eta ekonomiak oso zaurgarriak dira etorkizun deskarbonizatu bateranzko trantsizioan. Hau horrela izanda, trantsizio hau ez da ingurumenaren ikuspuntutik bakarrik ikusi behar; justizia klimatikoaz gain, soziala eta ekonomikoa ezinbestekoak dira egitura-aldaketa azkarra eta arrakastatsua izan dadin. Horregatik deitzen zaio trantsizio justua.

Ikusten duzu ari direla norabide horretan lanean?

Kontuan izan behar da industria deskarbonizatzea ez dela borondatezko zerbait izango, legeak eta merkatuak derrigorrezkoa bihurtuko baitute. Beraz, klima-aldaketarekiko sinesgogorra den norbait balego ere, bere industria berde bihurtzera behartuta egongo da merkatuan jarraitu nahi badu. Esango nuke bailarako enpresak ari direla norabide horretan lanean, beraien biziraupena jokoan dagoelako, baina eskualde industrializatu bezala daukagun erronka ez da makala.

Zein ekarpen egitera dator, zehazki, HIREKIN?

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoaren egitekoa gizartea eraldatzea da, eta, hau horrela izanda, trantsizio industrial iraunkor

"Trantsizio industrial iraunkor eta justuaren mesedetan lan egitea gure betebeharra da"

ROBERTO URIBEETXEBERRIA HIREKIN EKIMENAREN KOORDINATZAILEA

Industriaren beharretarako egokitutako tailer espazio bat eskainiko du HIREKINEk. Mondragon Unibertsitateak sustatua da proiektua, eta D2030ek lagundua



Roberto Uribeetxeberria, lantokian. GOIENA

eta justuaren mesedetan lan egitea gure betebeharra da. HIREKINEk eskualde-industria eraldatzen lagunduko du, eta oso industrializatuta dagoen eskualde baten barruan,

emisioak murrizteko eta ingurumen-helburuak betetzeko irtenbideak bilatzea bultzatuko du, eskualdearen ongizate ekonomikoa, lanekoa eta soziala hobetzearekin batera.

Gizarteari, enpresei eta beste eragile batzuei irekia egongo da.

Zein izango da HIREKINen balio erantsia?

Industriaren beharretara egokitutako tailer espazioa bat eta ekipamenduetarako – prototipazio eta elektronika laborategiak, makineria-tailerrak...– sarbidea eskainiko ditu, besteak beste. Gainera, ideiak esperimintatzeko diziplina anitzeko espazioak ere jarriko ditu eskura. Ez hori bakarrik, unibertsitateko ikasleen, ikerlarien eta enpresen arteko kultura ekintzailea ere sustatuko baita, komunitateak sortzeko eta lankidetzazko errazteko moduak ahalbidetuz.

Ekintzailatasuna da, beraz, gakoetako bat?

Helburua lortzeko baliabideetako bat ekintzailatza da. HIREKINEk unibertsitateko zein enpresetako ikertzaileak, ekintzaileak, barne-ekintzaileak eta campuseko ikasleak batuko ditu, unibertsitatearen ezagutza zientifiko-teknologikoa transferitzeko dituen baliabideak haien eskura jarritz, ekipamendua eta laborategiak barne. Zorionez, eskualdean baditugu beste hainbat eragile ekintzailatza eta barne-ekintzailatza teknologikoa bultzatzeko gai den ekosistema benetan aberatsa sortzera bideratuak. Batzuk aipatzearren: Saiolan,

Garaia, Mankomunitatea, Mondragon Sustapen Zentroa, Gizabidea Fundazioa, Galbain, Ikerlan, ISEA eta, noski, unibertsitateko beste fakultateak ere bai.

Dagoeneko eskaintzen diozue industria alorrari esperimintatzeko aukera, ezta?

Gaur egun, espazio egokirik oraindik ez izan arren, ikasleen eta ikertzaileen artean kultura ekintzailea eta iraunkortasuna bultzatzen ari gara. Beste fakultate batzuekin batera diziplinarteko elkarlana eta jakintza-alor ezberdinetako profilak nahasten dituen *Change maker lab* ekintzailatza iraunkorraren inguruan kokatzen den ekimena abian daukagu, adibidez. Enpresa Sortu lehiaketak ere emaitza oso onak eman ditu, parte hartzea handia da eta lehen bi ekitaldietatik hiru enpresa sortu dira jadanik. Oso garrantzitsua da ekintzailea sena duena ahalik eta azkarren identifikatzea, bere sen hori garatzen laguntzea eta aurrera jarraitu ahal izateko tresnetan trebatzea. Horri gehitzen badiogu bere antzeko sena, antzeko kezka eta irrikak dituzten beste batzuekin elkartu ahal izateko lanerako leku aproposa, inguru oso aberats eta erakargarria lortu genezake. **Zein puntutan dago proiektua? Noiz jarriko da martxan?** Esan bezala, proiektua eraikinetik harako doa eta dagoeneko martxan dago. Baina eraikina bera 2023ko azken lau hilekorako egotea espero dugu; hondeamakinak hasiak dira lanean.

"HIREKIN PROIEKTUAK ESQUALDE-INDUSTRIA ERALDATZEN LAGUNDUKO DU"

"ERAIKINA 2023. URTE BUKAERARAKO EGOTEA ESPERO DUGU; LANEAN DIRA HONDEAMAKINAK"



ZABALIK

IÑAKI GOITIA

H

Ipuinei entzun egin behar omen zaie; sekretu hau ondotox dakite idazleek. Bai idazle handiek, bederen. Hauen xuxurla entzun, hauen ahots sarkorra bereganatu, hauen harmonia bilatu... Beste sekreturik ez dago ipuin borobilak idazteko.

Ipuina, ordea, perpaus ugariz taxutzen da, eta perpausentzun egin behar omen zaie; sekretu hau ere ondotox dakite idazleek. Bai idazle handiek, bederen. Hauen xuxurla entzun, hauen ahots sarkorra bereganatu, hauen harmonia bilatu... Beste sekreturik ez dago perpaus borobilak idazteko.

Perpaua, baina, zenbait hitzez eratzen da, eta hitzei ere –nola ez– entzun egin behar omen zaie; sekretu hau, besteak bezalaxe, ondotox dakite idazleek. Bai idazle handiek, bederen. Gustave Flaubert eta bere *le mot juste*, esaterako. Xuxurla entzun, ahots sarkorra bereganatu, harmonia bilatu... Beste sekreturik ez dago hitz borobilak idazteko.

Hitza, azkenik, hizki gutxi batzuek osatzen da, eta hizkiei –igarriko zenuten honezkero– entzun egin behar omen zaie; sekretu hau, denen gaineratik, ondotox dakite idazleek.

HIZKI HORRI BELARRIA ITSATSITA DIHARDU, ETA EZ DA GAUZA DEUS IDAZTEKO...

Bai idazle handiek, bederen. Xuxurla, ahots sarkorra, harmonia... Beste sekreturik ez dago hizki borobilak idazteko.

Bikain joan zaio gaurdaino gure idazleari. Ipuin, perpaus, hitz eta hizkiei belarria

gerturatzea beste lanik ez du izan bere artista sormena alosien putz jainkotiarraz dantzan jartzeko. Oraindik orain, alabaina, hizki jakin baten xuxurla entzun, ahots sarkorra bereganatu eta harmonia aurkitu ezinda geratu da. Gortu izanaren susmoa du ordutik, Itakarainoko odisean sirenen doinua ez entzute aldera argizariz belarriak estali dituen Ulises moderno bat balitz bezala.

Egungo egun, hizki horri belarria itsatsita dihardu, eta ez da gauza deus idazteko, deus entzuteko, fitsik ere ez hizki mutuaren mututasunaz haratago.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Bizitzak salbatzen dituztenen kriminalizazioa

ISA EGIUREN

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Nafarroako eskuin muturrak gobernuz kanpoko erakundeak finantzatzeari uzteko eskatu du, hemen nafarrei bakarrik lagundu behar zaielako. Estrategia faxista hau ez da berria, baina azkar ari da zabaltzen Europan; hau da, bizitzak salbatzen dituztenak kriminalizatzea.

Greziako Lesbos uhartean, adibidez, 24 pertsona kartzelara eraman ditzakete bizitzak salbatzeagatik.

Horien artean, Sarah Mardini siriarra.

Sarak eta bere arreba Yusrak 2015ean beren herrialdetik ihes egin zuten gerraren ondorioz. Bidaia hartan, Greziara iristeko Turkiako urak zeharkatzen ari zirela, txaluparen motorra gelditu egin zen, eta biak, igerilari profesionalak izanda, uretara bota ziren eta hiru ordu baino gehiago eman zituzten igerian kostaldera iritsi arte. Txalupan zihozten hemezortzi pertsonen bizia salbatu zuten. [...]

Bestalde, Hasan afganiarrak 230 urteko kartzela-zigorra du aurrez aurre Samos uhartean. Beste pertsona batzuekin batera zihozan txalupa batean

trafikatzaileak alde egin zuenean. Hasan txalupa lehorrera eramaten saiatu zen, baina harkaitzen kontra jo zuen. Pertsonen trafikoa leporatzen diote.

Ontzi hartan Afganistango beste pertsona bat zihozan, gerratik ihesi. 6 urteko semeak laguntzen zion, baina talkan hil zen. Semearen heriotzak eragindako minaz gain, aitak hamar urteko espetxe-zigorri aurre egin beharko dio, haurraren bizitza arriskuan jartzeagatik.

[...] Ezin ditugu gutxietsi kaleetara eta gure etxeetara iristen ari diren eskuin muturreko mezuak. Horrela hasi baitziren historiako orrialde ilunenetakoak.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooparatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.

Publizitatea

Mireia Larrañaga,
Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07

berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta
Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza
Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Entzute prozesu sakona egingo dugu hilabeteotan"

MIKEL LETE TXINTXURRETA GIPUZKO BURU BATZARREKO DEBAGOIENEN BURUKIDEA

Larraitz Zeberio Lekuona BERGARA Euzko Alderdi Jeltzaleak VIII. Batzar Nagusia egin berri du, bi egunez, BECen. Tartean zen Mikel Lete (Bergara, 1960). **Ibilbide-orria eguneratzeko egunak izan dira, ezta?**

Alderdiak 125 urte bete zituen iaz. Pandemiagatik ezin izan genuen Batzar Nagusia iaz egin, baina aurrean bai. Neurriak hartuta eta era mugatua, baina elkartu gara eta unean uneko gaiak eta lan-ildo politikoak eguneratu ditugu. Lehen egunean, besteak beste, 350 bat herri ordezkari batu ziren -tartean, Debagoieneko hamabi-, mahai gainean zeuden ebazpen proposamenak aztertuko. Gaien artean zeuden euskara, erabakitze eskubidea, nekazaritza eta tokiko produktuak, sexu eta genero identitatearekin lotutako gaiak, gazteria, feminismoa... Domekan, berriz, batzar nagusiari itxiera emateko ekitaldi politiko irekia egin genuen. 2.500 bat lagun



Mikel Lete Txintxurreta, Bergaran. A.U.

elkartu ginen Barakaldon, BECen.

Entzunez eraiki egitasmoa onartu duzue. Zer da?

126 urte bete dituen alderdia gara. Horrek esan gura du jakin dugula euskal

gizartearekin konektatzen. Horretan jarraitu nahi dugu, eta jabetuta gaude gizartearen modu oso azkarrean aldaketa handiak gertatzen ari direla. Beharrezko ikusten dugu entzute prozesu serio eta

sakona egitea. Landuta daukagu diagnostiko bat hainbat erakunderekin eta norbanakorekin. Orain, asmoa da diagnostiko hori euskal gizartearekin kontrastatzea. Urtarrietik aurrera hasiko gara horretan, eta zortzi bat hilabete iraungo du. Debagoiengan ere egingo ditugu topaketak. Herri mailakoak ere izango dira. **Zuk esan aplikazio digitala eta Bidelaguna figura sortu dituzue.** Alderdiak gizartearekin duen harremana indartzeko, sendotzeko eta zabaltzeko egitasmoak dira. Kontziente gara badela jendea alderdiarekin kontaktuan egon nahi duena, baina, hasiera batean, afiliatzeko beharrik sentitzen ez duena. Nahi dute informazioa jaso, ideiak eman edo alderdia hobeto ezagutu, eta aurrerantzean hori modu digitalean ere egin ahal izango da. Aplikazioak **Zuk esan** du izena, eta erabilgarri dago. **Bidelaguna** figuraren sorrera, berriz, onartuta eta estatutuetan araututa dago. 2022ko lehen hiruhilekoan jarriko da martxan.

Azken asteotan albiste izan dira han eta hemen lortu diren akordio politikoak; Madrilen bai EAJK bai EH Bilduk, eta EAE

mailan EAJren eta EH Bilduren artean.

EAJk Madrildgo Gobernuarekin lortutako akordioan oihartzun mediatiko handia izan du AHTaren Bilboko eta Gasteizko geltokien lurperatzearekin lotutakoak, baina badaude bestelako akordio puntualak ere. EAEn EH Bildurekin lortutako akordioa dago. Uste dugu EH Bilduk ere egin duela egoeraren gaineko bere irakurketa. Aurreko urteetako joera aldatu eta onartu egin du joko politikoan sartzea. Espainian eta Nafarroan ere babestu egin ditu aurrekontuak. Ea honek, etorkizunean ere, beste akordio batzuetara iristeko aukera irekitzen duen.

2023ko udaberrirako daude iragarrita hurrengo udal eta foru hauteskundeak. Hasita zaudete lanketa horretan?

Agintaldi erdia pasa da, eta ez gaude horrekin ahaztuta, baina une honetan beste lehentasun batzuk ditugu. Gehiago gaude zentratuta hurrengo hilabeteotan egingo dugun entzute prozesuan. Ziurrenik, prozesu horretan jasotako oso lagungarria izango zaigu gero etorriko den herriz herriko udal hauteskunde lanketarako.

ITURRI ONETIK

Aretxarteren bideoa, datorren asterako

Aretxabaletako dendarien elkarteak, Aretxartek, Gabonetako kanpaina sustatzeko egin ohi duen bideoa klasiko bihurtu da sasoi honetan. Jendea zain egoten da AZ Visual Mediako Zangituri eta Alberdiri eta Kepa Errastiri ze okurritu zaien ikusteko. Aurten ere badabilta grabaketak egiten, eta oraingo domekan hartuko dituzte azken irudiak. Asmoa da datorren asterako kalean egotea. Joko baten izena daukan mundu mailako telesail ospetsua dauka ardatz aurtengoak.

ALBISTE IZAN ZEN



2005-12-05

Omenaldia hasierako andereñoei

Bergaran 1960ko hamarkadan euskara irakasten hasi ziren emakumeak omendu zituzten, Euskararen Nazioarteko Egunaren harira antolatutako ekimenetan. Ikastolen hastapenetan, lehenengoetako herrira izan zen Bergara, Koldo Eleizalden ematen hasi ziren eskolekin. Izaskun Ximeno, Kristina Gomez, Pili Gonzalez, Edurne Arzelus eta Lupe Olabarria andereñoek jaso zuten omenaldia, Jardunek, EHEK eta AEK-k antolatuta.

HAU BE BADOGU!

Euskal Rock Erradikala, 'Memoria Eraikiz' eta HB

Hautsak harrotu ditu, ETBren *Memoria eraikiz* sortaren barruan, euskal rock erradikalaren gaineko dokumentalak:

@hasier_arraiz: "Tesia: musikariek ez zekiten zer abesten zuten, ezta gazteek zer entzuten zuten ere, are gutxiago zergatik. HBk denak engainatuta zeuzkan. HBkoak oso gaiztoak, besteak lerroak".

@XabierMugarza: "Ezker abertzaleak mugimendu hori erabili nahi izan zuela esatea ez dut uste gezurra denik".

@erikgartzia: "Hitz egiten zuten punkaren mundua eta ezker abertzaleko ideiak kontrajarriak balira bezala".

Etxetik kanpo daude lur-jausi baten ondorioz

Joan den domeka ilunkeran, luizi bat gertatu zen San Andres kaleko Ibai Alde etxean, eta, eraikineko hiru etxebizitzetan kalte materialik atzeman ez bazuten ere, irtenarazi egin zituzten bizilagunak, eta, gaur-gaurkoz, ezin dira euren etxebizitzetara bueltatu

Eneko Azurmendi ARRASATE

Axun Otxoa Ugalde zegoen etxean luizia gertatu zen unean, eta bakarrik. "Zarata handia entzun nuen, eta horma osoa jausi zen errekarra. Ortu erdia baino gehiago eraman du". Abisua eman, eta udaltzainak, ertzainak eta suhiltzaileak bertaratu ziren. "22:30 aldera esan ziguten ezin ginela etxean gelditu, eta nire semearen etxean egin dut lo", azaldu zuen. Hala, etxetik kanpo pasa behar izan zuten gau hura, eta baita orain arteko guztiak ere.

Martitzenean, Udaleko arkitektoa joan zen egoera aztertze- ra, eta, Adrian Ugalde bizilagunaren esanetan, haren irizpidea zen garrantzitsuena, hark erabakiko zuelako bizilagunak euren etxebizitzetan geratu zitezkeen edo ez. "Ezetz erabaki zuen, behin-behinean, berak txostena osatu arte eta errekarren maila jaitsi arte, egoera ondo aztertu ahal izateko eta erabakitzeke hormak erortzeko arriskua duen edo ez", nabarmendu du Ugaldek. "Eta hori luze joango da, errekarren maila altua izango delako denbora batean".

Txosten teknikoaren zain

Ugaldek nabarmendu du oraindik udaletxeko txosten teknikoaren zain daudela, eta aldeko ebazpen batek asko lagunduko liekeela Ura agentzian eskaera egiterakoan. "Udalaren babesa izatea asko da". Udal Gobernuak, bestalde, azaldu du udal zein Ura agentziako teknikariak aztertzen ari direla gaia.

Aspalditik ari dira borrokan

Eraikin horretako bizilagunak aspalditik ari dira borrokan errekarren harri-lubeta bat jarri eta euren etxebizitzak babesteko. Ugaldek azaldu duenez, 1965ean, aurreikusita zegoen Deba errekarren kanalizazioa puntu horretan egingo zela, ha-



Domekan, lur-jausia gertatu zen San Andresko Ibai Alde etxe ondoan. E.A.

UDAL ARKITEKTOAK TXOSTENA OSATU ETA ERREKAREN MAILA JAITSI ARTE EZINGO DIRA ETXERA ITZULI

rri-lubeta batekin, hain zuzen ere. "Horrek ahalbidetuko luke errekar bere bidea egitea beste lur batzuk kaltetu barik", nabarmendu du. "Hala ere, urte hauetan guztietan ez da halakorik egin eta hemengo bizilagunok, guk eta gure oinordekoek, hainbat keza jarri izan ditugu Arrasateko Udalean eta Eusko Jaurlaritzan, haiena baita lur horien eskumena. Askotariko kezak jarri izan ditugu, besteak beste, 1966an, 1990ean, 1992an, 2008an eta aurrean, 2021ean". Horrez gain, planoak ere badituztela gaineratu du bizilagunak. "Ikusten da lehen askoz ere lehenago egin zuela bihurtzea errekar. Azken batean, bere bidea egin du urak eta zabalean irabazten joan da apurka-apurka, gure etxera gerturatuz".

Bi faktore nagusi ikusten dituzte. "Batetik, Uribesalgo lan-

tegia zenetik Etxaluzeraino kanalizazioa eginda dago, zementuaren gainean. Errekaren gainean botata dago zementu hori eta gure etxe parean uraren maila igo egiten da, presa moduko bat egiten duelako. Bestalde, 200 metro gorago, hain zuzen, harri-lubeta bat dago, eta, horren eraginez, erreka estutu egiten da eta indar handiagoarekin etortzen da gure etxe ondoko bihurtunera. Horrelako baten beldur ginen, eta, azkenean, gertatu egin da", azpimarratu du Ugaldek.



E.A.

Carrascoren plaka, aldatuta

Isaias Carrascoren omenez udaletxean dagoen plaka aldatu egin du Arrasateko Udalak, haren familiak hiru urtez egindako eskaera bati erantzunez –2018an jarri zuten lehena–. Memoria eta Bizikidetzeta Mahaian adostu dute aldaketa, aho batez –EAJ, EH Bildu, PSE-EE eta Elkarrekin Arrasate–. Aurreko plakak ez bezala, berriak zehazten du ETAK hil zuela.

Hainbat makina ordezkatu egingo dituzte kiroldegian

Iturripen led argiteria jarriko dute; lan horiek egiteko 48.992, 29 euroko inbertsioa egingo du Udalak

E.A. ARRASATE

Arrasateko Udaleko Kirol Zerbitzuak Musakolako kiroldegiko gimnasioko hainbat makina berrituko ditu. Modu horretan, batetik, bihotza lantzeko gunean, korrika egiteko zinta bat eta bizikleta etzan bat berrituko dituzte. Bestetik, muskulazio gunean, askotariko makinak ordezkatu dituzte: bular eta trizepsko *press* bertikala, femoralarena –horizontala–, bular eta sorbaldako *press*-a eta bizeps, trizeps eta bularreko uzkurtsaila. Makinen eguneratzean egin-

go den inbertsioa 17.167,24 eurokoa da, BEZa barne.

Bestalde, Iturripeko kantxako ohiko argiteria led teknologia-ekin ordezkatu dute. "Argi mota horiek abantailak eskaintzen dituzte kontsumo aldetik, ingurumenarekin jasangarriagoak dira eta epe laburrean inbertsio eta gastu energetiko aurreztearekin parekatzen da", azaldu du Udal Gobernuak. Lan horiek egiteko inbertsioa 31.825,05 eurokoa izango da, BEZa barne.

Datozen asteetan hasiko dituzte lan horiek guztiak.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

arbolapeta

arrasate

beinke

Informazioa eta laguntza ematen ari dira egunotan

Dagoeneko indarrean da TAO sistema berria, eta, lehen egunak "nahiko aldrebesak" izan diren arren, "martxa onean" ari da funtzionatzen, horretaz arduratzen diren langileek diotenez; bost langile daude: lauk kalean dihardute eta batek, bulegoan

Eneko Azurmendi ARRASATE

Hasiera batean, makina guztiak ondo dabilizan baieztatzen ari dira, eta baita informazioa eta laguntza ematen ere: "Bertakoen guneetan papertxo batzuk jartzen ari gara, oraindik ere txartela ez daukatenak txartela egitera animatzeko. Izan ere, batzuek oraindik ez dute txartela tramitatu eta beste batzuek azken unera arte itxaron dute, sistema martxan jarri arte. Beste gune batzuetan ere informazioa ematen ari gara, baita aparkatuta dauden autoetan ere, dagoeneko sistema martxan jarri dela esanez, nahiz eta ez dagoen isunik lehen bi hilabeteetan".



TAOko langileak, makinan, herritar bati informazioa eta laguntza ematen. E.A.

Esan moduan, bost langile dira TAO sistemaz arduratzen direnak, eta kalekoak binaka ari dira. "Herritarrei sortzen zaien zalantzak argitzen saiatzen ari gara, baita tiketa modu egoki batean ateratzeko laguntza ematen ere. Halaber, haiei ere esaten diegu haien kabuz ondo informatu daitezela eta makinak behar bezala erabil ditzatela".

Lehen egunak, "aldrebesak"

Aitortu dute lehen egun hauek "nahiko aldrebesak" izan direla, jaiegunak egon direlako tartean. Halaber, aitortu dute isunik ez dagoela baliatuta badirela ezjakinarena egiten duten herritarrak ere. "Gu kontziente gara horretaz, baina dagokion informazioa ematen diegu kasu bakoitzean, eta abisatzen diegu gero isunak etorriko direla".

Zera gaineratu dute: "Gu langile soilak gara, eta ordenantza betearazten dugu, zerbitzu bat emanez. Arrasatearrentzat egiten dugu lan, tiketa ordaintzen dutenentzat, eta sistema ez errespetatzea bertakoekiko errespetu falta da. Kontzientzia horrekin egiten dugu lan".

243 proposamen aurrekontu parte-hartzaileetan

Duela hilabete egin zuten deialdia Udaleko alderdi politiko guztietako ordezkariak, 2021-2022 aurrekontu parte-hartzaileen baitan 500.000 euro nora biderratu erabakitzeko ekarpenak egiteko. Hala, 131 proposamen aurkeztu dituzte paperean, 100 proposamen online eta hamabi sormen tailerretan.

Proposamen horiek lehen fasearen barruan daude. Orain, bigarren fasean, gaika banatuko dituzte proposamen guztiak, eta horietatik 20 eta 30 artean pasako dira bozketara. Lan hori herritar boluntarioz osatutako talde batek egingo du, eta talde horren parte izateko *Arrasate.eus*-en eman daiteke izena.

Azken fasea 2022ko udaberrian egingo dute. Bozketarako "parte-hartze sistema erakargarria" ari dira lantzen, bereziki haur eta gazteen parte-hartzea sustatzeko. "Helburua administrazio publikoan partaidetza naturaltasunez eta zeharkakotasunez integratzea da".

**Gabon
hauetan
oparitu
esperientziak**



Oparitu edertasuna eta ongizatea

BDR aurpegi tratamendua 120 €
Edertasun adimenduna

Mima zaitetz 90 €
Gorputz osoko masaje lasaigarria eta aurpegiko higieena

Gorputz peelinga: C bitamina 60 €
Esfoliazioa eta gorputzeko masajea

Lirain Ongizate masajea 90 €
Gorputzeko masaje erlaxagarri berezia

Oxiliance aurpegikoa 65 €
Eman azalari distira eta bizitasuna

Jong Bao masaje erlaxagarria 55 €
5 sentimenez gozatuz

LIRAIN

ARRASATE | ESTETIKA

www.lirainarrasate.com

Bixente Ferrer, 1 ARRASATE
Tel.: 943 79 52 17

Abian da txakur-kaken aurkako kanpaina

Udalak azpikontrataturako Cespa enpresako lorezainek adierazi dute aspalditik datorren arazoa dela eta gero eta larriago bihurtzen ari dela. Egunero bizi duten egoera da, eta Udalaren babesa jaso dute txakurren jabeen kontzientzian eragiteko

Ainhoa Arana ARRASATE

Duela astebete hasi zuten Arrasateko lorezainek txakur-kaken arazoa azaleratzeko kanpaina, eta gaur zortzi egin zuten lehen agerraldia, Otalora kaleko lorategian. Atzo, osteguna, bigarren agerraldia egin zuten, eta ospitale inguruan ibili ziren. Lorezainek adierazi dutenez, bi toki horietan daude txakur-kaka gehien, baina, orokorrean, herri osoan aurki daitezke. *Zure txakurra, zure ardura; Mesedez, jaso zure txakurraren kaka; Txakurrak ezin du jaso, zuk bai; Eskerrik asko kakak jasotzeagatik; Txakurra zurea da, lorategia denona; Haren beharrak, zure betebeharrak...* Halako aldarrikapenekin, egunero bizi duten egoera salatu nahi dute langileek. Batez ere, txakurren jabeen enpatia izateko eskatzen diete, langileen osasuna kaltetu daitekeelako txakurren kakak belarra mozteko makinarekin harrapatzean, eta ez da arazo hori azaleratzen saiatzen diren lehenengo aldia.

Horrez gain, duela urte batzuk gertatutakoa ekarri nahi izan dute gogora; izan ere, langile bat gaixotu zen gorotzaren birtartez transmititutako bakterien baten ondorioz. Toxokariosia eta halako gaixotasunak transmititu eta hartu ditzaketela nabarmendu dute lorezainek, eta, ondorioz, langileen osasunarekin kezkatuta daudela. Egoera hori errepikatu aurretik edo "zerbait larria" gertatu aurretik gaia behar bezala lantzeko momentua heldu dela uste dute. Joan den asteko Udalaren osoko bilkuran jasotako babesarekin, duela astebete hasi zuten kanpaina eta euren esku dagoen dena egiten ari direla azpimarratu dute. Arazoari konponbidea emateko moduetako bat isunak jartzea dela uste dute, baina iaz, adibidez, udaltzainek ez zuten isunik jarri. "Horrez



Lorezainak, ospitale inguruko agerraldian. AINHOA ARANA

"ZERBAIT LARRIA GERTATU AURRETIK, BEHAR BEZALA LANDU BEHAR DEN GAIA DELA USTE DUGU"

gain, txakurren jabeekin hitz egitea gure ardura dela esan digute", adierazi dute langileek. Hori, baina, ez dela euren lana aldarrikatzen dute, eta nahikoa dutela jasaten duten egoerarekin: "Polizia lanetan ibiltzea ez da gure lana, eta, are gutxiago, herritarrei banan-banan zer egin behar duten esatea".

Herritarrek eskatu bai baina ez dutela laguntzen adierazi dute lorezainek. Horren adibide da egun batez txakur-kakak zeuden belardiak ez moztea erabaki zutela eta berehala jaso zituztela kexak. "Ea, bada, kanpaina honekin kasu handiagoa egiten diguten", adierazi dute lorezainek.

Lorezainek errespetua besterik ez dute eskatzen; diote euren lana "lorategiak zaintzea" dela, "horrek dakarren lan guztiarekin: belarra moztu, loreak zain-

du...". Baina ez txakurren kakak jaso edo garbitzea. "Egoera hau ez da normala, eta errespetua eskatzen dugu. Herritar guztiek euren txakurren kaka jasoz gero, gure lana asko erraztuko litzaiteke", adierazi dute.

Egoera prekariora

Herritarrekin zerikusirik ez badauka ere, baldintza "nargarrietan" egiten dutela lan azpimarratu nahi izan dute langileek. Espainiako hitzarmenaren baitan egiten dute lan Cespa langileek, eta egoera oso kaxkarrak dela gehitu dute: "Almeriako langileen soldata bera daukagu, horrek dakarren guztiarekin: klima oso ezberdina da, han zuhaitzik ez dago eta hemen bai... Askotan, zailtasunak izaten ditugu bajak betetzeko edo ordezkioak aurkitzeko. Hemen gaudenak lana maite dugulako gaude".

2022an amaituko da indarrean duten plegua; kontratu berria sinatzekoak dira, beraz, datorren urtean. "Gure lana ez da behar bezala baloratzen, sindikatuarekin hasi gara negoziatzen ea lan baldintzak hobetu ditzakegun", azpimarratu dute lorezainek.



NIRE USTEZ

ENERITZ URRUTIA

Manta zuria

Neguko oparia, naturak eskainia; kaleak, mendiak bidezidorrak zuriz margotzen dituen. Sutondoko berotasuna, leihotik begiratu eta denboraren orratzak gelditzeko beharra. Une batez eguneroko geldi ezinetik ihes egin eta mundua gelditzen den momentua.

Neguko goxotasuna, freskura, hotzak sortzen duen elkarrengana berotasuna. Ondoan ditugunak, hainbat kilometrotara aurkitzen direnak zein gure ondotik ihes egin dutenak gogoratu, goxatu, maitatzeko tarreak.

Urtaro berezi gogorra. Senide zein lagun arteko ospakizunak, urte amaierako desirak datorrenerako helburuekin batera, gaizki egindakoak hobetzeko eta hobeak bizitzeko, bidegurutzean aukera berri bat izateko eta erratu arren altxatu eta aurrera jarraitzeko aukera jasotzeko.

Batzuk gehiago, beste batzuk gutxiago, baina bai, neguak badu zerbait berezia. Batzuetan elkartu eta beste batzuetan banantzen gaituena, bizirik sentiaraziz egun goibetan argi izpi bat marrazteko aukera ematen diguna, hori da negua.

GORA ETA BEHERA



Gabonetako argiak zaindu egin behar dira

Biteri etorbidean jarri duten Gabonetako zuhaitza apurtuta dagoela salatu du Arrasateko PSE-EEk, eta Gabonetako argiak zaintzeko eskatu die herritarrei. Aurten herriko dendetan kontsumitzera bultzatzeko lagunduko dutela diote, eta denon ardura dela horrelakoak zaintzea.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo 688 69 00 07.



ARRASATEKO PSE-EE

Tailerra eta elikagai bilketa egingo dituzte Santa Teresan

Abenduaren 13an, indarkeria matxistaren gaineko hitzaldia egingo dute Santa Teresa ikastolan, Emakume Txokoak eta Avesantes elkarteak antolatuta, eta gaztekeraz izango da. Abenduaren 14an eta 15ean, elikadura osasuntsuaren eta tabletaren erabileraren gaineko tailerrak egingo dituzte. 65 urtetik gorako bizilaguntzat zuzendutako

ekintzak izango dira, eta Gurutz Gorriak zuzendutakoak. Tailerretan izena emateko, 644 74 50 18 zenbakira deitu behar da, zortzi pertsonako taldeak izango dira, gehienez, eta debalde.

Horrez gain, eta iaz bezala, elikagaien bilketa antolatuta. Astelehenean ostiralera 11:00etatik 12:00etara eta 18:00etatik 20:00etara jasoko dituzte. Santa Teresako eta San Estebago auzo elkarteek antolatu dute ekimena. Iaz, 550 kilo elikagai baino gehiago jaso zituzten behartsuendako.

Muruia, Bankoa Abanca-DV txapelketako finalean

22-18 irabazi zieten Muruak eta Irazustabarrenak Unai Alberdiri eta Aizpururi, Tolosan jokaturako finalerdian. Abenduaren 26an jokatuko dute final handia, Zarautzen, eta, oraindik aurkariak erabaki gabe dauden arren, gogotsu dago pilotari arrasatearra

Ainhoa Arana ARRASATE

Txapelketa irail erdialdean hasi bazen ere, Muruak eta Irazustabarrenak azaroko lehenengo asteburuan jolastu zuten lehenengo partidua: final-laurdena, hain zuzen ere. Beasainen jokatu zuten partidua, eta entretengarria izan zen benetan, azken tantora arte ez baitzen inor gailendu. 22-21 irabazi zuten eta finalerdietara salto egitea lortu zuten. Aurreko asteburuan, Tolosako Beotibar pilotalekuan jokatu zuten partidua "oso berdinduta" egon zela adierazi du Muruak: "Partidu gogorra izan zen, oso berdinduta egon ginen, baina, azkenean, irabaztea lortu genuen". Gustura gelditu zen emaitzarekin, baina ez berak egindakoarekin, eta bere bikotekidea finago ibili zela ere onartu du arrasatearra. Irazustabarrenarengatik galdetuta, batera jokaturakoak zirela aipatu du, eta gustura dabilzala elkarrekin: "Jokatu izan dugu batera, eta elkar ezagutzen dugu; hori abantaila izan daiteke, agian. Hasiera batean, Gaskue tokatu zitzaidan bikotekide, baina hark astebete lehenago debuta egin zuen profesionaletan, eta, ondorioz, Irazustabarrena sartu zen ordezko. Hala eta guztiz ere, oso gustura aritzen gara elkarrekin".

Amateur mailan mundu mailako txapelkun izatetik dator Muruak, baina horrek ez dio konfiantza gehiagorik ematen finalari begira. Poztasun handia eta motibazioa ekarri dizkio lortutako txapelak, baina Bankoa Abanca-DV txapelketako finalean ez diola ezer ziurtatzen azpimarratu du pilotariak.

Finala, abenduaren 26an

Zarautzen jokatuko da finala, abenduaren 26an. Eta bihar, hilak 11, erabakiko da zeintzuk izango diren Muruaren eta Ira-

zustabarrenaren aurka jokatuko dutenak. Finalerdiko partidua Eibarren jokatuko dute: Expósito eta Morgaetxerria, Julen Alberdiren eta Albizuren aurka.

Arrasatearrari finalean aurkari bezala zein bikote nahiago duen galdetuta, berdin zaiola erantzun du: "Biak dira bikote onak eta partidu polita egiten saiatuko gara. Berdin dit nor izan aurrean, irabazten saiatuko gara eta ikusleak entretentzen saiatuko gara. Zorte ona opa diet bi bikoteei finalerdietan, eta onenak irabaz dezala".



Muruia, munduko txapelketan. NAZIOARTEKO PILOTA FEDERAZIOA

Aldaketak egin ditzakete Besaide elkarteko kideek

Hurrengo urtera begira aldaketak egiteko garaiz daude Besaide Mendizale Elkarteko kideak, eta, horrez gain, 2022an bazkide izateari utzi nahi diotenak ere garaiz daude bazkide bezala bertan behera uzteko. Horretarako, herritarren eskurara bide bat baino gehiago jarri ditu: batetik, besaide@besaide.eus helbidera mezu bat bidali

daiteke aldaketak edo bazkide uzteko nahia azaltzen; bestetik, bulegotik pasa eta bertan egin daitezke. Bulegoa astean birritan eta ordubetez soilik zabalitzen dute: astearteetan eta asteazkenetan, 19:30etik 20:30era, hain zuzen ere.

Azkenik, Besaide Mendizale Elkarteko ordezkariak gogorazti dute hurrengo urtera begira dauden eta aldaketarik egin nahi ez duten kideen kuota datorren asteazkenean, abenduaren 15ean, kobratuko dutela.

Asteartean zabaldu zituzten Mondraren dendako ateak

Mondra futbol klubak Zeziaga denda zegoen lokalean jarri du denda, urtarrilaren 8ra arte. Ekimena ez da berria; iaz ere izan ziren bertan, "herritarrengana hurbiltzeko" helburuarekin. Klub zuri-morearen kirol materiala salduko dute. Dendako ateak egubakoitzetan (18:00-20:00) eta zapatuetan (10:00-13:00) egongo dira zabalik herritarrentzat.



Mondraren denda. GOIENA

Ointxe!-ren campuserako izen ematea zabalik dago

2008tik 2013ra bitartean jaiotakoentzat izango da campusa eta bi txanda izango dira aukeratzeko: lehena abenduaren 27tik 30era bitartean izango da; bigarrena, aldiz, urtarrilaren 3tik 5era. 60 eta 50 euroko kostua izango dute, hurrenez hurren. Izena emateko edo informazio gehiago jakiteko, idatzi kirolzuzendaria@ointxe.eus helbidera.

Izena eman daiteke neguko eskubaloiko campusean

Aurten ere antolatu dute neguko campusa Arrasate Eskubaloia Elkarteko kideek, eta 2008 eta 2013 artean jaiotakoei zuzenduta dago. Bi txanda antolatu dituzte: lehena abenduaren 27tik 30era izango da; bigarrena, aldiz, urtarrilaren 3tik 5era. Informazio gehiago, aeb@arrasateeskubaloi.eus helbidean edo 619 67 26 96 telefono zenbakira deituta.



SAN FELIPE
ELKARLAGUNTZA

1898TIK
DEBAGOIENeko
ELKARLAGUNTZA

GABONAK ETXEAN NORBAIT FALTA DENEAN

Hitzaldi honetan, maite ditugun pertsonak hiltzen direnean Gabonak eta esangurantsuak diren beste data batzuei aurre egiteko jarraibide osansungarriak konpartituko ditugu.

Zure burua kokatzen lagunduko zaitugu, gure arteko babesa sortuz.

HIZLARIA

Maite Urzain (Doluan aditua)

AITORTZAK

Fernando Ipiña eta Itsaso Errasti
Enaut Zubizarreta biolontxelistaren musikarekin

OSTEGUNEAN, ABENDUAREN 16AN, 18:30EAN
ARRASATEN, KULTURATEKO ARETO NAGUSIAN

Goi mailako abeslarien eskutik, melodia lirikoak

Gala lirikoa egingo dute martitzenean, hilaren 14an, 20:00etan, Amaia antzokian. Helena Gallardo eta David Baños izango dira abeslari nagusiak, eta ondoan izango dituzte galako zenbait pasartetan Arrasateko Goikobalu abesbatzako kideak

Arantzazu Ezkibel Galdos ARRASATE Ozenki elkarte lirikoak urteroko gala lirikoa antolatu du abenduaren 14rako, martitzena. Opera, zarzuela eta bestelako melodia lirikoak gustuko dituztenenakin ezinbesteko hitzordua izango da. Goi mailako abeslariak bertatik bertara Amaia antzokian ikusteko aukera paregabea izango dute. Gainera, aurtengo berezitasuna izango da Arrasateko Goikobalu abesbatzaren laguntza izango dutela taula gainean abeslariak.

Opera pasarteak

"Galak bi zati izango ditu: lehenengoan, opera zatiak entzuteko aukera egongo da; eta bigarrenean, zarzuelako abestiak eta erromantzak", azaldu du Ozenki elkarte lirikoko kide Manu Gallardok.

Gallardok gaineratu du pieza oso ezagunen pasarteak abestuko dituztela, denendako ezagunak izango direnak: "Bizeten *Carmen*, Verdiren *Trobararia* eta Pucciniren *Tosca* opera entzuteko abestuko dituzte, besteak beste". Bigarren zatian ere Amaia antzokiko entzuleak ez dira hotz geratuko: "*Katiuska*, *La taberna del Puerto*, *La verbena de la paloma* eta halako abestiak eskainiko dituzte".

Tenorea eta sopranoa

Helena Gallardo izango da sopranoa; eta tenorea, aldiz, David Baños. Gallardok ibilbide luzea du oholtzaren gainean. Soprano profesionala izateaz gain, aktorea eta idazlea ere bada. Musika ikasketak Madrilen egin zituen. "Nazioarteko mailan dabilen sopranoa da", dio Manu Gallardok.

Baños, berriz, Europan kontzertuak ematen dabil. "Bukaresten kantatzen dabil, eta geldialdia izango duela aprobeztatu du Arrasatera etortzeko", azaldu du Ozenkiko kideak.



Marina opera egin zutenekoa. IMANOL SORIANO

BI ZATI IZANGO DITU GALAK: LEHENEAN, OPERA IZANGO DA; ETA BIGARRENEAN, ZARZUELA

Gozatzeko aukera

Amaia antzokira joaten denak melodia lirikoez gozatzeko "aukera paregabea" izango duela dio Manu Gallardok: "Lirikaz gozatu dute, nazioarte mailako abeslariekin". Horrelako formatuak egitera ohituta daude Ozenki elkartearen: "Orain dela urte batzuk, opera formatuak antolatzen genituen, baina pandemiak eragin du bestelako formatuetara egokitzea". Opera handi bat antolatzeke denbora luzea behar da, eta formatu handia izanda jende asko mugitu behar dela gaineratu du, horrek ekonomikoki dakarren kostuarekin.

Arrasaten, eta bailaran, orokorrean, melodia lirikoekiko zaletasun handia dagoela dio Ozenkikoak: "Hemengo jendea oso zalea da. Hala ere, horrelako herrietan erdi mailako for-

matuko ekitaldiak egiten dira. Formatu handikoa ikusteko Bilbora joan beharra dago. Gasteizen eta Donostian ere egiten dituzte, baina, esan bezala, formatu handiak kostu ekonomiko handia eskatzen du, eta zaila da horrelako antolatzea". Hauxe gehitu du: "Gu saiatzen gara erdi mailako formatuak eskaintzen, prezio onargarri baten".

Arrasateko Amaia antzokia horrelako formatuak egiteko antzoki paregabea dela dio Manu Gallardok.

Segurtasun neurriak

Gala lirikoa ikusteko sarrerak Udalararen atarian eta Kutxabanken daude salgai, eta leihatilan bertan ere salduko dituzte, 15 euroren truke. "Egia da pandemiagatik jendeak atzera egiten duela horrelako ekitaldietan parte hartzeko, baina dagoeneko saldu ditugu sarrera batzuk eta uste dugu martitzenera arte ondo salduko direla", nabarmendu du Manu Gallardok. Jaurlaritzak eta Udaleko Kultura Sailak ezarritako segurtasun neurriak bete beharko direla gaineratu du: "Guztionean segurtasuna da garrantzitsua".

Piotr Motyka poloniarra izan da akordeoilari onena Arrasaten

Nazioarteko Akordeoi Lehiaketa irabazi du, beste bost musikariri aurre hartuz; Gipuzkoako lehia ere izan da

A.E.G. ARRASATE

Piotr Motyka poloniarra irabazi du 2021eko Arrasate Hiria Nazioarteko Akordeoi Lehiaketa. Punta-puntako sei akordeoilari lehiatu ziren zapatutik astelehenera bitartean Amaia antzokian. "Ez nuen irabaztea espero, eta sari garrantzitsua da, zalantzarik gabe. Lehiaketa honetan lehiatik harago giro paregabea dago, eta hori ere asko estimatzen dut", esan zuen Motyak saria jaso eta Ravel konposatzailearen pieza bat eskaini ostean.

Motyak 46,90 puntu lortuta jantzi zuen txapela. Izan ere, oso estu joan zen lehia; bigarren saria Bielorrusiako Maryia Arolek jaso zuen, 46,74ko punturekin; hirugarren saria, berriz, Yilin Han txinatarrarendako izan zen. 46,53 puntu lortu zituen akordeoilari txinatarrak.



Piotr Motyka musikaria. LARRAITZ ZEBERIO

Gipuzkoako lehiaketa

Ekitaldi berean banatu ziren Gipuzkoako lehiaketako sariak. Haurren kategorian, Andrian Tenias nagusitu zen; gazteen kategorian, Ibon Asua; eta senior mailan, Jessica Reis. Hirurek jo zuten pieza bana emanaldian.

Glu-glu taldeak 'Perez sagutxoak' antzezlanaren egingo du bihar

Perez sagutxoaren benetako istorioa erakutsiko dute Glu-glu taldekoek; belaunaldi, amets eta burko guztiak gaitu dituen istorioa da sagutxoarena. Bihar izango da emanaldia, zapatua, Amaia antzokian, 5 euroren truke. Dantzekin eta abestiek jolastuko dira antzezleak, eta ipuin klasikoa komedia ukituarekin erakutsiko dute.

Arrasate Musikaleko ikasleek kontzertua eskainiko dute

Arrasate Musikaleko ikasleek Gabonetako kontzertua eskainiko dute gaur, egubakoitza, 18:30ean, Kulturaten. Bakarka eta taldeka arituko dira musikari gaztetxoak. Oboea, flauta, klarineta, tronpeta, biolina, biola, biolontxelo, gitarra eta pianoa joko dituzte, besteak beste, gaurko kontzertuan. Emanaldia doan izango da

Zirkuaren magia herriko kaleetan barrena ibiliko da

Udalak eta Ibai-arte abendu osorako egitaraua antolatu dute. Bihar, zapatua, Zirkun Zirkoko malabaristak, orekariak, akrobatik... herriko kaleetan ibiliko dira, 12:00etatik 14:00etara bitartean. 19:00etan, aldiz, ATAKA ikuskizuna egingo dute herriko kaleetan. Aireko ko-oreografiez osatutako ikuskizuna izango da.

'Bitakora' diskoa aurkeztuko dute Mc Onak lekeitiarrek

Abenduko Kooltur Ostegunak abian da. Abenduaren 16an, Lekeitioko Mc Onak taldearen bisita izango dute Arrasateko gaztetxean. 2021ean argitaratutako *Bitakora* laneko doinuak joko dituzte. Bosgarren urterena ospatzen ari da taldea, eta ospakizunen baitan egindako lana da. Kontzertua 22:00etan izango da, eta sarrera 7 euro.



Nardeaga eta Pedro Ignacio Barrutia kaleen arteko bidegurutzeara. A.E.G.

Bidegurutzearan oinezkoek izango dute lehentasuna

Nardeaga eta Pedro Ignacio Barrutia kaleak elkartzen diren gunea irisgarri egiteko proiektua du Udalak. Lan horiek egitea kontrataziora atera dute, 81.001,10 euroko aurrekontuarekin. 2022an egingo dituzte lanak, eta bi hilabete iraungo dute

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Nardeaga kalea eta Pedro Ignacio Barrutia kaleak batzen diren bidegurutzearan irisgarritasuna bermatzea izango da Udalak esku artean duen proiektuaren helburua. Kontuan hartu behar da herritarren topaleku nagusienetako bat dela goiko tabernen alde hori; horregatik, aramaioarrontzat irisgarritasuna eta segurtasuna bermatzen duen gune bat egin nahi dute.

Udalak kontrataziora atera du obrak egiteko proiektua.

Errepidearen maila igo

Udalaren memorian jasotzen diren obrekin aipatutako gunea egokituko da, eta irisgarritasuna bermatu. Hirigintza batzordeko buru Gorka Astondoak honako hau azaldu du: "Erretiratuaren elkarte parean hasi eta anbulatorioa dagoen pareraino irisgarritasuna bermatuko da, oinezkoek lehentasuna emanez; errepidearen maila igoko da, espaloien altueraraino".

Irisgarritasuna bermatu ahal izateko egin behar diren lanak dira: bi kaleak elkartzen diren gunea irisgarri egiteko asmoarekin errepidearen maila igotzea proposatzen da, espaloien altuera bera izan dezan; kultura etxe inguruan ibi bat jartzea proposatzen da, modu horretan oinezkoek segurtasunez pasa dezaten errepidea; udal garajeetarako sarrera inguruan espaloiri jarrapena ematea; beste espaloi bat egitea okindegiko eremuan izan ere, gaur egun gune horretan ez dago espaloirik eta oinezkoak errepidetik ibiltzera derrigortuta daude; eta beste arrapala bat egitea Nardeaga kaleko 21A zenbakiaren inguruan, ekialdean dauden eraiki-

BI KALEAK ELKARTZEN DIREN GUNEAN BIDEA ALTXATUKO DUTE, ESPALOIAREN ALTUERA HAR DEZAN

netara iristeko ibilbide irisgarri bat sortuz.

Astondoa zinegotziak nabarmendu du bidegurutzearan oinezkoek izango dutela lehentasuna eta autoen abiadura moteltzeko ibiak jarriko direla.

Bi hilabeteko iraupena

Kontratuan zehaztuta dauden obrak egiteko epea bi hilabetekoa izango da. "Lanak datorren urtean egingo dira", dio Astondoak.

Kontratuan adierazitako lanen justifikazioa, exekuzio aukeren azterlana eta memoria teknikoak baloratu dituzte udal zerbitzuko teknikariek. Hala, hau da egin duten aurrekontua: lanen exekuzio materialaren aurrekontua: 66.943,06 euro; eta horri gehitu behar zaio %21eko BEZa. Guztira, beraz, 81.001,10 euro.

2021eko martxoaren 30ean Aramaio udalbatzak onartutako aurrekontuan jaso zuten proiektu hori egiteko asignazio ekonomikoa.

Hirugarrenez egingo dute bikoizketa txapelketa

Hiru kategoriatan banatuta egingo dute txapelketa, abenduaren 17an, eta bikoizketak euskaraz izango dira

A.E.G. ARAMAIO

Bikoizketa txapelketa egingo dute datorren barikuan, abenduaren 17an, kultura etxean. Aramaion jaio, bizi edo lan egiten dutenek parte hartu ahal izango dute txapelketa; taldeka parte hartzeko aukera egongo da, bi eta lau arteko pertsonako taldeetan.

Eszenaratzea izango da abenduaren 17an: 17:30ean 8 eta 12 urte bitarteko txanda; eta 18:30ean, 12 urtetik gorakoena. Sariak hiru kategorien arabera banatuko dituzte: 8 eta 12

urte bitarteko kategorian, 75 euroko txartel bat jasoko du talde irabazleak; 12 eta 20 urte bitartekoek ere, 75 euroko txartela; eta 20 urtetik gorakoek 80 euro jasoko dituzte Aramaio jabetxe batean gastatzeko.

Lehiaketan parte hartzeko baldintzen artean dago eszenaratzeak euskaraz egin behar direla: euskara batuan edo euskalkian izan daitezke.

Eskolako gazteteok Iurgi Etxebarriarekin bikoizketa tailerra egingo dute hilaren 14an eta 15ean.



HERIBERTO ARRIOLABENGOA

Arriolabengoa txapeldun

Markel Arriolabengoak 22-15 irabazi zuen zapatuan Arabako Lurraldeko Txapelketa. Herriaren taldeko Aimar Amondo izan zuen aurrean, 22 urtez azpikoaren finalean. "Partidu gogorra izan zen: 8-1 aurre hartu nuen, baina sakearekin berdintzea lortu zuen Amondok. 15. tantoan nik hartu nuen saka, eta aurrera egin nuen", dio. Irudian, Julen Olaizolarekin.

2020an Alex Mendikutek ateratako argazkiak ikusgai

Urteroko zita bilakatu da herrian Alex Mendikutek argazkiekin egindako proiektua. Gaur, barikua, izango da Mendikutek 2020ko argazkiekin osatutako argazki proiektua. Kultura etxean egingo du, 18:30ean hasita. 2020an zehar herriko ekitaldietan eta txokoetan egindako argazkiak izango dira, herri-tarrak protagonista direnak.

Gizonezkoentzako maskulinitate tailerra egingo dute bihar

Maskulinitatearen inguruko tailerra egingo dute bihar, zapatua. Hiruki Larrosa izeneko elkarteak emango du tailerra. Gizonezkoek zuzendutakoa izango da, eta, aurrez izena emanda, haurtzaindegi zerbitzua eskainiko dute. Maskulinitatea era osasuntsuagoan bizi izateko baliabideak eskainiko dituzte, orain artekoa ezikisiz.

Gabonak girotzeko egitarauari ekiteko gertu

Kontzertuak, antezlanak, bertso jaialdia, pailazoen emanaldia eta Gabonetako ohiko ekitaldiak jaso dituen egitaraua gertatu du Kultura Sailak; Aretxarte, oster, zigiluen eskaintzarekin eta egutegiarekin dator eta erakuslehoi lehiaketa ere abian da

Mirari Altube ARETXABALETA

Erabateko ziurtasunik ez izan arren eta egoera aldatzen joan, Gabonetarako ekintzak ez dira faltako. Musika, antzerkia, pailazoak eta bertsolariak dira Udaleko Kultura Sailak zehaztutako egitarauaren osagai nagusiak. Aurten, gainera, Gabonetako ohiko ekitaldiak berreskuratzea da asmoa; hau da, Olentzero eta Mari Domingiren, Bizarzuriren eta Errege Magoen desfileak izango dira; hori bai, egungo egoerara egokituko dituzte horiek eta neska-mutikoak ezingo dira haiengana hurbildu –geldialdirik ez dute egingo ibilbidean–.

Ainhoa Cabero Kultura zinegotziak azaldu duenez, pandemiaren bilakaeraren datuek baldintzatuko dute egitarauaren garapena; hortaz, baliteke aldaketak eta egokitzapenak izatea egunek aurrera egin ahala. "Askotarik emanaldiak antolatuta dira, hainbat eragileren laguntzarekin, eta ekitaldi bakoitzean segurtasun baldintzak beteko direla bermatuz. Jende pilaketak saihesteko, eta birusak haurrengan duen intzidentzia-tasa kontuan hartuta, urtarrilaren 3an eta 4an aurreikusita zegoen haur parkea ez da egingo. Gainerako ekitaldiak une oro har daitezkeen osasun neurrietara egokituko dira", azaldu du Caberok.

Egitarauari dagokionez, nabarmentzeko ekitaldiak dira Porrotx eta Marimotots pailazoen emanaldia Arkupen; ehun bat ikaslek parte hartuko duten Leizarra musika eskolako Gabonetako kontzertua; herriko artisauen, ekoizleen eta merkatarien azoka; eta San Silvestre lasterketa.

Zigiluak eta egutegiak

Aretxarte merkatarien elkarteak ere keinu egingo die Gabonei, eta zigiluen eskaintza antolatu du, beste behin; sei zigilu batu



Emakume bat, Lie opari dendako erakuslehoari begira. MIRARI ALTUBE

Egitaraua

Abenduak 18

- **10:00** Azoka: ekoizleak, artisauak eta merkatariak. Durana kalea.

Abenduak 19

- **19:00** Kontzertua: musika eskolako kantuko ikasleak. Parrokia.

Abenduak 21

- **18:00** Kontzertua: musika eskolako ikasleak. Kiroldegia.
- **18:00** Porrotx eta Marimotots: Amaren intxaurreak. 16:00 eta 18:00. Arkupe.

Abenduak 23

- **19:00** Bertso saioa. Arkupe.

Abenduak 26

- **19:00** Kontzertua: Aretxabaleta Abesbatza. Parrokia.

Abenduak 29

- **19:00** Gospel kontzertua. Arkupe.

beharko dira, gero zozketan parte hartzeko. 2022ko egutegia ere banatuko dute bezeroen artean, gaurtik. Aretxabaletako Argazki Artxiboko argazki zaharrekin osatu dute hori aurten. Eta herriaren erosketak sustatzeko egindako spota ere zabalduko dute.

Erakuslehoi lehiaketa abian da

Gabonak girotzeko apaindutako erakuslehoien lehiaketak ere ez du hutsik egingo. Udalak eta Aretxartek elkarlanean antolatu dute, eta bi sari banatuko dituzte: lehenengoak 300 euroko bonua jasoko du eta bigarrenak, 150 eurokoa –Aretxarteko establezimenduetan gastatzeko–.

Iaz legez, bigarren saria herritarrek aukeratuko dute bozketak bidez; gaurtik abenduaren 26ra bitartean dute horretarako aukera. Botoa aurrez aurre eman ahal izango da, Arkupen jarritako kaxan, eta, aurten, *AretxabaletaApp*-en bidez ere bai. Botoa ematen duten herritarren artean 50 euroko bonu bat zozkatuko dute gero. Lehiaketan herriko komertzio guztiek parte har dezakete –ez dago izenik eman beharrik– eta sariak abenduaren 29an banatuko dituzte.



Ion Albizu eta Jasone Garzia-Etxabe zinegotziak. M.A.

Kultura Sailerako "erabateko aldaketa" gura du EH Bilduk

Kultura arloko funtzionamenduari ez daude batere gustura eta norabidea aldatu beharra dagoela diote

M.A. ARETXABALETA

"Ez gaude batere gustura kultura arloko funtzionamenduari", adierazi dute EH Bilduko Ion Albizuk eta Jasone Garzia-Etxabek: "Batordeek ez dute inongo edukirik, ezta bertan berba egiten denak inongo baliorik ere". Kultura, bertako programazioa eta horretarako udal baliabideak "era herrikoia-goan" kudeatu beharko liratekeela uste dute, "eragile ezberdinen esku utzita horiek".

Kultura Sailaren "erabateko aldaketa" proposatu dute, eta horretarako egindako proposamenek hiru helburu dituztela zehaztu: "Herriko kultura dinamika parametro sortzaileago eta herrikoia-goetan kokatzeko bidea hastea; Udalaren eta herriko eragileen artean elkarlanean zehaztea kulturako kudeaketa eta eskaintza; eta dinamika eta programazio berriak sortzea".

Herriko eragileekin elkarlanean

Funtzionatzeko erak aldaketa sakona behar duela diote; bereziki, Kultura batzordeak. Eta hiru proposamen egin dituzte: batzorde zabala eratzea, edozeinek parte hartzeko; batzordearen edukiak gehiago lantzea; eta urteko data esanguratsuak modu partekatua lantzea.

Programazioaren zati bat herriko eragileen esku uztea ere proposatu dute: "Hala, programazio berritzailea, orain baino parte-hartzaileagoa eta herrian sustraia, eta herriko kudeatutakoa edukiko genuke". Ildo horretatik, urtero argitaratzen diren lanei babes handiagoa ematea ere aipatu dute, "sormena eta herriko dinamika bultzatzeko". Eta proiektu berri bat aurkeztu dute: "Landa eremuko auzoetan ekintza kulturalak egiteko diru partida bat sortzea, eta era konpartituan kudeatzea".

Kimuen eta gazteen pilota partiduak gaur, egubakoitza

Iturri gorri pilotalekuan hainbat partidu izango dira gaur, egubakoitza (19:00). Bigarren mailako kimuak diren Sarasuak eta Barandiaranek elkarren aurka jokatu dute; lehen mailako kimuen artean, Ahsan aretxabaletarrak Lazkaoko Arizmendiren aurka jardungo du; eta gazteen mailan, Barandiaranek Andoaingo Berosen aurka.

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Errespetuaren gaineko filma Aratzen eskutik

Aratz elkarteko hainbat kidek eta Atzegiko etxean bizi diren zenbaitek egindako 'Respect' film laburra estreinatuko dute abenduaren 17an Arkupen, eta bi emanaldi egingo dituzte; errespetua du gai 25 minutu dituen film laburrak

Mirari Altube ARETXABALETA

Pertsonen arteko errespetua gai hartuta film laburra egin dute Aratz elkarteko eta Atzegiko hainbat lagunek. "Bullying-a, sexu-indarkeria... Orokorrean, indarkeria bera hartu da gai. Herrian giro jasanezina dago eta horri buelta ematen ahaleginduko da taldetxo bat. Hori da oinarria, eta umore ukitua-ekin landuta dago. Bukaeran, indarkeria mota guztien aurkako mezua zabalduko da", azaldu du Aratzeko kide Jokin Antxiak, eta gaineratu: "Ez da barbarik egiten, mutua da, baina samur ulertzeko modukoa".

Xabi Antxia zuzendari

Hamazortzi lagun inguruk jardun dute aktore lanetan Xabi Antxia zuzendariaren esanetara, eta alboan izan du Jokin Antxia: "Youtuber jardundakoa, artista handia da. Gogoz hartu zuen proiektua eta lan handia egin du". 2019ko azarotik 2020ko otsailera bitartean grabatu zuten filma, zazpi bat saiotan: "Pandemia aurretik bukatu genuen, zorionez, eta muntatze lanak egin ziren gero. Gure asmoa zen iazko maiatzean estreinatzea, eta pentsa noiz datorren!". Aretxabaleko toki esanguratsuetan egin dituzte grabaketak: Urkulu,

komentuko lorategia, pilotalekua, kiroldegia... "Toki ezagunetara eta interesa dutenetara jo gura izan dugu", azaldu du Antxiak.

Aktoreen naturaltasuna

Iurgi Etxebarriarekin antzerki ikastaroa egin zuten 2019an Aratzeko kide askok, eta orduan jasotakoa antzeman egin da orain: "Uste izaten da eszena bakoitza behin eta berriz errepikatu beharra egongo dela, baina gero, harritu egiten gaituzte eta lehenengoan ederto egin. Zerbait badute naturaltasuna da, eta

horri esker gutxitan errepikatu behar izan ditugu".

Herritarrek gonbidatuta

Film laburra datorren egubakoitzean, hilaren 17an, estreinatuko dute Arkupen, eta bi emanaldi egingo dituzte, 18:30ean eta 19:30ean –debalde biak–. "Lehenengo Aratzeko kideok beteko dugu, seguru asko, baina bigarrenean lekua egongo da, eta gonbidatuta daude herritarrek. Arrakasta duela ikusiz gero, beste emanaldi batzuk ere antolatuko ditugu".



Film laburraren une bat, Urkulun grabatutako eszena bat. XABI ANTIXIA

Kirola eta emakumea: gai hori hizpide mahaiaren bueltan

'Emakumea eta kirola oztopoz haratago' solasaldia izango da hilaren 16an, Arkupen, lau kirolari elkartuta

M.A. ARETXABALETA

Emakumea eta kirola egitarauaren baitan, mahai-ingurua izango da egunean, Arkupen (19:00) UDAk eta Udaleko Berdintasun eta Kirol sailek antolatuta. *Emakumea eta kirola oztopoz haratago* gaiaren bueltan punta-puntako lau kirolari izango dira kontu kontari: txirrindulari ohi Ainhize Barrainkua aretxabaletarra, Malen Ruiz de Azua pertika-jauzilari arrasatearra, Oihana Azkorbebeitia mendi lasterkari abadiñarra eta Garbiñe Etxeberria Realeko kirol zuzendaria. Ane Urkiri kirol kazetariak egingo ditu moderatzaile lanak.

Mahai-inguru horren helburua bikoitza dela adierazi du UDAko kudeatzaile Ainara Mugak: "Batetik, kirol munduan, kirolari jardunean zein kudeaketa mailan diharduten emakumeei

ikusgaitasuna ematea, eta, ondorioz, horien lanari; eta bestetik, emakume izate hutsagatik, kirol munduan jarduteko gainditu behar dituzten oztopoak azaleratzea eta gaitzestea". Era berean, sentsibilizatzeko lana ere egin gura dute: "Ohikotzat jotzen ditugun hainbat eta hainbat egoera ez direla gustuko, oztopo direla eta emakume izate soila-gatik bizi behar izaten ditugula erakutsi".

Profil askotariko kirolariak

Profil eta adin askotariko kirolariak elkartu gura izan dituzte: "Baina, aldi berean, euren bizi-penek antzekotasunak dituzte. Hizlarien artean amaren figura ageri da, kirolariaren figura, eta baita kudeaketan diharduena-rena ere. Eta guztiak dira entzunak izatea merezi duten emakume paregabeak".

Bluesa eta AEBetan errotutako rock doinuak eguaztenean

Nico Wayne Toussaint eta Iker Piris musikarien kontzertua izango da abenduaren 15ean, Arkupen, 19:00etan. Bertsio interesgarriekin eta kantu originalekin osatutako erreperitorioa eroango dute Zاراia aretara, "ikuskizun dinamiko eta bizigarria", bereziki bluesa "aspergarria" dela pentsatzen dutenei zuzenduta.

'Enperadorearen kondaira' txotxongilo emanaldia umeendako

Patata Tropikala taldeak *Enperadorearen kondaira* emanaldia eskainiko die 4 eta 12 urte arteko neska-mutikoei datorren martitzenean, hilaren 14an, Arkupen (18:00).

Txinan oinarri duen antzina-ko istorio ezaguna eroango dute Zاراia aretoko oholtzara, eta itzalen antzerkiaren balioa agerian utzi.



ORTODONTZIA IKUSEZINA

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

ZURE IRRIBARREA HOBETU AHAL IZANGO DUZU INORK IGARRI GABE.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55



Eskoriatza Lagunkoia taldeko zenbait kide, Zaldibar antzokian herri-diagnosia aurkeztu zutenean. IMANOL BELOKI

Bi urtez jarduera etenda, herria hobetzeko gogoz

Eskoriatza Lagunkoia osatzen duten kideak berriz hasiko dituzte jarduerak, eta, Eskoriatza hobea eraikitzeko bidean, lanean jarraitzeko gogo biziz daudela adierazi dute taldekideek. Horrekin batera, taldea handitzeko asmoa agertu dute

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatza Lagunkoia taldean Olazar Erretiratuen Elkarteak hogeitaz lagun inguru daude 2016a ezker, herriaren egoera lantzen eta aztertzen, eguneroko bizitzan dituzten arazoak zerrendatzen eta horientzako irtenbideak proposatzen, Eskoriatzako alderdi positiboak zein negatiboak identifikatzen. Hori horrela, bi urte eta erdiko lanaren diagnosi txostena Eskoriatzako udal ordezkariari aurkeztu, eta herritarren artean ere aurkeztu zuten egindakoa. Pandemiaren eraginez, baina, beraien jarduera denbora batez uztea erabaki zuten, eta ia bi urtez gelditu egon ondoren eginkizunak berrartu dituzte.

Orain artekoari segida

"Eskoriatza Lagunkoia taldean ekarpenak egiten ditugu eskoriatzarraren bizi-kalitatea hobetzen saiatzeko. Hala, diagnosi fasea egin genuen lehenbizi, eta, horretarako, herri osoan

zortzi arlo aztertu genituen: aire zabaleko espazioak eta eraikinak; garraioa; etxebizitza; parte-hartzea eta gizarte sarea; herritarren parte-hartzea eta enplegua; errespetua eta inklusioa; komunikazioa eta informazioa; eta gizarte eta osasun zerbitzuak. Horiek aztertzeko, hamabost egunean behin batzen ginen, eta, ekarpen guztiak batu ostean, egindako lana aurkeztu genuen. Ondoren, diagnosia osatzeko inkestak egin genizkien zenbait herritarri, eta gure ekimenari jarraipena eman behar genionean gelditzea erabaki genuen", adierazi du Eskoriatza Lagunkoia taldeko kide Jose Mari Kortazarrek.

Horren harira, taldeak presatutako zenbait proiektu au-

rrera eraman zituela Eskoriatzako Udalak eta horrekin "pozik" daudela adierazi du Kortazarrek; gaineratu du idatzi bat bidaliko dietela udal ordezkariari euren jardueraren berrartzearen berri emateko: "Egin genuen diagnosikoaren zenbait proiektu gauzatu zituzten, eta, hori begi onez ikusten dugun arren, egiteko geratu ziren beste hainbat; beraz, udal ordezkariari adierazi nahi diegu hemen gaudela, eta lanari berrekingo diogula...".

Taldea handitzeko asmoz

"Eskoriatza Lagunkoia taldea sortu zenetik pertsona berak aritu gara lanean, baina kide berriak nahi ditugu ekarpen eta proposamen berriak jasotzeko. Hori horrela, interesa duen herritar oro batu daiteke taldera, eta, hain zuzen ere, egiten dugunaren gaineko edozein informazio edo argibide gura dituenak 688 87 69 07 telefono zenbakira deitu dezake".

ESKORIATZA LAGUNKOIA TALDEKOEK ZABALIK DITUZTE ATEAK KIDE BERRIENDAKO



Eszena bat grabatzen. 'HURRENGO GELTOKIA'

'Hurrengo geltokia' film laburra aurkeztuko dute MUko ikasleek

Abenduaren 12an aurkeztuko dute, 18:00etan, Zaldibar antzokian, eta sarrerak salgai daude kiroldegian

Imanol Beloki ESKORIATZA

Mondragon Unibertsitateko hirugarren mailako Ikus-entzuzeko Komunikazioko zenbait ikasleek iaz egindako film labur baten proiektzioa izango da ikusgai abenduaren 12an, 18:00etan, Zaldibar antzokian. Sarrerak erosi beharko dira, alde aurretik, hiru eurotan, Manuel Muñoz kiroldegian, edo egunean bertan, proiektzioaren aurretik, Zaldibar antzokiko leihatilan.

Elkarrizketarik gabeko lana

"Gipuzkoako Foru Aldundiak martxan duen Gazteak Auzolanean programari esker, film labur honen bira hasiko dugu eta lehenengo emanaldia Eskoriatzan izango da. Proiektua elkarrizketarik gabekoa da, irudiekin bakarrik adierazten da kontakizuna, eta gaur egun bizi dugun egunerokotasun monotonoari kritika egitea izan da

proiektuaren helburua. Ikusleek honen inguruko hausnarketa egiteko gonbita da. Film laburra emateaz gain, prozesuaren inguruko azalpenak emango ditugu beste bideo labur bat erakutsiz", adierazi du Julen Leturiondok, *Hurrengo geltokia* film laburraren taldeko kideak.

Bost egunetan grabatuta

Iaz, bost egunetan zehar egin ziren grabaketa guztiak. Lantaldeko kideen esanetan, grabaketa egunak oso luzeak eta neketsuak izan ziren, baina talde lanaren emaitzarekin gustura geratu dira. Naia Aizpurua, Uxue Morales, Angello Eloizaga, Ander Zelaia, Natalia Artech, eta Julen Leturiondo dira *Hurrengo geltokia* film laburreko lantaldeko kideak, eta Jon Ander Urresti eta Garazi Beloki dira ikus-entzuzeko horretako protagonistak nagusiak.

Joserra Zubizarreta 'Harira' saioan izango da abenduaren 14an

Goiena telebistaren *Harira* saioan egongo da Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkatea, hilaren 14an. Debagoieneko udaletan ordezkatuta dauden alderdi politikoetako ordezkariari ahotsa eman eta mahai-inguruak egiten ari da *Harira* saioa denboraldi berrian. Eneko Azkarate eta Goiatz Aranarekin. Datorren astean Eskoriatzari eskainiko

zaio eta bertan Joserra Zubizarreta izango da mahaiaren bultan. EH Bilduko Eluska Irazu bozeramailea ere gonbitatu dute, baina Eskoriatzako EH Bilduk uko egin dio saioan parte hartzeari. Askotariko gaiak izango dituzte hizpide, eta herritarrek ere izango dute gaiak edo galderak proposatzeko aukera. Posta elektronikoz: berriak@goiena.eus; eta Whatsapp edo Telegram bidez: 688 69 00 07. Galderak bidaltzeko azken eguna: igandea, hilak 12.

"Txakurrak bultzatu ninduen txakur krosera"

JOSU GALVEZ KORRIKALARIA

Aurten hasi da txakur kros modalitatean lehiatzen eskoriatzarra, eta, Espainiako Kopa hasi berri, geratzen zaizkion bost lasterketan parte hartzeko asmoa du

Imanol Beloki ESKORIATZA

Josu Galvez eskoriatzarrak urteak daramatza mendi-lasterketetan lehiatzen, baita asfalto gaineko zenbait proba egiten ere, baina aurten modalitate berri bati ekin dio: txakur krosari. Gaztea da oraindik, baina ibilbide oparoa du aurretik, kontuan hartuta Eskoriatzako Silbestradie proba –herrikoia bada ere– irabazi zuela 2016an. Gabez Takarraran proban ere gazteen mailan aritu ostean, podiumera ere igo izan da helduen proban... Hala, etapa berri bati hasiera eman dio, *Sila* txakurra bidelagun duela, eta, ikasteko urtea izango dela dioen arren, emaitzak paregabeak izaten ari dira.

Txakur krosera hasi berri zara; zer dela eta?

Txakur bat nahi nuen, mendian aritzeko. Hau da, korrika egitera irteten nintzenean edo paseo bat eman behar nuenean konpainia izateko. Kontua da duela bi urte Itoitz Armendariz eskoriatzarrak –munduko mushing txapelduna– txakurkumeak zituela, eta bat hartu nion. Alaskano txakur mota da, txakur kroserako eta halako kirolerako aproposa: txakur langilea, kirol honetarako beharrezkoak diren ezaugarri espezifikoak dituena... Hala, esan dezakegu txakurrak eraman ninduela txakur krosera aritzera.

Hala ere, emaitza paregabeak izaten ari zara, ezta?

Gasteizen, Armentian, egin nuen nire lehenengo proba. Euskal Herriko txapelketako lasterketa bat izan zen, eta irabaztea lortu nuen. Ondoren, Guadalajaran egin nuen beste lasterketa bat, azaroan, eta hurrengo egunean, segidan, Teruelen beste proba bat. Bi haietan ere garaipena lortu nuen. Gero, Lleidara joan nintzen, maila handiagokoa zen lasterketa bat egitera, Espainiako Kopako txapelketarako pun-



Josu Galvez eskoriatzarra txakurrekin lasterketa batean. LEIRE ZEARRETA

"AURTEN HASI NAIZ LEHIATZEN, ETA ESPAINIAKO TXAPELKETAN ETA KOPAN ARI NAIZ"

tuagarria zena. Kasu horretan, sailkapenean bosgarren postuan geratu nintzen. Aurreko asteburuan, berriz, Sorian izan naiz, Olvega herrian. Espainiako Txapelketako lasterketa izan da egindakoa, eta zortzigarren postuan amaitu dut. Ikusita nolako maila izan zen, nahikoa egin nuela esango nuke.

Nola entrenatzen zara?

Landako bidegorrian, Uribarri Ganboan, Bidebarrietan eta Asentzio inguruan aritzen naiz entrenatzen, batez ere. Asteazkenean zehar, txakurra solte eramanda entrenatzen naiz pixka bat, eta gero, lotuta dudala, astean hiru bider irteten naiz eta bost eta zortzi kilometro artean egiten ditut. Zenbait kasutan, bizikletan ere joaten naiz Uribarri Ganboako urtegira. Lurzorua laua da, eta, txakurra alboan, gustura entrenatzen da.

Txakur mota espezifiko izatea beharrezkoa da?

Edozein txakurrekin lehiatu zaitezke. Bada jendea artzain txakurrekin, esaterako, lehiatzen dena, baina lasterketa federatuetan halakoak ikustea ez da ohikoa. Halakoak gehiago ikusten dira herri lasterketan.

Babesa ere ezinbestekoa, ezta?

Eskoriatzako Altuna harategiko Javi eta orain gurekin ez dagoen Juan Carlosek txakurrarendako jana ematen didate, eta beraien laguntza ikaragarria da. Lasterketaren bat egin eta argazkiren bat edo beste jasotzen badut, sare sozialetan beti egiten diet aipamena, baina lasterketan ere jarri nahiko nuke beraien babesletza.

Zein erronka dituzu aurrera begira?

Aurten federatu berri naiz, Bergarako Pol-pol taldearekin, eta ikastea da denboraldi honetako helburu nagusia. Espainiako txapelketako eta Espainiako Kopako lasterketak egin nahi ditut. Lau edo bost lasterketa geratzen zaizkit, eta puntuatzeko hiru edo lau lasterketa egitea ezinbestekoa da. Hori horrela, hurrengo lasterketa urtarrilean egingo dut, eta gero geroak...



Haurrak ludotekan eskulanak egiten. GUREL GURASO ELKARTEA

Ordu eta erdira mugatuta bada ere, jolasa da nagusi ludotekan

Gaur egun, egubakoitzetan bakarrik elkartzen dira Leintz Gatzagako ludotekako erabiltzaileak

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Azarotik ari da Gorka Zubillaga gatzagarra ludotekako hezitzaile. Gaur-gaurkoz egubakoitzetan soilik batzen direla dio, ordu eta erdira, eta, egin nahi dituzten ekintza guztiak gauzatzeko denbora nahikoa ez bada ere, haurrak gustura ari direla nabarmendu du.

"Ludotekako erabiltzaile gehienak 7 eta 8 urtekoak dira. Egubakoitzetan bakarrik batzen gara, 17:30etik 19:00etara bitartean; izan ere, asteko beste egunetan, eskolaz kanpoko ekintzak dituzte, eta, beraz, momentuz,

hala dugu ezarrita ordutegia", adierazi du Gorka Zubillagak.

Ekarpeni irekita

Normalean haurrek elkarren artean askotariko jolasak egiteko aprobetxatzen dutela dio Zubillagak, baina eskulanak egiteko ere hartzen dutela tartea dio: "Euskararen Egunaren baitan, pankarta bat egin genuen, ekintza bereziak egiteko asmoa ere badugu, eta datozen egunetarako ere proposamenak egiteko eskatuko diet, nahiz eta Gabonetako zenbait egunetan ez den zerbitzurik egongo".

Gatzaren ustiapenaren bilakaera eta prozesua familian ikasten

Abenduaren 18an, 12:00etan, 'Gatz egile egun batez familian' tailerra izango da Gatzagako Gatz Museoa

I.B. LEINTZ GATZAGA

Abenduko zubian aukera izan da Leintz Gatzagako Gatz Museoa bisita gidatuak egiteko. Ohiko asteburuetan egiten dituzten bisita berberak izan dira horiek, baina hilaren 18rako ekintza berezia antolatu dute. Hain zuzen ere, *Gatz egile egun batez familian* tailerrean parte hartzeko aukera eskainiko dute. 12:00etan izango da ekintza, eta Debagoieneko Mankomunitateko Turismo Sailarekin jarri beharko da harremanetan izena emateko. Horretarako, interes-

dunek 943 79 64 63 telefono zenbakira deitu dezakete, edo infoturismo@debagoiena.eus helbide elektronikora idatzi.

Gatz Museoa, gatzaren ustiapenaren bilakaera eta gaur egungo prozesua ezagutzeko ohiko bisita gidatuak ere egingo dituzte zapatuetan, domeketan eta jaiegunetan, 10:00ak eta 14:00ak arteko orduetan. Kasu horretan, erreserbak egiteko 943 71 47 92 telefono zenbakira deitu beharko da, edo posta elektronikoko bat bidali reservas@gatzmuseoa.com helbidera.

Bazkide gehiago beharko ditu Kukubasok 2022rako

Bertako basoa berreskuratzea helburu duen elkarteak 80tik gora bazkide lortu ditu maiatza ezker, eta pozik daude kopuru horrekin, baina aurreratu dute urtea amaitu aurretik beste kanpaina bat abiatuko dutela datorren urteko "erronkei" aurre egiteko

Jokin Bereziartua BERGARA

Kukubaso elkarteak ez du zara handirik atera azken asteotan, baina lanean dihardute. Bergarako eta bere inguruko lurretan dauden bertako basoak berreskuratzea dute helburu nagusi eta horrek epe ertain eta luzerako lanketa eskatzen du nahitaez. Bertako basoen ekosistemei lotzen zaien biodibertsitatea mantentzea nahi dute; bertako basoa sustatuz, landareei eta animaliei babeslekua eskainiz eta errekek osasuntsu mantenduz: "Gure bizi-kalitatea hobetu eta Bergara bizigarriagoa erai ki nahi dugu; hori guztia, herri-lurren ideia berreskuratuta".



Soraluzeko lurretan egindako landaketa baten ere egon ziren Kukubasokoak. KUKUBASO

Lagata jaso edo erosi

Kukubasoko ordezkariak diotenez, lurjabe batzuek laga diete eremu batzuk eurek kudeatu ditzaten, eta, bestetik, lur eremu txikiak erosteko berretsi dute. Aurreratu dute, besteak beste, Osintxun lur eremu bat erostekotan ari direla; bestalde, abenduaren 19an landaketa baten hartuko dute parte Soraluzeko Muskurixuko mendi gainean: "Lurgai fundazioko lagunek landaketak nola eta ze filosofiarekin egiten dituzten azalduko digute, eta, jarraian, bertako zuhaitz espezie ezberdinak landatzeari ekingo diogu".

DEI EGIN DUTE ABENDUAREN 19AN SORALUZEN EGINGO DEN LANDAKETA BATERA JOATEKO

Abenduaren 16rako eman behar da izena: soraluzekobasobiziak@gmail.com. Kukubasok 80tik gora bazkide ditu gaur egun, eta pozik daude kopuru horrekin, baina 2022ra begira gehiago beharko dira: "Urtea bukatu

aurretik beste bazkide eta kanpaina bat abiatu nahi dugu, 2022rako jende gehiago beharko dugulako". Norbanakoen ekarpenez gain, beste eragile batzuen ekarpena ere "ezinbestekoa" dela diote, eta gaiaz sentsibilizatzea, esaterako, lortzen ari diren helburu bat dela diote: "Herriar askori begiak ireki dizkiegula igarri dugu... Bestalde, eskola agendan bertako basoa aukeratu dute gai moduan eta ikasturte amaierarako egitarau bat dugu aurreikusita, ikastetxeekin eta Udalarekin elkarlanean".

Bertako basoa, "ia erabat galduta"

Kukubasok ekainean San Martzialen egindako lehen ekintzan Iñaki Madinabeitia adituak azaldu zuenez – argazkian –, bertako basoa "ia erabat galduta" dago gaur egun Bergaran. Ez dago harizti, pagadi edota bertako espeziez osatutako basorik. "Egitura begetal oso pobrea dugu eta elkarren artean ez dute konexiorik; horrek hainbat arazo sortzen ditu".



Iñaki Madinabeitia azalpenak ematen San Martzialen, ekainean. GOIENA



Olatz Salvadorrek *Musika eta ahalduntzea* izeneko saioa dinamizatuko du. TTAP

Emakumeen ahalduntzerako hiru saio, amatasunetik hasita

Jabekuntza Eskolak amatasun bizigarriagoa, zaintza lanak eta musika bidezko ahalduntzea aldarrikatuko ditu

J.B. BERGARA

Emakumeendako Jabekuntza Eskolaren barruan, hiru saio antolatu dituzte: Ainara Gorostizuk dinamizatuko duen *Amatasun praktika biziagarriagoa* izeneko saioa, abenduaren 11n; Maria Juncayk gidatuko duen *Zaintza lanak eta ekintzailtza emakume migratuentzat*, urtarrilaren 16an; eta Olatz Salvadorrek dinamizatuko duen *Musika eta ahalduntzea*, urtarrilaren 29an. Parte-hartzea doakoa da, baina izena eman behar da aldeztu aurretik: 943 77 91 00 edo berdintasuna@bergara.eus; bihar-

ko saiorako izen-ematea gaur itxiko dute eta hiru saioak Agorrosinen egingo dira, 10:00etan.

Umeen zaintza, emakumeengan
"Amatasun bizigarriago baterako" ahalduntzea da biharko saioaren helburuetako bat: "Beste alor batzuetan ahalduntzea lortu badugu ere, haurren zaintza emakumeen bizkar gelditzen da nagusiki. Esparru honetan ere emakumeok hausnartu, partekatu eta ahaldundu behar dugu, zaintza erdigunean jarri bai baina amatasuna sanoago eta bizigarriago egiteko".

OHARRAK

San Joxepe elkartearen egoitza itxi egin dute

Egoitzako langileen artean izan diren COVID-19 kasuengatik, Udalak eguaztenean erabaki zuen egoitza ixtea: "Zabaltzen denean jakinaraziko da. Barkatu eragozpenak".

Gabonetako kontzerturako sarrerak salgai

Hilaren 18an izango da, frontoian (20:30). Edukiera murriztuaz jarri dira sarrerak salgai (430), seminarixoa.eus-en; gainerakoak hilaren 13an, Jaurlaritzak iragarriko dituen neurrien zain.

EAJK antolatutako hitzaldia: 'Elkarrekin ekin'

Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren gaineko saioa antolatu dute hilaren 14rako UNEDen (19:00). Hizlariak izango dira Energiaren Euskal Erakundeko presidente Iñigo Ansola eta energia berriztagarrietan aditua den Alet Taldea enpresa.

Aurkezpena: Txomin Iturberen gaineko liburua

ETAko buruzagi izandakoaren gaineko *Txomin. Aurrera bolie!* liburua aurkeztuko dute hilaren 14an Olaso dorrean (19:00).

Kontseilu Sozialistaren protesta: 'Peajerik ez!'

Elkarretaratzea abenduaren 16an, San Martin plazan (19:00).

"Belaunaldi aldaketa bermatzea dugu erronka"

JUAN MARI GARITANO EUSKO ALKARTASUNEN MILITANTEA

Alkartetxe berriaren irekieran omenaldia jaso zuen bi agintaldiz EAko zinegotzi izan zenak: "Erabateko sorpresa izan zen, bihotzez eskertzen dut nitaz akordatu izana"

Jokin Bereziartua BERGARA

Azaroaren 28an, Barrenkaleko Alkartetxe berriaren inaugurazioan omenaldia jaso zuen Juan Mari Garitanok (Arrasate, 1942), alderdiaren eta Alkartetxe berriaren alde egindako lanagatik. Arrasateko Uribarri auzoko Gomistio baserrian jaioa, 14 urte zituenetik bizi da Bergaran. Bi agintaldiz izan zen EAko zinegotzi Udalean, eta, eguneroko politika lagata badu ere, pozik dago alderdiak Bergaran duen lantaldeaz. Alkartetxe berriuan hartu du GOIENA, Iker Intza gazte militantea ondoan duela: "Halako gazteak behar ditugu; ez dira batere errazak topatzeko".

Zergatik erabaki zenuen Eusko Alkartasunean sartzea?

Carlos Garaikoetxearen ideiekin eta planteamenduekin bat egiten nuelako sartu nintzen; behin barruan nengoela ezagutu nuen Carlos pertsonalki, eta berehala ohartu nintzen gizon garbia zela, fidatzekoa. Kuadrillan politika kontuak oso presente egoten ziren eta batzuk hitzetik ekintzara pasatzea erabaki eta inplikatu egin ginen.

Eta alderdiarendako lokala non eta Barrenkalean ireki zenuten...

Itzela izan zen. Orduan, dendez, tabernez eta bestelako lokalez josita zegoen Barrenkalea... Zai-



Juan Mari Garitano, berri berri duten Alkartetxean. JOKIN BEREZIARTUA

"PROIEKTUA DA GARRANTZITSUENA, EZ ZEIN IZAN DEN HURA PROPOSATU EDO ABIATU DUENA"

la zen, baina lortu genuen. Lokala lortu ostean auzolanean egokitu genuen gure beharretara. Behin Alkartetxea martxan jarri genuenean hasi ginen Udalerako hautagaitzekin eta beste kontu guztiekin.

Pozik Alkartetxe berriarekin?

Hunkitu ere egiten naiz sartzenean. Denbora gutxian oso lan txukuna egin da hemen; urte luzez elkartzeko gunea dugu, eta hori inportantea da.

Zeintzuk izan ziren zure ibilbideko garai onenak?

Bereziki gogoan dut Udalean indarra hartzen hasi gineneko garaia. EAJra edo HBra joan ohi ziren eserlekuetako batzuk EAra zetozela ikustea ederra izan zen, herritarren babes hori ikustea. Udalean eragiteko gaitasuna lortu genuen; garai har-

tan Garaikoetxeak bazituen jarraitzaile dezente Bergaran.

Eta garirik zailenak?

EAJtik bereizteko prozesua oso lazgarria izan zen; niretzat konplikatuena izan zen ordura arte elkarrekin lanean aritu ginen jendeak beste bide bat hartu izana. Zatiketa ez nuen barrutik jarraitu, baina gogoan dut udal politikatik haragoko kontuez aritzeko bereziki garai zailak izan zirela.

Eguneroko jarraipenik ez egin arren, nola ikusten duzu alderdia egun?

Uste dut lantalde ona dugula eta EAren planteamenduak ondo ordezkaturik daudela oraindik ere. Ikuspegi orokorretik begiratuta, politikarako lehengoa baino giro hobea ikusten dut, alderdi barruan gauzak dezente nahastu badira ere azkenaldian. Herri mailan, bereziki, proiektua izan behar da garrantzitsua, eta ez zein izan den proposatu edo abiatu duena. Ikuspegi ezberdinak bateratzen saiatzearen aldekoa naiz.

Egun, arazoak izaten dira zerrendak osatzeko... Askok aldatu da politika?

Ez dauka zerikusirik. Niri iritzia emango dizut: nire garaian, oro har, konpromiso handiagoa zegoen herriaren alde lan egiteko. Askotariko indarkeriak bizi izan ditu Euskal Herriak, oso garai latzak, baina garai hartan laneako beste borondate bat zegoen.

Ze etorkizun ikusten diozu EAri?

Gaur egun, oinarriak baditugu, baina belaunaldi aldaketa bermatzea izango dugu erronka. Herri honek ardura izan badu, baina dena horren azkar doa aldatzen zaila dela aurreikustea.

Azaroaren 28an omenaldi txiki bat egin zizuten. Ederra, ala?
Erabateko sorpresa izan zen, bihotzez eskertzen diet alderdikideei nitaz akordatu izana.

DanobatGroup: Aitzol Beristain irabazle Euskararen Egunean

Euskaraz izango gara leloa aukeratu du aurten DanobatGroup kooperatiba taldeak Euskararen Egunean bueltan urtero antolatzen duen lehiaketarako. Kooperatiba taldeak lantegiak dituen herrietako herritarrei eta gizarte osoari dago zuzenduta lehiaketa, eta aurtengo lehiaketako irabazlea Aitzol Beristain izan da; Bizkaiko zuhaitz-etxe batean bi lagunendako gaua irabazi du. Kooperatiba taldeak euskaraz lan egiteko duten konpromisoa berretsi du: "Euskaraz izateko agertokia errealitate bihurtzeko lanean ari gara, eguneroko lanean, ikerketa eta garapenean, teknologia berrietan, elkarren arteko harremanetan...".

Abenduaren 13ra arte eman daiteke izena erakusleihotarako

Merkatariek abenduaren 13ra arte eman ahalko dute izena Gabonetako erakusleio lehiaketan (943 76 10 16). Sariak ematerakoan, erakusleioaren kalitatearekin batera, kontuan hartuko da publizitate-mezuaren imajinarioa, originaltasuna, argiztapena, berrikuntza eta eraginkortasuna. Udalak 750 euro banatuko ditu saritan, guztiak herriko komertzioetan trukatzeko bonuetan. Epaimahaia osatuko dute Herritarren Batzordeak, Bedelkarrek, Beart elkarteak eta Gipuzkoako Bazkondeak izendatutako pertsonak; eskatu dute erakusleioa argiztatuta izatea 21:00ak arte. Sariak abenduaren 17an banatuko dituzte.

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

Proiektuak · Koltxoiak
Horma-armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

121
K
KALITATEA

Enpresa Registrada Nº00/025

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI

LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

Euskal hockeyaren Labegaraietako harrobia

Euskal selekzioarekin lehiatu dira Burdinola klubeko hamaika neska-mutiko Bilbon jokatu den erkidegoen selekzioen arteko Espainiako txapelketan, infantil mailan; nesken taldea esku hutsik itzuli bada ere, mutilek hirugarren postuan amaitu dute

Jokin Bereziartua BERGARA

Ahaztuko ez duten asteburua pasatu dute Burdinola irristaketa klubetik euskal selekzioarekin Bilbon lehiatu diren jokalariek bergararrek –argazkian–. Erkidegoen arteko Espainiako txapelketan hartu zuten parte, infantil mailan. Nesken talderako honako jokalariek hautatu zituzten Burdinolatik: Katixa Gallastegi, Uxue Montalvo, Maria Aranburu, Nahia Garro, Aiora Maure eta Sua Zangitu. Mutilen selekzioarekin, berriz, honako jokalariek egon dira: Aitor Markiegi, Aratz Etxeberria, Eki Muxika, Manex Salaberri eta Jon Letona. Lorpenei dagokienez, esku hutsik itzuli zen nesken selekzioa; mutilen selekzioak, aldiz, brontzeko domina lortu zuen. Lorpenak lorpen, baina, zubi oso berezia igaro dute Burdinola irristaketa klubetik selekzioarako hautatuak izan diren hamaika neska-mutikoei.



Euskal selekzioarekin lehiatu diren Burdinola irristaketa klubeko jokalariek. E.Z.

Finalaren atarian

Hamabi jokalariek eta bi atezain hautatu dituzte aurten euskal selekzioarako, horietatik bost Bergararako Burdinola klubekoak. Txapelketa nola bizi izan zuten jakin nahian, Eki Muxika (Ber-

gara, 2008) jokalariekin egon da GOIENA. Abenduaren 3an joan ziren Bilbora eta egubakoitzean bertan entrenamendu saio bat izan zuten. Partiduek 20 minutuko zati bana izaten dute maila eta txapelketa ho-

rretan, eta partidu guztietan "dena" ematera irten zirela aitortu du Muxikak.

Zapatuan jokatu zuten txapelketako lehen partidua, Andaluziaren aurka. Domekan beste bi partidu izan zituzten, Valentziaren eta Kataluniaren kontra, eta hiru norgehiagoketan lortutako emaitzei esker lortu zuten asteleheneko finalerdietarako sailkatzea. Gaztela eta Leongo selekzioa izan zuten aurrez aurre finalaurrekoan, eta, lehia parekatuta joan arren 40 minutuetan zehar, azken txanpan jasotako golaren erruz finaletik kanpo geratu ziren (2-3). "Partidu osoan joan ginen irabazten, baina bukaeran buelta eman zioten markagailuari; azken gola partidua amaitzeko hamabost segundo falta zirela jaso genuen. Pena izan zen finalerako ez sailkatzea", dio Eki Muxikak. Martitzenean jokatu zuten hirugarren eta laugarren postuak zehazteko partidua, Valentziaren aurka, eta 2-1 irabazi ostean brontzeko domina banarekin itzuli ziren Bergarara.

Egonaldiaz gozaten

Finala jokatzeko aukerarik ez izanda ere, zubi borobila pasatu dute: "Oso-oso pozik itzuli gara. Pena izan zen azken unean jasotako gol bategatik finalean ez egotea, baina oso pozik gaude egin dugun txapelketarekin". Kantxan egindakoaz harro eta bitziko esperientziarekin oso

eskertuta, egunero ez da-eta aukera izaten euskal selekzioarekin bost eguneko egonaldiaz gozatzeko: "Lau gau egin ditugu Bilboko ostatu baten eta bost egunegon gara bilduta txapelketaren bueltan. Adibidez, eskuko telefonoak denbora oso mugatu batez bakarrik erabili ahal izan ditugu, senitartekoei harremanetan jartzeko bakarrik. Oso gustura egon gara; ea hurrengo urtean ere joan gaitezkeen...".

Hurrengo geltokia, Bartzelona

Espainiako erkidegoetako selekzioen arteko txapelketa bukatu da, baina lanean jarraitu beharra dago, Espainiako ligako hurrengo zita gertu dago eta. Eguaztenean bertan, Bilbotik heldu eta bihamunean, entrenamendua izan zuten Labegaraietako kiroldegian: "Joan den asteburuan Madrilen egon ginen eta urtarrileko hirugarren asteburuan Bartzelonan jokatu dugu Espainiako urrezko infantil mailako txapelketa barruko hurrengo jardunaldia". Muxikak, amaitzeko, gonbita egin die Bergarako neska-mutikoei hockeyra hurbiltzeko: "Oso polita eta dibertigarria da".

"OSO GUSTURA" EGON DIRA EUSKAL SELEKZIOAREKIN: "EA HURRENGO URTEAN JOAN GAITEZKEEN..."



LAB SINDIKATUA

Azken lan istripua salatu dute

ELA, LAB, ESK, Steilas, EHNE eta Hiru sindikatuek deituta, 30 bat lagun elkartu ziren abenduaren 7an San Martin plazan, azken lan istripua salatzen. *Lan istripu gehiagorik ez! Prekarietatea hiltzaila* lelopean, abenduaren 3tik 4rako gauean Bergarako Fagor Ederlan lantokian hil zen

44 urteko Markinako langilearen heriotza salatu zuten: "Azken heriotza hau ezin diogu halabeharri egotzi. Oso irakurketa sinplista litzateke. Salatu izan dugu txanda sistemak eta bereziki gaueko lanak osasunean eragiten duen kalte fisiko eta psikologikoa".



BERGARAKO PILOTA ELKARTEA

Mastercup: Barrocal txapeldun

Abenduaren 5ean Abadiñon jokatu zuten Emakume Mastercup txapelketako finalerako izen propioetako bat izan zen Maddi Barrocal pilotari bergararrarena. Promes mailako pilota mistoko finala 18-6ko emaitzarekin irabazi zuen Barrocalek; markagailuak erakusten duena baino lehia handiagoa izan zen finalean. Duela aste bi, Bergara Hiria txapelketa irabazi zuen.



Lemak taldeak jendaurrean emandako lehen kontzertua, 2020ko abuztuan, Usondo parkean. SRTO.ALOHA

Lagunak ondoan, Lemak taldearen kontzertua bihar

Seminarixoa izango dira bihar, zapatua, 20:00etan hasita. 'Hegikide' diskoa aurkeztu, eta musikariz eta lagunez inguratuta igoko dira eszenatokira. Hain zuzen ere, protagonismo berezia izango dute taldearen ibilbidean zehar ondoan izan direnek

Jone Olabarria BERGARA

Biken Larrañagak, Beñat Larrañagak eta Antxon Arregik osatzen dute Lemak taldea. 2019ko uztailean sortua, Bergara eta Antzuolako taldea lanean aritu da ordutik hona, baina pandemia aprobetxatuta eman zioten bereziki bultzada euren musikari. Lagunek dute protagonismo handia taldearen egunerokoa, eta ezinbesteko sostengua dira doinu eta letrak sortzerakoan. Hain zuzen ere, gertukoaren babesarekin igoko dira bihar Seminarixoko taula gainera, 20:00etan hasita.

'Hegikide' aurkezten

Apurka-apurka fruituak ematen hasi da taldearen lana: 2020ko maiatzean eman zuten euren lehenengo kontzertua, *streaming* bidez, 2020ko abuztuan publikoarekin lehena Usondo parkean eta 2021eko otsailetik apirilera kaleratu duten *Hegikide* lana aurkezten dabilta une honetan; tartean da biharko kontzertua.

Hamaika rock kanturen bilduma da Lemak hirukoteak argitaratutakoa; azaroaren 13an Antzuolan egindako musika jaialdian egindako kontzertuan izan ziren kantuetako hainbat entzungai, baita Bergarako kartzela zaharrean egindako emanaldian. Azaldu dutenez, "esperotakoa baino harrera hobea" izan du lanak.

"Mendien lerro arteko kideak"

Hegikide izenaren arrazoiaz galdetuta, *marra* hitzaren sinonimo bila hasi eta Bergarako jatorria duen *hegi* hitzarekin egin zutela topo azaldu dute: "Mendiak eta zerua banatzen dituen lerroa adierazten du, eta hitz jokoa eginda asmatu genuen *hegikide*

DISKOAN KOLABORATU DUTENAK, MUSIKA TALDEETAKO KIDEAK ETA LAGUNAK IZANGO DIRA TAULA GAINEAN

kontzeptua: bi bergarar eta antzuolar bat, mendien lerro arteko kideak garela adierazteko modu bat".

Kontzertu berezia

Etxean aritzea beti da berezia, eta, azaldu dutenez, "sorpresaz" betetako kontzertua izango da biharkoa: "Diskoan kolaboratu duen jendea, gertuko ditugun taldeetako musikari ugari eta gure lagunak ere izango dira taula gainean, gurekin batera".

Lagunak, ezinbesteko

Hain zuzen ere, beti izan dute protagonismo berezia hirukotearen lanean beste musikari eta taldearen lagunek: "Guretzat oso garrantzitsuak dira. Letrak egiten lagundu digute, bideoklipen ere badaude eta hasieratik gurekin egon dira".

Kontzerturako sarrerak esku-ragarri daude *seminarixoa.eus* webgunean eta Seminarixoko leihatilan egunean bertan, zortzi eurotan.



Arantxi eta Eli Uranga ahizpak, eserita, Maite Bilbaorekin eta Inma Paciosekin. J.O.

Bergararren eskertza, 43 urtean zehar emandako babesagatik

Erretiroa hartuko dute Orraski ile-apaindegiko Uranga ahizpek; hala ere, "esku onetan" lagako dute negozioa

J.O. BERGARA

Bergararrak "oso dotoreak" zirela jabetuta, duela 43 urte jarri zuten martxan Orraski ile-apaindegia Esther, Eli eta Arantxi Uranga ahizpa mutrikuarrek. Bergarara ezkondu zen Esther, eta, "herriko eleganzia" ikusita, ile-apaindegiaren aldeko apustua egitea erabaki zuten.

San Pedro kalea, "bihotzean"

San Pedro kalean ireki zuten lehen lokala, eta bertako bizilagunak "bezero fidelak" zirela gogoratzen dute: "Garai hartan, komertzio asko zeuden, bizitza handiko kalea zen eta hasieratik bezero mordo bat eduki genituen, adin askotarikoak. Komertzioen jabeon artean ere harreman ezin hobea genuen, elkar babesten genuen".

Iparragirre kalera aldatzea erabaki zuten 2007. urtean. Auzo berriagoa zen, eta bertan ere

oso ondo hartu zituztela gogoratzen dute: "Lekualdaketa horrekin pena apur bat sentitu genuen; garai bat ixten genuen, azken batean. Askok fidelak izan dira eta gurekin jarraitu dute".

"Apur bat bergararrago"

Mutrikuarrek izanda ere, hainbeste urtean egunero Bergarara etorrita "apur bat Bergarakoak" ere sentitzen dira jada: "Eskertza handia zor diegu bergarar guztiei. Kanpotarrak izanda, harrera oso ona eduki dugu hasieratik, eta denboran zehar mantendu da hori".

Erreleboa, gazteei

2022arekin batera esango diote agur Orraskiri ahizpek. Hala ere, pozik daude, negozioa zabalik eta esku onetan utzita: "Urteetan gurekin lan egin duten Estherrek, Inmak eta Maitek jarraituko dute negozioarekin".

'La hija' filma, hilaren 15ean, ZinemaOn-en eskaintzaren baitan

Manuel Martin zinema zuzendariaren *La hija* filma izango da ikusgai, ZinemaOn zineklubaren eskaintzaren baitan, abenduaren 15ean, 20:00etan. 15 urte dituen eta adingabe arau-hauleentzako zentro batean bizi den Ireneren historia kontatzen du filmak. Sarrerak, hiru eurotan, *seminarixoa.eus*-en edo Seminarixoko leihatilan.

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

"Hasi eta buka entzuteko diskoa kaleratu dugu"

ION GURUTZ BITERI KLAK!SON TALDEKO TEKLATU-JOLEA

16 urteko ibilbidean laugarren lana ondu dute Antzuolako, Zumarragako eta Urretxuko taldekideek. Durangoko Azokan aurkeztu dute 'Puntu urdin margula'

Hasier Larrea ANTZUOLA

Hamahiru abestiz osatutako diskoa kalean du jada Klak!son taldeak. Eguaztenean kontzertu eta guzti aurkeztu zuten Plateruenan. Ion Gurutz Biteri teklatu-joleak azaldu du zeintzuk diren lan berriaren xehetasunak. **Hasteko, zer moduz egon zen herenegungo kontzertua?**

Gozatu egin genuen. Plateruenan aritu ginen ordu erdi inguruz onena ematen. Gainera, Mukururen standean izan dugu diskoa salgai. Aurreko bi lanak ere Durangon aurkeztu genituen. Sorkuntza lanak promozionatzeko erakusleho ona da.

Mukuru kolektiboko kideak zarete, hain zuzen. Bergaran egindako jaialdian eman zenituzten kantu berriak aditzera, ezta?

Bai; azaroaren 13an izan zen hori, kartzela zaharrean. Musika taldeon elkarre antzeko bat da Mukuru, kontzertuak egiteko eta talde desberdinen arteko elkarlanak sustatzeko bokazioa duena, besteak beste. Oraindik diskoaren ale fisikoak iritsi gabe zeuden arren, kantu berri batzuk jo genituen publikoaren aurrean estreinakoz.

2015ean kaleratu zenuten hirugarren lana: Denboralea. Orain aurkezten ari zaretena patxada handiz hartu izanaren seinale al da?



Ion Gurutz Biteri eta Mikel Bargiela, Durangon, diskoa eskuetan dutela. KLAK!SON

2015ean eta 2016an diskoaren aurkezpen kontzertu batzuk eman genituen. Gero, abesti berriak egiten hasi ginen. Esan genezake 2019rako *Puntu urdin margula*-ko kantu ia guztiak konposatuta geneuzkela. Baina egoera pandemikoak bi urtez luzatu digu grabaketa prozesua. **Eta hori, musika-tresnak zeuen lokalean grabatu zenituztela...**

Bai. Arditegi izandako gune batean estudio bat daukagu egokituta gure entseguak egiteko. Musika-tresna guztiak bertan grabatu ditugu, gure kabuz. Ba-

dakigu asko dugula oraindik ikasteko, eta horregatik sentitzen gara eroso nahasketak kanpoko batek egiten dizkigunean. Kasu honetan, Arrasateko Shot! estudioan egin dizkigu Ander Barriusok; eta masterraz, berriz, Jonan Ordorika arduratu da.

Gustura zaudete emaitzarekin?

Hasierako ideia kantu guztiek musikalki koherentzia bat edukitzea zen, hasi eta buka, eta hori lortu dugulakoan nago. Gero, gure artean aipatu izan dugu disko erdi-kontzeptuala dela. Hau da, zenbait kanta dis-

koaren azalean proposatzen dugun gaiaren bueltan sortu genituen, eta beste zenbaitek ez dute gai horrekin loturarik.

Zer iradokitzen duzue?

Lur planeta puntu bat bakarrik dela unibertsoan, *Voyager 1* espazio-zundak 1990ean 6.000 milioi kilometroko distantziatik ateratako argazkiak ondo erakusten duen bezala. Kontrastea egiten du gu guztiaren erdian gaudela uste izatearekin. Azkenean, naturak dagokigun tokian jartzen gaitu. Ideia horren bueltan sortu genituen *Bakardadearen bidaiari*, *Tanta bat espazio-denboraren ozeanoan* eta *Plasma hodeietan igerian* kantuak. Azken pista, diskoaren izen bera darmana, soinu batekin amaitzen da, zeinek Lurra unibertsoan den puntu hori adierazten duen. **Space rock estilorekin baitan koka dezakegu joera hori, ezta?**

Labur esateko, musikalki rock progresiboa da, elementu psikodelikoekin. Esan dezakegu Pink Floyd-en eragina daukagula. Kantu batzuetan lantzen zuten rock espaziala. Asier Alkorta gitarra-joleak gustuko du talde hori, eta aipatu ditugun kantuak beragandik irten dira.

Baina, esan bezala, badituzue gai horretatik aldentzen diren kantuak.

Alaiagoak eta rockerragoak dira, esaterako, *Elektroiak korrika* eta *Morrison*. Kantu bakoitzetik atera daiteke zerbait desberdina, baina esango nuke, era berean, guztiek badaukatela zerbait komunean. Konposizioak ez ezik, abestien ordenak ere asko zaindu ditugu, gainera.

Diskoa osorik entzuteko egin duzuela, alegia.

Badakigu gero eta jende gutxiagok entzuten duela disko bat jarraian, musika kontsumitzeko moduak asko aldatu dira eta.

Spotifyfyn-edo sartzen zara eta zure *playlist*-a entzuten duzu, talde ezberdinetako kantuekin. Guk diskoa hasieratik amaiera-entzuteko egin genuen, horrek ez du esan nahi entzuleak kantu bakarria entzun nahi ez izatea. Baina balio beza, behintzat, osorik entzuteko.

Egiten duzuen guztia mimatzen duzuela igartzen da.

Bai, eta saiatzen gara denok batera sortzen. Hala, denok gustura egotea eta kantua aberasgarriagoa izatea lortzen dugu, eta, kontrara, gehiago irauten dugu kantua bukatzen. Horrek ez du esan nahi taldekide batek beste batek baino pisu gehiago izan ez dezakeenik faseren batean, baina abestiak Klak!sonen izenean sinatzen baditugu, bakoitzak bere ekarpena egiten duelako da.

2005etik zara taldeko teklatu-jolea.

Asier Alkortarekin batera sortu nuen taldea. Mikel Bargiela 2007tik ari da abesten, bateria-jolea 2006an sartu zen eta baxu-jolea 2010ean. Beraz, 10 urte darrazkigu egitura berarekin. Familia bat gara eta asko disfrutatzen dugu kantu berriak egiterakoan. Irreten direnean eta, batez ere, onak direnean, plazer hutsa izaten da niretzat.

Eta antzuolarren aurrean, noiz?

Nahiko genuke zerbait egin; Torresorano, adibidez. Baina zain gaude, koronabirusaren datuak ez baitira onak. Egoera hobetzen denean helduko diogu horri.

"LURRA UNIBERTSOAN PUNTU ÑIMIÑO BAT DELA ADIERAZI DUGU BAI AZALEAN ETA BAITA KANTUETAN"

Gure Eskuren 'Tripontzia' eskuratu ahalko da berriz ere

Urtarrilaren 22an egingo duten zozketaren txartelak abenduaren 3an jarri zituen Antzuolako Gure Eskuk salgai lehenengoz. Kalebarrenen egon ziren orduan, eta gaur, 18:30etik 20:00etara Ogi Berri okindegian egongo dira. Domekan, osteran, bi salmenta postu jarriko dituzte, 12:00etatik 14:00etara: bata Kalebarrenen eta bestea Ogi Berrin.

Guztira, 52.000 euro banatuko dituzte, eta sari nagusia 30.000 eurokoa izango da. Txartel bakoitzarekin kode bat banatuko dute, *Izar eta Estel* ipuina ezaugarazteko. *Gailurra zain dugu* erroka kolektiboa finantzatzeko baliatuko ditu Gure Eskuk *Tripontzia*-ren bidez jasotako ekarpenak. Zehazki, uztailaren 2an, Pirinioetako bidean dauden ehunka gailur argiztatzea da erroka, Euskal Herriaren eta Kataluniaren autodeterminazio eskubidearen alde.

300 lasterkarirendako tokia Antzuolako Zortzi Milietan

Urtarrilaren 8an irekiko dute izen-ematea, www.kirolprobak.com webgunean, eta otsailaren 18an itxi, aurretik dortsal guztiak banatzen ez badituzte, behintzat. Izan ere, korrikalariengandik harrera ona jasotzen duen ekitaldia da; 2020ko deialdian hiru orduan 240 lagun apuntatu izanak ondo erakusten du lasterketak pizten duen interes maila.

2021ekoa osasun larrialdiagatik bertan behera laga ostean, 2022ko otsailaren 20an izango da, pandemiaren bilakaerak hala uzten badu, Antzuolako Zortzi Milien hurrengo hitzordua. Bederatzigarren aldia izango da, eta, ohi bezala, 13,83 kilometroko ibilbidea eta 836 metroko desnibel positiboa izango du. Herriko Plazan hasi, Irimora igo, Trekutzetik igaro eta hasitako tokian amaituko da A8M taldeak eta Antzuolako Udalak antolatzen duten lehia.

Aitxurira egingo du hurrengo irteera Arrolak, hilaren 18an

Aizkorriko mendilerroko tontorrik altuena igotzea jarri du Arrola Mendizale Elkarteak epe laburreko erroka gisa. Hala, datorren asteko zapatuan helduko diote mendiri martxari, 09:00etan irtenda. Parte hartu nahi dutenek arrolamt@gmail.com helbidera idatzi beharko dute. Gainera, plaka berria jarriko dute Aitxuriko gailurrean.

Markiegi, hunkituta jasotako begirunearekin

Elgetako kioskoa itxita dago. Julian Markiegi izan da bertako arduraduna azken 35 urteotan. Erretiro aurreratua hartu du, eta, oraingoz, ez dago ordezkorik. "Barikuan ilara izan nuen arratsalde osoan. Gutunak ere eman dizkidate eskura"

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Barikua izan zen gozoki salmentarako azken eguna Julian Markiegiren kioskoan. Ilara egin zen, eta ohikoak baino gozoki poltsa handiagoak erosi zituzten elgetarrek. Herritarrek baliatu zuten aukera Markiegi agurtzeko. "Onena zara, Julian!" eta "hartu atsedean, merezi duzu-eta!" esaten zioten.

Gauza askogatik dute estimu handian Julian Markiegi elgetarrek. Beti abegikor, langile fina da. Urte hauetan guztietan gutxi izan dira atsedenerako hartu izan dituen egunak; abuztuko oporrak eta jaiegun oso seinalatu batzuk. "Barikua egun gogorra izan zen", azaldu du. "Ilara izan nuen kiosko aurrean arratsalde osoan, eta izan da gutunik eskura eman didanik ere. Ez nuen horrelakorik espero", esan du.

Bezeroen artean galdetuta, esker oneko hitzak dira nagusi. "Julianekin gauza asko ikasi ditugu", zioen nerabe batek. "Gozokiak asteburuetan eta merienda hartu eta gero bakarrik saltzen zizkigun txikitan. Matematikak ere landu ditugu berarekin". Aurrerantzean gozokiak non erosiko dituzten galdetuta, esperantza dute herriko taberna edo dendaren batek jarriko dituela.



Julian Markiegi, kioskoa zabaldu zuen azken egunean, bezero bat artatzen. L.Z.L.

JULIAN MARKIEGIK 27 URTEREKIN HARTU ZUEN GURASOEN NEGOZIOA; ORDUTIK, 35 URTE PASA DIRA

Prensa salmenta

Nola ez, prentsa salmenta puntua ere izan da Elgetako kioskoa. Administrazio kontuak direla-eta zeregin horrekin jarraitzen du egun batzuetarako Markiegik. Plazako izkinan zen atzo goizean

ere. Asmoa da prentsa salmenta Goikoetxe harategian kokatzea. Baimenak bideratu bitartean jarraituko du Markiegik; betiere, "egun gutxi badira".

Ordu libre asko aurrerantzean

Etapa berri baten atarian da Markiegi. "Egokitu egin behar ko dut lehenengo. Liburu asko ditut etxean irakurtzeko, eta ikusmenak laguntzen didan bitartean irakurri egingo dut. Hori, eguraldi txarra dagoenean. Ona bada, paseoa aterako naiz", azaldu du.

Ika-mika sutsua oposizioaren eta Udal Gobernuaren artean

Frontoiko teilatuko instalazio fotovoltaikoa eta goi-tentsioko linea berria daude eztabaidaren erdian

L.Z.L. ELGETA

Alde biek defendatzen dute proiektu fotovoltaikoa, eta alde biek gaitzesten dute Aragoitik Bizkai aldera Elgetatik pasatzeko den goi-tentsioko linea berria. Eztabaida da, ordea, nork landu duen plaka fotovoltaikoen egitasmoa, zer-nolako gardentasun maila dagoen informazio-batzordeetan eta nola egin behar zaion aurre goi-tentsioko linearen proiektuari.

Plaka fotovoltaikoak frontoian

Udal Gobernuak egunotan egin du publiko frontoiko teilatuan jartzeko asmoa duen instalazio fotovoltaikoaren gaineko txostena, Goiener kooperatibak egingakoa. EAJk aurretik egingakoa adierazpen batzuei erantzuna emateko partekatu zituen hedabideekin aipaturiko txostena, eta 2022ko aurrekontu zirriborroa. "Asmoa da 120 metro karratuko azalera 44 panel jartzea herriko udal eraikinak hornitzeko". Proiektu horretarako 2022ko aurrekontu zirriborroan 30.000 euroko diru-lerroa dagoela aurreikusita azpimarratu zuten.

Oposizioak Udal Gobernuaren "gardentasunik eza" salatu du.

Esan dute informazio-batzordeek ez dutela "ezertarako balio" eta Udal Gobernuak "komeni zaionaren berri" ematen duela bertan. Ez dutela halakoren berririk jaso. EH Bildutik erantzun dute azaroaren 22an jaso zutela Goienerren txostena, eta hurrengo Hirigintza batzordean zutela aurkeztekoa.

Goi-tentsioko linea berria

Goi-tentsioko lineari dagokionez, jeltzaleen ustez premiazkoa da alegazioak aurkeztea. Azaldu dute azaroaren 15ean agortu zela epea, eta horrek Udal Gobernuaren "gelditasuna" eta "berehala erantzuteko gaitasunik eza" erakusten duela.

Udal Gobernuak birritan esan du behar diren eginbide juridikoak egingo dituela. "Lehen urratsa da Udalean proiektua erregistratzea. Ez da, momentuz, proiekturik aurkeztu (...) Momentua iristean, emango ditugu behar diren pausoak", esan dute. Salatu dute, halaber, Eusko Jaurilaritzak ingurumen legeari jarritako emendakinen bitartez herrien araudiaren gainetik "inposatu" nahi dituela era honetako proiektuak.

OHARRAK

Bisita gidatua elizan

Zapatuan, 11:00etan, bisita gidatua Elgetako elizan. Izen-ematea: infoturismo@debagoiena.eus / 943 79 64 63.

Erretiratuak

Astelehenean da podologoaren kontsulta. Txanda hartzeko, deitu: 667 80 70 06 (Olga).

Liburu aurkezpena

Carlota Alfarak *Eres una escritora creativa y lo sabes* aurkeztuko du. Liburutegian, eguaztenean, 18:30ean.

'Escape room' saioa

LH6-DBH2ko umeendako egingo dute, gazteleguan, hilaren 18an. Izen-ematea zabalik da, hilaren 16a arte.

Gaur ez da aurreko asteko ilararik egongo

San Roke kaleko kioskoa Udalarena da, eta, oraingoz, ez dago ordezkorik. Herritar gehienek gogoan izango dute aurretik beste bat zegoela leku berean. Metro karratuko azalera zuen. Udalak aldatu zuen 2013ko udan. "Hura ere nik estreinatu nuen", gogoratu du Markiegik. Aurreko kioskoarekin lotutako bizipen ugari ditu elgetarrak oraindik ere.



Barikuan ilara egon zen kiosko aurrean arratsalde osoan. L.Z.L.

Lope Agirreri helduko dio Olaitturri elkarteak

Konkistatzaile oñatiarraren estatua jartzeko ideia arrazoitu edo baztertu egingo dute aktoreek antzezlanean. Horrez gain, hitzaldiak ere egongo dira aurten; lehenengoa, astelehenean, XVI. mendeko Ameriketako konkistatzaileei buruzkoa

Oihana Elortza OÑATI

Beste ekitaldi batzuekin gertatu zen bezala, Olaitturrik urtero antolatzen duen herri antzezlana eta hitzaldi zikloa bertan behera gelditu ziren joan den urtean pandemiagatik. Eta orduko asmoak landu eta gauzatu dituzte aurten: Lope Agirreri buruzkoa izango da Olaitturriren kultura hamabostaldia.

Euskaratutako gutunak

Iñaxio Irizarrek eman dio forma ideari aurten ere, eta berak idatzi eta zuzendu du antzezlana: *1562-Lope Agirreren estatua*. "Berez, jatorriz, Jorge Oteizaren burutazioa izan zen Urtsuaren eta Lope Agirreren estatua bana egitea eta bakoitza toki banatan jartzea. Baina ez zen gehiago garatu, ezta erabakirik hartu ere, XX. mendearen erdialdean sortutako *La academia errante* desagertu egin zelako, besteak beste. Eta asmo hori abiapuntu hartuta idatzi dut antzezlana, ganboatarrak eta oinaztarrak ere sartuz". Sanmigelen ostean hasi ziren antzezlaren entseguen; astean behin egin dute orain arte eta birritan egingo dute hemendik aurrestreinaldira arte. Antzezlana idaztearekin batera, Lope Agirrek XVI. mendean idatzitako eskutitzak euskaratu ditu Irizarrek, eta esku-ragai utzi taldearen <https://olaitturri.blogspot.com> atarian, idatzitako obraren testuarekin batera, ohi bezala. Oñatiar konkistatzailei buruzko informazioa ere osatu dute Wikipedian. Antzezlaren aurretik hiru hitzaldi egongo dira: garai hartako Ameriketako konkistatzaileei eta merkataritzari buruzkoa bana eta Lope Agirrek zineman izan duen islari buruzkoa hirugarrena. Oscar Alvarez EHUko katedraduna, Agustin Goenaga kazetari eta zinemagilea eta Jose Antonio Azpiazu historialaria izango dira hizlariak.



Rafa Aranburu oñatiarra, Lope Agirreren paperean. JOSEBA URRETABIZKAIA

Prestatu duten egitaraua

Abenduak 13

- 19:00 XVI. mendeko Ameriketako konkistatzaileak. Oscar Alvarez, EHUko katedraduna.

Abenduak 15

- 19:00 Lope Agirre, izaera poliedrikoa zeluloide zatitan. Agustin Goenaga, kazetaria.

Abenduak 21

- 19:00 Euskaldunak eta Ameriketako merkataritza. Jose Antonio Azpiazu, historialaria.

Abenduak 23

- 19:00 Antzezlaren aurrestreinaldia. Doan.

Abenduak 26

- 19:00 1562-Lope Agirreren estatua antzezlana.

Oharrak: Hitzaldiak kultura etxean izango dira. Sarrerak Txokolateixan jarriko dira salgai bihar, zapatua. Egunean bertan ere egongo dira, antzokian.

GORA ETA BEHERA



Jarritako zintak gero kentzeaz ahaztu



Uribarri auzoko Irumendi basoko pistan animaliak menditik jaisten direnean zintak jartzen dituztela baina gero horiek kentzea ahaztu egiten zaiela; horretaz kezatu da irakurle bat.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo [688 69 00 07](tel:688690007).

Bukatzeaz da larreratu gura diren animalien berri emateko epea

Udaberrian larreratuko diren animalien berri aurretik eman behar da Udalean, eta hori egiteko epea amaitzeaz dago. Abenduaren 17a izango da jakinarazpena egiteko azken eguna. Behin epe hori pasata ez da larreratze baimenik emango. Aloiako larrereara nahiz Artia aldera ganadua eramateko asmoa dutenek eman behar dute horren berri.

Presoentzako materiala batuko dute datorren astean

Parrokiako espetxe-pastoraltzak presoei laguntzeko kanpaina egingo du aurten ere Gabon bezperako egunetan. Barruko arropak, oinetakoak, tabakoa eta turroi biguna batu gura dituzte, besteak beste. Hirukar, Sillero eta Irizar estankoa jasoko dituzte produktu horiek datorren astean, astelehenetik egubakoitzera.



NIRE USTEZ

JOSU ZUBIA

'eBLA-BLaketa' soziala

Nola eraldatu dezakegu dena ezer ez aldatzeko? Hemen tutoriala –galdera formatuan–:

Nola eraldatu dezakegu bailara langileek hiru errelebotan jarraitzeko? Nola eraldatu dezakegu industria logika produktibo batetik? Nola eraldatu dezakegu bailarako ekonomia kapitalismotik? Nola eraldatu dezakegu bailara etorkizun posibleak imajinatzeke espaziorik babesten ez bada? Nola eraldatu dezakegu bailara kultur proiektu komun baterako interesik gabe? Nola eraldatu dezakegu bailara debagoiendarrrik gabe? Nola eraldatu dezakegu proiektu eraldatzaile bat eraldatzaile izan dadin? Nola eraldatu dezakegu sinadura bat zerbait eraldatzaile? Nola eraldatu dezaket nire komunikatzeko modua? Nola eraldatu dezaket nire kezatzeko beharra autokritikarik egin gabe? Nola esan dezaket buruan dudak guztia eraso bilakatu gabe?

Ez dakit, logika berean gaude. Bide honetatik eBLA-BLaketa sozialerantz goaz; ohi bezala.



EAJko udal taldea osatzen duten zinegotziak osoko bilkuren aretoan. OÑATIKO EAJ

Auzoek lehentasuna EAJren emendakinetan

Udal Gobernuak ia hemeretzi milioi euroko aurrekontua aurkeztu du 2022rako eta horri hogeitazuzen eta eguneko EAJko udal taldeak, milioi bat euroko inbertsioa guztira. "Landa zein hiriko auzoei lehentasuna" eman diete jeltzaleek

Oihana Elortza OÑATI

Euzko Alderdi Jeltzaleko udal taldeak hogeitazuzen emendakin egin dizkio EH Bilduk osatzen duen Udal Gobernuak egindako 2022ko aurrekontu proposamenari. "Gehienak berriak diren arren, gure proposamen batzuk urteetako ibilbidea dute, behin eta berriz egiten ditugu Oñatirentzat benetako beharra izaten jarraitzen dutelako, eta gaur egun oraindik ez direlako kontuan hartu", diote jeltzaleek prentsa ohar bidez. Herriko auzoei, landakoak zein hirikoak, eman diete lehentasuna.

Irisgarritasuna eta argiteria

Jeltzaleek egindako zuzenketa horiek, guztira, "1.087.000 euroko inbertsioa eskatzen dute". Sei bloketan banatu dituzte egindako emendakinak, eta diote "oñatiarrak eta haien beharrak erdigunean jarritz" egin dituztela.

Oñati "iraunkortasunaren bidean" jartzeko, esaterako, 360.000 euroko inbertsioa behar dela

adierazi dute jeltzaleek; batik bat, auzoetan erabiltzeko. Olakuako eta Olapotoko irisgarritasun proiektua aipatu dute hor, esaterako: "Auzo horien segurtasuna bermatzeak lehentasunezkoa izan behar duela uste dugu. Izan ere, orain arte Olakua auzoari lehentasuna eman zaion arren, uste dugu Olapotok ere behar handia duela gaur egun. Oso egoera txarrean dago eremu osoa, eta, gainera, ibaira erortzeko dagoen arriskuaren azterketa ere egin behar da". Landa-eremuetako argiak hobetzeko beharra ere aipatu dute; Murgian eta Berezaon, bereziki. Auzoei lotuta, bestalde, horietan inbertsioak egiteko partida handitzea proposatzen dute: 164.000 euro.

OLAPOTON IBAIRA ERORTZEKO DAGOEN ARRISKUA AZTERTZEA DA ZERRENDAKO PUNTUETAKO BAT

Torrauzoko bidegorriari irtenbidea ematea ere gura dute, "jatorrizko proiektua berreskuratu eta zubi berria eginez", eta baita Zubillagako trenbideko zubia aldatzea ere.

Digitalizazioa sustatu

Aurreko urteetan egin duten moduan, Oñati Euskadi Lagunkoia programara atxikitzea eskatu dute jeltzaleek berriro. Baita Arantzazuko komunak konpontzea edo elkarrekin bizitzeko herritarren bizikidetzatza taldea sortzea.

Baserriko produktuen salmenta digitala sustatzeko plataforma sortzea eta merkataritzaren digitalizazioa indartzea ere proposatu ditu, "bonuen kanpaina esperientzia moduan hartuta". Eguneko zentro arinaren kokalekua "finkatu, aurkitu eta egokitu" ere gura dute. Azterketa garaian kultura etxeko gelak zabaltzea eta Azkoagaini irtenbidea emateko azterketa egitea ere eskatu dute.



Kazetari lanetan ibili diren Zuazola institutuko ikasleak. ZUAZOLA INSTITUTUA

Ikasleak ibili dira kazetari Euskararen Eguneakoak jasotzen

Argazkiak, testuak eta bideoak egin dituzte antolatutako ekitaldietan, eskuko telefonoa eskuetan zutela

Goiena komunitatea

Herriko ikastetxeak / OÑATI

Ikastetxeetako ikasleak kazetari lanetan ibili dira aurten ere Euskararen Egunearen harira antolatu diren ekintzak jasotzeko. Argazkiak atera, bideoak egin eta testuan ere jaso dute egindako lana.

Zuazola institutuko ikasleek, esaterako, Formol Laborategia konpainiak egin zuen *Album* antzezlan eta egindako jolasak landu zituzten. June Blazquez, Uxue Erdozia, Iñaki Larrañaga eta Uxue Zubia ikasleek, antzerki taldearen ibilbidea eta Oñatira ekarritako lana ezagutzeko, taldeko Intza Alkain eta Mikel Ibarguren elkarrizketatu zituzten, eskuko telefonoaren grabagailua erabilia. Antzerki konpainiak eguerdian Batxilergo mailako ikasleendako propio egindako emanaldia aprobetxatu zuten eurekin egoteko, eta,

bide batez, atzo, eguena, eta gaur, egubakoitza, institutuan eskainiko duten taileraz galdetzeko ere aprobetxatu zuten aukera hori.

Izar Azurmendik eta Martina Miguelek, berriz, DBHko ikasleendako prestatutako ginkanan jarri zuten arreta. Jolas horietako bat zen, adibidez, irakasleen txikitako argazkiak ezagutzeko. Emotikonoen konbinazioak deszifratzea, esamesen eta siglen esanahia asmatzea, karaokean kantuen taldeak asmatzea eta kulturaren inguruko galdetegi bat erantzutea ere izan ziren pasa beharreko probak.

Elkar Heziko eta Txantxiku ikastolako ikasleek ere gertutik jarraitu zituzten Euskararen Egunearen bueltan antolatutako ekitaldiak, eta han jasotakoaren berri www.goiena.eus atarira igotzeko aukera dute, denekin partekatuzko.

Online eman behar zaio botoa gustuko erakusleioari

Herriko hemeretzi komertzio ari dira parte hartzen Udalak antolatutako Gabonetako erakusleio lehiaketan. Aurten ere epaimahaiak emandako sariak eta herritarrena egongo dira, eta, azken horretarako, udal webgunean sartuta eman behar da botoa, www.oñati.eus atarian sartuta. 500 euro irabaziko ditu herritarren denda gustukoena,

eta parte hartuko dutenen artean 200 euroko saria zozketatuko dute. Abenduaren 16a da botoa emateko azken eguna.

Erakusleioaren konposizioa, argiztapena, kolorea eta originaltasuna izango ditu kontuan epaimahaiak, 500, 300 eta 200 euroko hiru sari banatzeko. Joan den urtean moduan, ez da ekitaldirik egingo, komertziora bertara joango dira sariarekin eta eskura eman dendariari. Hilaren 17an izango da hori, 18:00etatik aurrera.



Sukena taldearen zuzeneko kontzertua Eltzia tabernan azaroaren 28an. ELTZIA TABERNA

Zuzeneko emanaldietara batu da Eltzia taberna

Musikari, poeta, dantzari, bertsolari eta sortzaile ororen zuzeneko emanaldiak egingo dituzte Eltzia tabernan domeketan, 18:00etatik 19:30era. Hasi dira gonbidapenak egiten, baina norberak ere egin dezake bertan aritzeko proposamena

Oihana Elortza OÑATI

Tabernan zerbait hartu bitartean zuzeneko ekitaldi batez gozatzea. Plan horixe eskaini gura du Eltzia tabernak domeka arratsaldeetarako, eta dagoeneko hasi da egiten. Herriko bi musika talde izan dira ekimena estreinatu dutenak, baina "bertsolarien, poeten, dantzarien eta antzezleen txokoa ere bada", Eltzia tabernako Tommaso Galatiren esanetan.

Bi metro karratuko espazioa

Duela hiru urte hartu zuten Eltzia tabernaren ardura Maita Kooperatibako kideek, eta hasieratik zuten buruan kultur ekitaldiei espazioa ematea. "Uste dugu oraintxe dela horretarako momentu egokia, eta ideiarri forma ematen hasi ginen. Bi metro karratu dituen espazioa prestatu dugu, eta izen horrekin, *2 metro karratu*, osatuko dugu egitaraua hemendik aurrera. Helburua da musika, bertso, antzerki, poesia edo bestelako

diziplina batean sortzailea den norbanakoari edo taldeari zuzeneko ikuskizun bat egiteko aukera ematea. Eta, aldi berean, tabernara datorren bezeroari gustura egoteko modua eskaintzea", azaldu du Galatik.

Musika zuzenekoak izan dira lehen emanaldiak. Sukena taldea eta Leima bikotea izan dira proiektu honi hasiera eman dioten bi taldeak. "Entzule moduan, sekulako plana da orain, neguan, taberna batera joan eta zuzeneko kontzertu bat entzutea. Eta guretako, berriz, ezagutzeko modu bat ere bada. Oso gustura egon gara; ez da plaza handia, baina bai eroso eta hurbila", dio Sukena taldeko Eider Herraezek. Leima bikote-

**GABONETARAKO
ETXERA DATOZEN
SORTZAILEAK
GONBIDATUKO
DITUZTE ABENDUAN**

ko Maddi Arlanzon bat dator: "Oso gustura aritu ginen biok, eroso. Eta, ez dirudien arren, ardura handiagoarekin jo behar genuela sentitu genuen, jendea hain gertu ikusita. Entsegu orokorra baino gehiago izan da. Ikusle moduan ere etorriko naiz".

Urtarriletik aurrera, egitaraua

Musikariak eta bertakoak izan dira lehen artistak, baina poesia errezitaldiak, bakarrizketak zein antzezlanak ere egin daitezkeela dio Galatik. "Oñatin sortzaile asko daude eta horietako batzuekin hitz egin dugu dagoeneko. Orain, gainera, kanpoan bizi diren herritarrek ere etorriko dira etxera, Gabonak dirrela-eta, eta horiekin ere egon gura dugu emanaldiak antolatzeko. Asmoa da bertako zein inguruko artistak ekartzea eta urtarriletik aurrera egitaraua prestatzea domeka arratsaldeetarako. Abenduan, baliteke egun gehiagotan ere egotea zuzeneko emanaldiak".

Nikotina eta Larru Beltzak bihar, Antixenaren urteurrenean

Ohiko zuhaitz landaketa eta gazteendako jolasak ere egingo dituzte bederatzigarren urteurrena ospatzeko

O.E. OÑATI

Bederatzigarrenez, eta etxera ez mezuarekin egun osoko egitaraua prestatu du Antixena gaztetxeak biharko, zapatua. Aurreko urteurrenetan egin ohi duten moduan, zuhaitz bat landatuko dute goizean gaztetxe aurreko parkean; gosaria egingo dute aurretik. 11:30ean, berriz, gazteendako jolasak plazan. Bazkaria ere egingo dute, kantu bazkaria, hain zuzen ere, eta joan gura duenak aurrez hartu beharko du txartela, Arrano edo Ongi tabernara joanda.

Arratsaldean presoan aldeko poteo girotua egingo dute, gaztetxean hasita, eta gauean kontzertuak egongo dira; Tolosako Nikotina taldea eta Oñatiko Larru Beltzak arituko dira, zuzenean. "Larru Beltzak gaztetxean entzuteko aukera egongo da, azkenean. Hemen aurkeztu gura zuten euren lana, baina pandemiagatik atzeratu egin zen kontzertua. Data berria jarri eta berdura azokan jo zuten, eta oraingoan bai, oraingoan gaztetxean egingo dute zuzenekoa", adierazi dute gaztetxe kideek.



ALOÑA MENDI

Ziklo-krosean ere ondo Madina

Arrikruz-Aloña Mendiko (Ulma) txirrindulariek Elorrioko Basqueland Ziklo-krosa lasterketan hartu zuten parte eguaztenez, eta "lan ona" eginda bueltatu ziren etxera. Gazte mailan, esaterako, hirugarren sailkatu da Aimar Madina. Xabat Castañosek, Markel Zubiak eta Alex Beristainek ere hartu zuten parte. Zapatuan Tolosan arituko dira eta domekan Igorren.

Emakumeen lana ikustarazteko liburua eta erakusketa

Ikusiezinak. Oñatiko emakumeen lanak izeneko liburua eta erakusketa aurkeztuko du astelehenean Artixa kultura elkarteak. XX. mendeko 60ko eta 70eko hamarkadetako argazkiak jaso dituzte, eta testu batek lagunduta erakutsi. Abenduaren 23ra arte egongo da zabalik, kultura etxeko erakusketa gelan, eguenero, 18:00etatik 20:00etara.

'Go!azen'-erako sarrerak, bihartik aurrera salgai

Abenduaren 18an etorriko da *Go!azen* Santa Anara 8.0 Kontzertuak ikuskizunarekin. Bi saio egingo dituzte eta sarrerak bihar, abenduak 11, jarriko dituzte salgai, bost eurotan (+gastuak), 10:30ean, ohiko tokietan. Sarrerak 6 eta 16 urte arteko gaztetxoendako bakarrik izango dira eta, gehienez, hiru hartu ahal izango ditu bakoitzak.

Okm:

*batzen gaituen
distantzia*

Egin zaitez goienakide!

goiena[“]
kide



www.goiena.eus/kideak



"Futbol egokituan inklusioa da helburua"

JOSU ZUBIA GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOKO KIROL ZUZENDARIA

FUTBOLA Domeka eguerdian, behar bereziak dituzten neska-mutikoekin futbol egokituko topaketa egingo dute Mojategin. Inklusioa da helburu nagusia

Xabier Urzelai ARRASATE

Debagoieneko futbol taldeekin egindako lanagatik da bailaran ezaguna Josu Zubia. Besteak beste, Mondrako, Aloña Mendiko eta Bergarako entrenatzaile izandakoa gaur egun Gipuzkoako Futbol Federazioko kirol zuzendaria da, eta baita kirol egokituko teknikaria ere. Hain zuzen, azken arlo horretan abian jarri duten proiektuaren baitan, domekan (12:00, Mojategi) lansaiola egingo dute Arrasaten: "Azken ordura arte izango dugu izen-ematea zabalik, eta horretarako astirik izan ez duenak ere domekan zabalik izango dituzte; animatu daitezela denak".

Zein da Gipuzkoako Federazioak abian jarri duen proiektua?

Gipuzkoako Federazioak futbol egokituan eta inklusiboan aukerak sortzeko proiektua jarri du abian, eta Diputazioan aurkeztu dugun proiektua hiru urtean gauzatu nahi dugu. Prestakuntza eta sentsibilizazio programa bat da, eta helburua futbolaren inguruko begirada irekiagoa eta solidarioagoa ahalbidetuko duten elkarbizitza baliok bultzatzea da, kirol hori sustatuz eta behar bereziak dituzten kolektiboekin futbolekin jarduteko aukera erraztuz; era horretara, etorkizunean futbol



Josu Zubia, Mojategiko harmailetan. GOIENA



Duela bi urte Bergaran egindako lansaioko irudia. GOIENA

egokituan edota inklusiboan modu egonkorrean parte hartzeko eta lehiatzeko espazio bat sortu nahi da. Azken batean, haur eta gazte horiei futbola euren errutinetan barneratzeko aukera eman nahi diegu, egin dezatela futbolekin maiztasun handiarekin, ez noizbehinka.

Gazte horiek ez dute, esaterako, astero lehiatzeko aukerarik.

Hori da; gainontzeko neska-mutikoei, adinaren arabera, futbol topaketak izaten dituzte, entrenamendu saioak, ligak jokatzeko dituzte... Eta, behar bereziak dituzten gazteek, berriz, ez.

Nortzuk zaudete proiektu honetan?

Gipuzkoako Futbol Federazioko Diputazioaren babesa du proiektu honetan, baina, horrekin batera, Gipuzkoako klub askotatik oso erantzun positiboa jaso dugu, eta eurekin batera bide-ratu nahi dugu ekimen hau.

Nola egingo duzue hori?

Iazko denboraldian Irungo topaketak izandako arrakastaren ondoren, aurtengo ikasturtean futbol egokituko zortzi topaketa antolatu ditugu Gipuzkoako hainbat eskualdetan, erabiltzaile guztiek euren bizilekutik gertuen duten jardunaldira joateko aukera izan dezaten. Eta domekan Mojategin egingo duguna da horietako bat. Irunen, esaterako, 30 neska-mutikotik gora batu ziren, topaketa oso positiboa izan zen.

Aipatu duzu lehenengo urte honetan zortzi lan-saio egingo dituzuela, baina proiektua hiru urtekoa dela.

Hori da. Datorren urtera begira interesa erakutsi duten klubetako teknikariei kirol egokituko formakuntza eskaintzea da asmoa. Lehen esan moduan, klub askok interesa erakutsi dute, eta, eskualde batean klub bat

baino gehiago interesatuta badaude, topaketak txandaka egin ditzakegu. Kontua da inor ez uztea kanpoan. Hala, klubetako teknikariek formakuntza saio horiek jasotzen dituztenean errazagoa izango da eskualde bakoitzean lan-saioak maiztasun handiagoarekin antolatzea.

Diozu, baina, helburu nagusia inklusioa dela.

Hori da, eta helburu horrekin egingo dugu lan hirugarren urtean. Behar bereziak dituzten haur eta gazte horiek klub bateko maila konkretu bateko jokalariekin entrena daitezke, esaterako, edo partidua antolatu. Azken helburuak hori izan behar du, inklusioaren aldeko apustua.

Behar ezberdinak dituzten gazteekin lan egitea berezia da?

Askotan, aurreiritzi mordoa izaten dugu. Bai, berezia dela esango nuke, hasteko, gazte horiek maitasun mordoa daukate-lako emateko eta kirol egokituko lan-saioetara ekartzen duten jarrera ezin hobea izaten delako. Gero, normala den moduan, egin beharreko ariketak egokitu egiten ditugu euren beharretara.

"KLUB ASKOK ERAKUTSI DUTE EUREN TEKNIKARIAK FORMATZEKO INTERESA"

"BEHAR BEREZIAK DITUZTEN GAZTEEK LAN SAIOTAN SEKULAKO JARRERA ONA IZATEN DUTE"

ARETO FUTBOLA Lagun Onak taldea hartuko du Eskoriatzak bihar

Maila nazionalean, joan den astean Eskoriatzak garaipen ederra eskuratu zuen bigarren postuan dagoen Afantxoren kantxan (4-5). Hala, zapatuan, sailkapenean azken postuan dagoen Lagun Onaken bisita izango dute. Bestalde, joan den astean Santurtziri ondo irabazi zion Mondrarako (7-1) Elorrietakoren kantxan jokatu du.

ERRUGBIA Arrasate Kanpazar hirugarren postuan dago jada

Hamabost eguneko atsedendiaren ostean, Kanpazar Arrasate taldeko mutilek etxean jokatuko dute zapatuan. Dagoeneko hirugarren postuan daude Barrutiaren mutilak, eta atzealdean dauden Atletico San Sebastianekoekin bisita izango dute. Emakumezkoetan, Arrasate-Ordiziak Bera Beraren zelaietan jokatuko du bihar, zapatua.

FUTBOLA Leintz Arizmendik 0-2 irabazi dio Bergarari

Eguraldi oso petralarekin jokatuko behar izan zuten eguazten iluntzean Bergarak eta Leintz Arizmendik. Atzeratutako partiduan, arlo fisikoak eragina izan zuen; Leintz Arizmendikoak 0-2 nagusitu ziren. Zapatuan Bergarak osterera ere jokatuko du etxean, Eibarren kontra (16:00). Zumaiara joango dira Leintz Arizmendikoak (15:30).

FUTBOLA Gabonetako emakumezkoen torneoak aurkeztu dute

Gaur, egubakoitza, aurkeztu dute abenduaren 29an eta 30ean Ibarren egingo duten Gabonetako emakumezkoen torneoaren 16. edizioa. Hilaren 29an, alebin, infantil eta kadete mailetako gazteek jardungo dute. 30ean, berriz, nagusien hiruko torneoak izango da, eta tartean egongo dira Debagoieneko selekzioko neskek.

PILOTA Etxeko zaleen aurrean garaipena Rezustarendako

Urte eta erdi zerraman Beñat Rezustak etxeko pilotalekuan garaipenik lortu barik, eta Eskuz Binako Txapelketako hirugarren jardunaldia baliatu zuen, eguaztenean, Irribarriak lagunduta Ezkurdiari eta Tolosari 22-11 irabazteko. Bigarren jardunaldiko porrotaren ostean, garaipen horrek lasaitasuna emango dio bikote gipuzkoarrari.

Goialdean hariak etenik ez izatea dago jokoan

FUTBOLA Aretxabaletak eta Mondrak derbia jokatuko dute domekan Ibarren (16:30). Joan den martxoko 5-0ekoak min egingo die oraindik batzuei, besteendako dagoeneko ez du erreferentzia moduan balio. Etzi, publikoa egongo da harmailetan

Xabier Urzelai ARETXABALETA

Puntu premia gabe daude Aretxabaleta (25 puntu) eta Mondra (21), orain artekoa txukun egin duten seinale. Bereziki aretxabaletarrak ibili dira aurrealdekoen borrokan sartuta, baina azken bi asteotan garaipenik lortu ez izanak eraman ditu laugarren posturaino. "Ez da arazoa guretako, aurreikuspenen barruan zegoen; izan ere, egutegira begiratuta bagenekien azaro amaiera eta abendu hasiera gogorra izan behar zirela. Joan den astean Zarautz taldearen kontra kanpoan berdindu izana ez da emaitza txarra, ezta gutxiago ere, eta lehenago Eibarren kontra galdu genuen. Bueno, normaltzat hartzen dugu hori ere. Eta, domekako partidua ere ez da erraza izango", adierazi du Unai Calzonek.

Arrasatekoak errebantxa goz egongo dira, martxoan jokatutako azken derbian –publiko gabe– arratsalde borobila izan zuen Julen Zaitetik lau gol egin zizkien, eta 5-0ekoa jasota itzuli ziren Arrasatera. Hain zuzen, Asier Olaizolaren azken partiduetako bat izan zen Mondrako entrenatzaile. "Ni bigarren taldean nengoen orduan, eta bai, halakoak ez dira atseginak, baina hobe da derbira lasai joatea; neurri gabeko motibazioak urduritasunak ekartzen ditu, eta ez dira bide-lagun onak", dio Cristian Matias. Zorionez, zaleek harmailetan gozatu ahal izango dute derbiaz, beroki ona eramanez gero.

Bergarak ere etxean

Maila berean, Eibarren 1-0 galdu aurretik bolada politean zertorren Bergarak ere etxean jokatuko du, domekan, Zarautzen kontra (12:00). Oñatiarrek, berriz, Zumarragan etekinen bat esku-ratzeko asmoarekin egingo dute bidaia zapatuan (16:00).



Asier Sanchez baloiarekin, martxoan jokatuko zuten derbian Ibarren (5-0). J.B.

Entrenatzaileek esandakoa:



UNAI CALZON
UDA-KO ENTRENATZAILEA

"Ondo gaude eta zaleen aurrean jokatuko dugu"

"Gu ondo gaude, eta ikusi ditudan Mondraren azken bi partiduetan arrasatearrek kontrarioek baino aukera gehiago egin dituzte, ikusiko dugu domekan zer moduzko partidua egiten dugun. Martxoko derbiak ez digu balio erreferentzia moduan; halako emaitzek poztasuna ematen dute, baina horraino. Iazko liga, gainera, ez zen erreala izan, beste gauza bat izan zen. Zorionez, domekan gure zaleen aurrean jokatuko ahal izango dugu, eta izugarri eskertzen da hori".



CRISTIAN MATIAS
MONDRAKO ENTRENATZAILEA

"Larregiko urduritasunak ez dira onak"

"Nik ulertzen dut Arrasateko eta Aretxabaletako zaleendako halako derbiak politikak direla, baina niretako hiru puntu daude jokoan. Halakoetan, larregiko urduritasun eta asaldurak ez dira onak izaten. Dinamika positiboan gaude baina azken bi partiduetan ez dugu irabazterik lortu. Allerruren kontra partidua ona egin genuen, baina gola falta izan zitzaigun. Jokalariz justu samar gabilta, giro petral honekin katarroak... Baina esango nuke talde guztiak gaudela antzera".

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

O.ERREGION. GIZ.

Urola-Aloña Mendi

Zap. 16:00. Argixao.

Bergara-Zarautz

Dom. 12:00. Agor.

UDA-Mondra

Dom. 16:30. Ibarra.

O. ERREGION. EMAK.

Zumaia.-L. Arizmendi

Zap. 15:30. Zumaia.

Bergara-Eibar

Zap. 16:00. Ipintza.

GORENGO MAILA

Urki-Aretxabaleta

Zap. 17:45. Unbe.

Ikasberri-Mondra

Dom. 16:00. Azpeitia.

ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

Eskoriatza-Lagun O.

Zap. 18:00. M.Muñoz.

Elorrietako-Mondrate

Zap. 17:30. Bilbo.

EUSKADIKO TXAPELKE.

Aretxab.-Lauburu

Zap. 17:00. Ibarra.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAP. GIZ.

Mugarri I.-F.Industrial

Zap. 16:00. Iturripe.

EUSK. TXAP. EMAK

Askartza-Cons. Aloña

Zehaztu gabe.

GIPUZKOAKO TXAP.

Orma.-Soraluce BKE

Zap. 19:30. Zubipe.

SASKIBALOIA

EBA

Baskonia-MU

Zehaztu gabe.

LEHENENGO MAILA

Goierri-MU

Zap. 18:00. Urretxu.

EMAKUMEZKO BIG.

MU-Paules

Dom. 16:15. Iturripe.

GIP. SENIOR. GIZ.

Hernani-Bergara Sor.

Zap. 18:00. Hernani.

GIP. SENIOR. EMAK

Bergara S.- Bera B.

Zap. 16:00. Labe.

PILOTA

GIPUZKOAKO TXAPELKE.

OÑATI

Zapatua. 16:30, bost lau partidua.

ARETXABALETA

Egubakoitza. 19:00, hiru partidua.

BERGARA

Egubakoitza. 18:30, partidua bat.

ERRUGBIA

EUSKADIKO T. GIZ

Kanp. ART-Aletico SS

Zap. 16:30. Mojategi.

EUSKADIKO T. EMAK.

Bera B.-Arrasate/Ore

Zap. Zehaztu gabe.

KIROL EGOKITUA

Futbol egokituko

saioa.

Domekan, 12:00etan

Mojategin.

Aspaldiko derbi desorekatuena jokatuko dute bihar Iturripen

ESKUBALOIA Ligan partidu bakarra irabazi duen Mugarri Ingouk Fagor Industrial hartuko du, 16:00etan

Xabier Urzelai ARRASATE

Kirol taldeen sendotasuna ziklikoa izaten da, urte askotako lana behar da herriko jokalariz osatutako belaunaldi indartsu bat izateko, eta hau amaitzen denean lanean jarraitu behar da, hurrengoari paso emateko. Zeregin horretan dabil duela urte gutxi maila nazionaleko igoera fasea Iturripera ekarri zuen Mugarri Ingouk –lehenengo Ford Mugarri Arrasate–.

Fagor Industrialendako ere urteak berdin pasatzen dira, baina azken urteotan ez dute taldea maila berean berritu, eta esperientzia duten zenbait jokalarik taldean jarraitzen dute. Hala, alde horretatik, aspaldiko derbi desorekatuena jokatuko dute Mugarri Ingouk eta Fagor Industrialek bihar (16:00), nahiz eta horrek ez



2019ko derbiaren une bat. GOIENA

duen esan nahi partidua aurretik erabakita dagoenik, ezta gutxiago ere.

Emakumezkoen Euskadiko Txapelketan, Construcciones Aloña Mendik hirugarren postuan dagoen Askartzaren kantuan jokatuko du.

Jokin Zaitegi bildumaren bi lan argitaratu dituzte

Louise Glück-en 'The Wild Irish' poema liburua euskarara itzuli du Garazi Ugalde lezotarrak eta Bob Dylan-en 100 kanta Xabier Paya bilbotarrak. Edizio honetarako egindako bi lanen emaitzekin oso gustura geratu dira Elkar argitaletxeko arduradunak

Imanol Beloki ARRASATE

Literaturako Nobel saridunen liburua itzultzea du oinarri Jokin Zaitegi sariketarako. AED elkarteak antolatzen du, Elkar argitaletxearekin lankidetzan eta Arrasateko Udalaren eta Laboral Kutxaren laguntzarekin. Hori horrela, batetik, Louise Glück-en *The Wild Irish* poema liburua euskarara itzuli du Garazi Ugalde itzultzaile eta idazle lezoarrak, eta, bestetik, Bob Dylanen 100 kantako sorta itzuli du Xabier Paya itzultzaile bilbotarrak.

Jokin Zaitegi bildumara poema-liburua eta kanta-bilduma batu dira aurtengo edizioan. Azpimarragarria bada ere Nobel Akademiak erabakitzen du saria nori eman eta euskarara itzuli diren lanen generoari erreparatu gabe, egindako lanak "ederrak" direla nabarmendu dute antolatzaileek.

'Basairisa' liburua

Louise Glück estatubatuar poetaren *The Wild Irish* poema liburua, ingelesetik euskarara itzuli du Garazi Ugaldek, eta oso gustura geratu dira epaimahaia osatu dutenak *Basairisa* izenpean Elkarrek argitaratu duen liburuarekin. Lanaren gainean "itzulpen bikaina da,



Bob Dylan. 100 kantu eta Basairisa liburuen azalak. ELKAR ARGITALETXEA

oso zaindua eta mimoz egina da" adierazi du Xabier Mendigurenek, Elkar argitaletxeko editoreak. Eta itzultzaileak egindako ekarpenari erreferentzia eginez, "arreta, zehaztasuna, ñabardurak, zailtasunak gainditzeko ikerketa sakonak eta hori dena euskara eder batean emateko sentiberatasun poetikoa elkartu ditu", gaineratu du Mendigurenek.

Poesia, irakurle ororentzat

Poema liburua bada ere, irakurle ororentzat dagoela eginda

nabarmendu dute Elkarretik: "Itxuraz, lorategi bateko landareei buruz ari da, baina loreen azpian edo haien bitartez bizitzako gai nagusiak agertzen dira: denbora, maitasuna, existentzia... Poesia, berez, denontzat egina da, baina egia da gehienak ez gaudela ohituta besterik gabe entrenamendu pixka bat komeini izaten da; astiro irakurtzea, ozenki, hitzak gozatuz... Eta ez kezkatu ea den-dena ulertzen dugun: geratzen zaigun sententzia da inportanteena".



GARAZI UGALDE

"Sakontasun handiko poemak dira"

GARAZI UGALDE PIKABEA
ITZULTZAILEA ETA IDAZLEA

Zehaztasunez euskaratutako lanarekin gustura geratu da Ugalde, baina erronka handia izan dela nabarmendu du. **Zein izan da zailtasun nagusia itzulpena egiterakoan?**

Jatorrizko poemen tonua bilatzea, batetik, hizkera aldetik nahiko soilak izan arren, sakontasun handiko poemak baitira. Horrekin batera, landareen izen ugari ageri dira, eta horietako batzuk euskaraz bilatzea eta jartzea zailtasun erantsi bat izan da.

Prozesua luzea, baina emankorra?

Poema bakoitza arretaz landu dut, dokumentazio lana, egilearen beste lan batzuk irakurri, gero testua, zuzentzaileen ekarpenak... Hilabeteetako lana izan da, baina pozik geratu naiz.

Bob Dylanen letrak, euskaraz
Louise Glück-en itzulpenaz gain, 2016an Suediako Akademiak Bob Dylan kantagile iparramerikarrari eman zion Literatura-ko Nobel saria, eta Xabier Paya arduratu da kasu honetan, Dylanen ehun kanta euskaratzeaz. "Txundigarria da egindako lana, benetan"; hitz horiekin definitu du Mendigurenek *Bob Dylan. 100 kanta* izenpean argitaratu den kantu-liburua.

Lanarekin harro, gizartearen zati handi batek buruz dakizkien kantak euskaratzea erronka izugarria izan dela adierazi du Xabier Payak: "*Blowin' in the wind, Desolation Row, Knockin' On Heaven's Door...*" kantuak maila globalekoak dira. Nire erronka izan da liburu bat sortzea bere kantuak ulergarri eta kantagarri egiteko, eta ahalegin berezia egin dut neurriei, errirei... dagokienez; Dylanen kanta bat entzun eta itzulpena irakurritz emozioak sentitzea irakurleak; hori da asmoa, behintzat. Esan beharra dago Joxerra Gartzia eskatu niola laguntza erregistroan, moldean... zalan-tzak nituenen. Itzultzaile eta idazle ona izateaz gain, Dylanen zale amorratu eta sutua da, eta gitarrarekin izango da aurkezpenean".

Bi lanak Elkar liburu-dendetan daude salgai, eta horien aurkezpena astelehenean, hilaren 13an, egingo dute, Donostiako Konstituzio plazako biblioteca zaharrean.

NOBEL SARIDUNEN POEMA ETA KANTU LIBURUAK EUSKARARA ITZULITA, UGALDEREN ETA PAYAREN ESKUTIK

IRAIA ITURREGI

GOIENA TELEBISTA, 'ELKARRIZKETTAP'
AIERT ARIETA-ARAUNABEÑAK EGINDAKO ELKARRIZKETA
ABENDUAREN 15EAN, EGUAZTENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.





Urretxo, eskuinetik hasita lehenengoa, Bilboko Filarmonika elkartean diskoa grabatzen. ALBERTO URRETZO

Barrutik sortutako pieza klasiko berriak, diskoan

Arrasateko Alberto Urretxo tronboi-joleak gidatzen duen Soinuaren Bidaia taldearen 'Confluencias-Topaketak' diskoa eskuragarri dago 'Soinuarenbidaia.com' atarian; Bertako Iggogailuak enpresak hiru urterako babesia eman dio Urretxoren ekimenari

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Soinuaren Bidaia ekimena abiatu zuen, 2015ean, Bilboko Orkestra Sinfonikoko tronboi-jole bakarlarari Alberto Urretxo arrasatearrak. Izen bereko diskoa argitaratu zuten, eta pieza gehiago bildu zituzten, 2018an, *Soinuaren bidaia II* izenekoan.

Confluencias-Topaketak, hirugarren lana, aurkeztu zuten abenduaren 1ean Bilboko Filarmonika aretoan. "Kontzertu bikaina eskaini genuen, atzean urte askotako lana dagoela erakutsi genuen, eta harrera bikaina izan genuen publikoaren partetik; pozik nago disko berriak izan duen harrerarekin ere", kontatu du Urretxok.

Musikari profesionalekin

Goi mailako musikari profesionalek osatzen duten taldea da Soinuaren Bidaia. "Talde horrekin ekoizpen eta formazio ezberdinak sortu ditugu. Helburu nagusia gazteekin batera proiektuak burutzeta da, aukera des-

berdinak eskainiz. Kreatibitatea eta konposizio berriak ezinbestekoak dira gure proiektuan".


Laura Delgado eta Iñigo Grimal biolin-joleak, Adriana Grigoras biola-jolea, Javier Martinez Campos biolontxelo-jolea, Gabriel Leon kontrabaxu-jolea, Itxaso Sainz de la Maza piano-jolea eta Jone Martinez sopranoa izan zituen Urretxok -tronboi eta

trumpeta jolea- lagun uztailean Bilboko Filarmonika elkartearen aretoan egin zuten grabazioan, eta horiek izango dira zuzenekoetan alboan izango dituen musikariak.

"Klasikoa eta barrutik sortua"

Strauss, Suss, Canteloube eta Saglietiren obrak interpretatu eta grabatu ditu Urretxoren taldeak disko berrian. "Horiez gain, guretzako idatzitako *Gudari* eta *Caminos simbióticos* piezak daude. Narrazio batzuk ere badira diskoan, narrazio horiekin piezak hari berean lotzen ditugu. Aurreko diskoekin alderatuz, klasikoagoa da, baina, aurrekoen bidetik jarraituta, barrutik sortua eta oso deskriptiboa da".

Osasun krisia dela-eta, "pozik" dago lanean jarraitzeko aukera dutelako, baina arduratuta dagoela aitortzen du. "Jakintasunarekin eta kulturarekin gero eta interes gutxiago sumatzen dut, eta horrek pentsamendu kritikoa ahultzten du".



CONFLUENCIAS-TOPAKETAK

- **Egilea** Soinuaren bidaia
- **Estiloa** Klasikoa.
- **Autoekoiztua.**
- **Babeslea** Bertako Iggogailuak.

Goienakideen txokoa

Abenduko sariak



TD Telebista (32')

Parte hartzeko sariaren izena: Telebista



Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus

Whatsapp: GOIENAKIDE

"sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

'goiena app'-a / zozketa atalean.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indararen dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten diegu zure datu pertsonalik Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxotegi automatizatu baten sartuko direla. Datu-billetek honen helburu bakarra da indararen dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu daturatutako sartzeko, hieki zuzentzeko edo ezabatatzeko, helbide honetara idatziz: goienakide@goiena.eus

Puntuak aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



2022rako Goienakide eginez gero, abenduan jaso Puntuak doan.

Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGA TU GOIENA APP BERRIA!

goiena kide

Okm: batzen gaituen distantzia.

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

102. EROSI
Ofiati. Ofiatiin etxea errentan hartzeko prest, eros- teko aukerarekin. San Lorenzo, Olakua, Errekalde edo erdialdean. Beste auzoetan baloratuko nuke. 679 62 69 64 edo jontxu2009@hotmail.com

103. ERRENTAN EMAN

Ofiati. Apartamentua ematen da errentan Ofiatiin, 60 metro koadrokoa. Logela bat du, egongela, sukaldaria eta bainugelak. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 618 72 11 29

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Udaltzat fruta dendan lan egiten dut eta errentan hartzeko etxe bila nabil. Bi logela izatea nahiko nuke. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 685 75 91 72

Bergara. Kaixo, Bergara-ko neska gazte euskalduna naiz eta etxebizitza txiki baten bila nabil. Edozer gauza dela eta, jarri nirekin harremanetan. Eskerrik asko. Ane. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 684 14 95 54

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Errentan hartzeko logela baten bila ari naiz. 648 00 86 55

2. GARAJEAK

204. ERRENTAN HARTU

Bergara. Zubieta kale inguruan garajea edo lokala errentan hartuko nuke. Deitu zerbaki honetara: 629 06 93 60

3. LOKALAK

304. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Errentan hartzeko lokal baten bila nabil, dagoeneko finkatutako eliza kristau baterako. 627 79 28 99

4. LANA

401. ESKAINTZAK
Astebukaeratarako. Bergaran astebukaeratan etxe langileak behar dugu, etxean bertan bizi izaten adineko pertsona

bati eguneroko gaietan laguntzeko. Ostiraleko 21:00etatik igandeko 21:00etara. Titulu sozio-sanitarioa kontutan hartuko da. Asteazkenean zehar egunez ordu solteak ere bai (3 ordu arratsaldetan). 617 14 71 25

Bergara. Etxeko lanak egiteko eta bi ume zaintzeko pertsona baten bila gabilta. 658 70 73 34

Debagoiena. Adineko pertsonekin lan egiteko sozio-sanitario titulua duen neska behar dugu. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 660 46 34 93

Ofiati. Emakume heldu bat zaindu eta garbiketa lanak maitasunez eta gustuz egingo dituen emakume baten bila gabilta. Orduetara: 08:00-13:00. Lehenbailehen hasteko. 645 79 23 97

402. ESKAERAK

Arrasate eta Bergara. Pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut egunez, gauzez edo asteburuetan. Kotxea daukat. Arrasaten bada, baita etxean bertan bizi izaten ere. 602 80 15 38

Arrasate eta inguruak. Pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. 685 45 03 75

Arrasate eta inguruak. Pertsona nagusiak zaintzen lan egiteko prest nago. 635 40 24 25

Bergara edo inguruan. Gutzienez bi logelako etxebizitza behar dugu errentan. Familia bat gara, lanarekin. 671 16 54 60

Bergara. Emakume prest astean zehar edo asteburuetan helduak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. 641 60 18 20

Bergara. Esperientzia duen neska gertu pertsona nagusiak zaintzeko, etxe garbiketarako edota zerbitzari moduan. Lanerako baimen agirikin. 685 10 01 85

Bergara. Gizona gertu astean zehar edo asteburuetan helduak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. 641 60 12 04

Debagoiena. Asteazkenean zehar edo asteburuetan

emakumea prest umeak edo helduak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 631 75 03 97

Debagoiena. Asteburuetan lanean jarduteko prest. Etxean bertan zainketa lanetan edota garbiketari. Sozio-sanitario ikasketak egiten ari naiz. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 612 56 12 39

Debagoiena. Emakumea eberako lanerako prest. Titulu sozio-sanitarioa eta papela dauka. Esperientzia eta erreferentzia handiduna. 643 73 62 83

Debagoiena. Erizain laguntzaile gertu orduka garbiketarako edota zaintza lanak egiteko. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 620 23 58 15

Debagoiena. Eskarmentu handia daukat hainbat lanbidetan eta lanerako prest nago: garbiketa lanetan, jatetxeetan edota pertsona nagusiak zaintzen. 642 95 00 04

Debagoiena. Esperientzia handia daukan neska bergararra nagusiak zaintzeko gertu. Titulazioa daukat. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 618 03 65 02 (Elena)

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten nagusiak zainduko nituzke. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 602 01 32 58

Debagoiena. Gauetan edo goizetan orduka zaintza lanak egiteko gertu nago. Sozio-sanitario titulazioarekin. 659 90 85 13

Debagoiena. Gizezkoa prest astean zehar edo asteburuetan helduak zaindu eta umeak zaintzen, garbiketari, saltzaile, peoi laguntzaile edota ilea moztzen jarduteko. 632 89 22 85

Debagoiena. Lehen laguntzaile edota zerbitzari moduan. Lanerako baimen agirikin. 685 10 01 85

Debagoiena. Mutila nagusiak zaintzeko eta denetarik garbiketarako gertu. Orduka zehar etxean bertan bizi izaten. 631 98 39 36

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzeko gertu nago, orduka. Orduetara arazo barik. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 631 11 87 57

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke, etxean bertan bizi izaten edo bestela. 666 80 48 11

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketari lan egingo nuke. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 632 39 87 73

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, garbiketari, margoketan zein lan mekanizatueta aritzeko gertu nago. 631 55 24 37

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusiak eta umeak egunean zehar zaintzeko. Baita orduka ere. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 677 14 64 27

Debagoiena. Neska arduratsua nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten, egunean zehar edota orduka. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 677 14 64 29

Debagoiena. Orduka lan egingo nuke garbiketari edota nagusiak zaintzen. Baita gauetan ere. Sozio-sanitario titulazioa eta autoa dauzkat. 631 48 33 08 (Raquel)

Debagoiena. Prest nago pertsona nagusiak zaintzeko arratsalde, gau edo asteburuetan. Kotxea daukat. 631 98 15 50

Debagoiena. Nikaraguko 33 urteko mutila lanearako gertu. Nagusiak zaintzen, eraikuntza laguntzaile edo sukaldar laguntzaile moduan. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 687 35 06 37

Debagoiena. Sozio-sanitario titulua daukat eta pertsona nagusiak zaintzen lan egiteko gertu nago. Edo egunean zehar edo gau solteak. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 696 84 19 51

Debagoiena. Kafetegian edo pertsona nagusiak eta umeak zaintzen lan egin nahi dut. Erabateko prestutasuna daukat. 677 14 64 29

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO
Bergara. Batxilergoko lehen mailan dabilen mutiko batentzat matematika eskola partikularrak emango dizkion pertsona baten bila gabilta. Deitu 695 70 58 33 telefonora.

Bergara. Lehen Hezkuntzako 6. mailan dagoen ikasle bati etxean eskola partikularrak emango dizkion norbait behar ditut. Euskara beharrezkoa. 679 43 32 55

8. DENETARIK

802. EROSI
Umeendako trikiritxak. Trikiritxa txiki baten bila nabil. 5-7 urte bitarteko haurrentzako modukoa. 647 62 67 41

807. AURKITU

Giltzak Aretxabaletan. Aretxabaletako Orly tabernan etxe giltza batzuk aurkitu nituen. Golmar etxe giltzatarako beltz bat dauka. Arrasateko BAZ bulegoan utziko ditut.

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



ESKORIATZAKO EDUARDO GOROSARRI PLAZA

'Izenen izana' Astelehena, 18:00, 20:00 eta 22:00



THE POTES TALDEAREN AKUSTIKOIA

'Akordeak' Martitena, 18:00, 20:00 eta 22:00

Table with 3 columns: EGUBAKOITZA, 10; ZAPATUA, 11; DOMEKA, 12. Each column lists TV programs and their start times.

Advertisement for MADDI BARROCAL PILOTARIA EZAGUTZEN. Includes QR code, contact info for GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA, and broadcast times: 18:00/20:00/22:00.

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05
SAILKATUAK@GOIENA.EUS
WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan beheara uzterik ere.
GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animialik/Saldu. Denetarik/Saldu.
Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
Astebeteko prezioa: 20 euro 18 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
Profesionalen moduluak. Modulo bakarra: 25 euro (+BEZ).

Real estate advertisement for BERGARA. Includes contact info: Ibarra 3 • BERGARA, Tel. / Faxa: 943 76 97 97, www.inmokersosti.com. Lists various properties for sale with details like size, location, and price.

ESKER ONA

Manuel Altuna Arana



2021eko abenduaren 2an hil zen, 82 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aramaion, 2021eko abenduaren 10ean.

ESKER ONA

Gloria Idigoras Kortabarria



Jose Antonio Gantxegiren alarguna

2021eko abenduaren 2an hil zen, 69 urte zituela.

Haren seme-alabak: Itxaso eta Iker Tejedas, Aintzane eta Erik Echaniz. Anai-arrebak: Pilar, Pedro eta Jose Luis.

Ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusu-lehengusinak eta gainerako ahaideak.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2021eko abenduaren 10ean.

ESKER ONA

Maria Garay Iriarte



Eloy Zubizarretaren alarguna

2021eko abenduaren 2an hil zen, 93 urte zituela.


Haren alabak: Josebe eta Jesus Mari Arregui, Karnele eta Juan Montiano, Orreaga eta Aitor Zabala. Bilobak: Markel eta Andere, Paula eta Xabi, Marta, Jokin, Malen. Birioba: Irai. Anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusu-lehengusinak eta gainerako senideak.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2021eko abenduaren 10ean.

ESKER ONA

Maria Jesus Elexpuru Unzueta



Timoteo Guridiren alarguna

2021eko abenduaren 4an hil zen, 90 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Antzuolan, 2021eko abenduaren 10ean.

ESKER ONA

Jesus Mari Goñi Beain



2021eko abenduaren 4an hil zen, Gasteizen, 67 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, agur ekitaldira etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2021eko abenduaren 10ean.

ESKER ONA

Calixta Urtaza Villar



2021eko abenduaren 3an hil zen, 100 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2021eko abenduaren 10ean.

Oroilore

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak gugan izan dazuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Ion, Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

OROIGARRIA

Ibon Urzelai Madariaga



2021eko abenduaren 1ean hil zen.

*Beti eongo haiz gure bihotzetan, Ibonzo!
Sekula eztoztatu ahaztuko!*

Antzuolako kuadrilla.
Antzuolan, 2021eko abenduaren 10ean.

OROIGARRIA

Sara Izuskitza Makazaga



*Zure alaitasunak eta oroitzapenak irribarre bat sortuko digu beti.
Ez zaitugu inoiz ahaztuko.*

Zure betiko lagunak, kuadrilla.
Bergaran, 2021eko abenduaren 10ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ
Egubakoitza, 10 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Zapatua, 11 IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
Domeka, 12 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Astelehena, 13 ESPAÑOL: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Martitzena, 14 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Eguaztena, 15 ETXEBERRIA: Zarugalde 38 / 943 77 16 30
Eguena, 16 ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15

BERGARA EGUNEZ
Egubakoitza, 10 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Zapatua, 11 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Domeka, 12 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Astelehena, 13 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74
Martitzena, 14 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Eguaztena, 15 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Eguena, 16 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63

ORATI EGUNEZ BAKARRIK
Egubakoitza, 10 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Zapatua, 11 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Domeka, 12 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Astelehena, 13 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Martitzena, 14 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguaztena, 15 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Eguena, 16 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58


EGUNERO (22:00etatik 09:00etara)
Urte bukatu arte:
ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15

EGUNERO (22:00etatik 09:00etara)
Urte bukatu arte:
ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

Cipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

URTEURRENA

Antonio Bouzas Prol



2020ko abenduaren 24an hil zen, 70 urte zituela.


Urteurreneko meza domekan izango da, abenduaren 12an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Beti izango zaitugu gogoan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2021eko abenduaren 10ean.

URTEURRENA

Jose Mari Alberdi Garitano



2020ko abenduaren 20an hil zen.

Urteurreneko meza domekan izango da, abenduaren 12an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2021eko abenduaren 10ean.

TXUTXU-MUTXUAK

**1. Gipuzkoa txapelkun**

Emakumezkoen Bergara Hiria txapelketa Gipuzkoako selekzioak irabazi zuen. Talde onena izan zen, Errioxaren eta Debagoienaren kontrako bi partiduak irabazita.

2. Bihar ezkonduko dira

Mireia Iturrospe bergarra eta Endika Donnay arrasatearra zapatuan ezkonduko dira. "Zorionak, bikote! Ondo ospatu, familiarekin eta lagun kuadrilla osoarekin".

3. 'Gogoan hartzeko izenak'

Memoria historikoari lotutako argazki bilduma ipini du Joseba Zabalzak Bergarako Aroztegi aretoan. Ikusgai egongo da abenduaren 12ra arte.

4. Euskararen Eguna ospatzen

Euskal ginkana eta jolasak egin zituzten ume oñatiarrek abenduaren 3an, gaztelekuaren, Txipistinen eta ludotekaren eskutik. *Euskaraz bizi nahi dut* pankarta margotu zuten.

5. Euskadiko txapelketa

80 bat karateka egon ziren Aretxabaletako txapelketan. Joana Perez, Oxel Vazquez eta Odei Vazquez aretxabaletarrak lehiatu ziren, besteak beste.



ZORION AGURRAK



OÑATI
Iraide Orueta Olalde
Abenduaren 15ean, 2 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo ospatu zure urtebetetzea eta patxo potolo bat etxeko guztion partetik!



BERGARA
Elene Garcia de Andoin Igartua
Abenduaren 13an, 6 urte. Zorionak, politx hori! Jarraitu gure bizitzak pozez betetzen! Askok maitxe zaitzugu!



BERGARA
Paco Moreno Flores
Abenduaren 12an, urtebetetzea. Zorionak, aitxita Paco! Egun polita pasatzea opa dizugu. Askok maite zaitugu. Besarkada bat etxeko guztien eta, bereziki, Kenarren eta Alaineren partetik.




ANTZUOLA
Eneritz Zubikarai Aguado
Abenduaren 12an, 10 urte. Zorionak, Eneritz! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Besarkada eta patxo handi bat etxeko guztion partetik. Bereziki Ametsek eta Izarok.



BERGARA
Aner Navajo Marquez
Abenduaren 12an, 6 urte. Zorionak, mutil handi! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Askok maite zaitugu. Patxo handi bat etxeko guztion partetik.



ARAMAIO
Paule Avila Hernando
Abenduaren 12an, 7 urte. Zorionak, Paule, zure urtebetetzean. Oso ondo pasatu eguna, maitia. Musu potolo bat Maddiren, aitaxoren eta amatxoren partetik.



OÑATI
Aiur Etxezarreta Castillo
Abenduaren 11n, 4 urte. Zorionak, Aiur! Segi zarien bezelakua izaten, txapeldun! Patxo pila bat familia danaren partetik!



ESKORIATZA
Gorka Enekotegi Oyangueren
Abenduaren 10ean, 5 urte. Zorionak, bihotza! Oso ondo pasatu eguna familiarekin eta laguntxuekin. Muxu potolo bat!



ANTZUOLA
Andoni Sanchez Sanchez
Abenduaren 8an, 6 urte. Zorionak, txikitxo. Egun polita pasatu. Zure gurasoen eta arrebaren partetik.



OÑATI
Elur Biain Ignacio
Abenduaren 7an, 2 urte. Zorionak, politt hori! Askok maite zaitugu. Muxu pila bat, familiaren partetik.



ARRASATE
Nora Arabiourrutia Carabias
Abenduaren 7an, 7 urte. Etxeko guztion partetik, zorionak, politt hori! Izugarri maite zaitugu, ez ahaztu inoiz!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabilzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaituz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



BERGARA
Oier Osa Zabala
Abenduaren 7an, 4 urte. Gure etxeko aitxor txikitxo! Lau urte ein dituzu eta zorion bero bat bidaltzea nahi izan dogu aitaxoren eta amatxoren, Iratxeren, osabaren eta aiton-amonen partetik. Egun polita pasatu! osoaren partetik.



OÑATI
Garazi Beitia Urkia
Abenduaren 3an, 5 urte. Zorionak, politt hori, eta ondo pasatu zure urtebetetzean. Patxo pila bat familia osoaren partetik.



ARRASATE
Benja ramos
Abenduaren 2an, 39 urte. Zorionak, aitaxo! Ilargitaino eta buelta maite zaitugu! Disfrutatu zure eguna!

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 10

OÑATI Odol ateratzea

Urteko azkena egingo dute. Aurrez hartu behar da odola emateko ordua, 943-00 78 84 telefonoan. *Enpresagintzan, 16:30ean.*

ESKORIATZA Wii txapelketa

Gaztetxoendako. Taldeko, sei pertsona. *Ludotekan, 16:45ean.*

ARRASATE Jostailu truke

merkatua: jostailuak entregatzeko aukera 17:00etatik 18:30era jasoko dituzte. *Seber Altube plazan.*

BERGARA Ohe-elastikoak umeendako

Bedelkarren eskutik. Orduetgia: 17:00-20:00. *Munibe plazan.*

ARRASATE Arrasate Musikaleko

ikasleen kontzertua Gabonetako emanaldia. *Kulturaten, 18:30ean.*

ARAMAIO Alex Mendikuteran argazki proiektzioa

2020ko argazkiak erakutsiko ditu. *Kultura etxean, 18:30ean.*

OÑATI 'Mendian hil, hirian hil' dokumentala -sarrerak agortuta-

Iñaki Peñak zuzendutako lana. *Zinema aretoan, 18:30ean.*

OÑATI 'Erbestea ezagutu genuen. Babesleku al gara?' solasaldia

Josu Chuecak gidatuko du. *Santa Anan, 19:00etan.*

ZAPATUA 11

BERGARA 'Amatasun praktika

bizigarriagoak' ikastaroa Ainara Gorostizurekin, Jabekuntza Eskolaren baitan. *Agorrosinen, 10:00etan.*

BERGARA Mahai-joko asteburua

10:00etan, Magic Pauper Commander txapelketa; 17:00etan, mahai-jokoak, eta 22:30ean, Soka

eta Striktina taldeen kontzertua – sarrerak, bost euro–. *Kartzela zaharrear.*

OÑATI Gaztetxearen IX. urteurrena

10:30ean, gosaria eta zuhaitz landaketa; 11:30ean, jolasak; 13:00etan, prentsaurrekoa; 15:00etan, kantu bazkaria; 18:30ean, presoen aldeko poteo girotua; eta, 21:30ean Nikotina eta Larru Beltzak taldeen kontzertuak. *Gaztetxean, 10:30ean.*

ELGETA 'XVI. mendeko elizako erretaula eta dorretxea' bisita gidatua

Aurrez eman behar da izena: 943-79 64 63 edo *infoturismo@debagoiena.eus*. *Parrokian, 11:00etan.*

ARRASATE Gabonetako jolas parkea

Salto egiteko puzgarriak, askotariko oztopen pista, sistema interaktiboa... Orduetgia: 11:30-14:00 eta 17:30-20:00. *Biteri plazan.*

ARRASATE Jostailu truke merkatua: jostailuak entregatzeko aukera

12:00etatik 13:30era jasoko dituzte. *Seber Altube plazan.*

ARRASATE 'Zirkun zirko' ikuskizuna

Malabaristak, akrobatak, orekariak... *Erdiguneko kaleetan, 12:00etan.*

OÑATI 'XVI. mendeko erretaulak, Oñatin' bisita gidatua

Ezkutuko altxorak ezagutzeko aukera. Aurrez eman behar da izena: 943-79 64 63 edo *infoturismo@debagoiena.eus*. *Turismo Bulegoan, 12:00etan.*

LEINTZ GATZAGA 'Gatzagako gatza, Gipuzkoako urre zuria' bisita gidatua

Besteak beste, gatza nola egiten den eta eraberritutako putzupada-gurpilaren erreproduktzioa ikusteko aukera. Aurrez eman behar da izena: 943-79 64 63 edo *infoturismo@debagoiena.eus*. *Gatz Museoa, 13:00etan.*

OÑATI 'Bizi zaldiak Pottokalekun. Trostan, familian' ekintza

Debalde, baina erreserba egin behar da: 943-79 64 63. *Pottokalekun, 15:30ean.*

ARRASATE 'Perez sagutxo' antzezlan, umeendako

Izen bereko ipuinean oinarrituta, Glu Glu taldearen lana. Belaunaldi guztiak gainditu dituen sagutxo izango da protagonista. Sarrerak, bost euro. *Amaia antzokian, 17:00etan.*

BERGARA Ohe elastikoak

Bedelkarren eskutik. Orduetgia: 17:00-20:00. *Munibe plazan.*

ARRASATE 'A-TA-KA!' ikuskizuna

Zerua koreografiekin eraldatzen eta argitzen duten izaki hegariaren ikuskizuna, Gabonetako egitarauaren baitan. *Erdiguneko kaleetan, 19:00etan.*

BERGARA Lemak taldearen kontzertua

Disko berria aurkeztuko dute. Sarrerak, zortzi euro. *Seminarixoan, 20:00etan.*

DOMEKA 12

BERGARA 'Euskal Memoria: gogoan hartzeko izenak' erakusketa

Gaur da azken eguna. *Aroztegin, 10:00etan.*

ARRASATE 'Arrasateko udaletxea' bisita gidatua

10:30ean, euskaraz eta 11:30ean gazteleraz. Izena emateko: *infoturismo@debagoiena.eus* edo 943-79 64 63. *Herriko Plazan.*

BERGARA 'Bergara monumentala' bisita gidatua

Izena emateko: *infoturismo@debagoiena.eus* edo 943-79 64 63. *Laboratoriumen, 11:00etan.*

BERGARA Ohe elastikoak

Bedelkarren eskutik. Orduetgia: 11:00-14:00 eta 17:00-20:00. *Munibe plazan.*



LEMAK

BERGARA Lemak taldea

Lemak taldea Bergarako eta Antzuolako musikariek osatzen dute, eta Beasaingo Pottoko estudioetan grabatutako diskoa aurkeztuko dute herrikideen aurrean. Sarrerak, zortzi euro. *Bihar, zapatua, Seminarixoan, 20:00etan.*

ARRASATE Gabonetako jolas parkea

Salto egiteko puzgarriak, askotariko oztopen pista, sistema interaktiboa... Orduetgia: 11:30-14:00 eta 17:30-20:00. *Biteri plazan, 11:30ean.*

OÑATI 'Bizi zaldiak Pottokalekun. Trostan, familian' ekintza

Debalde, baina erreserba egin behar da: 943-79 64 63. *Pottokalekun, 12:00etan.*

BERGARA Mahai-joko asteburua

17:00etan, merienda eta mahai-jokoaren maratona. *Kartzela zaharrear, 17:00etan.*

ESKORIATZA 'Hurrengo geltokia' ikus-entzunezkoa

Mondragon Unibertsitateko laugarren mailako Ikus-entzunezko Komunikazioko ikasleek egindako film laburra. Sarrerak, hiru euro. *Zaldibar antzokian, 18:00etan.*

ASTELEHENA 13

ARRASATE Kriptografiaren gaineko hitzaldia

Informatika doktore Urko Zurutzak egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta. *Kulturaten, 10:00etan.*

ELGETA Podologoia, erretiratuendako

Izena emateko: 667 80 70 06. *Kultura etxean, 15:00etan.*

OÑATI 'XVI. mendeko Ameriketako konkistatzaileak' hitzaldia

EHUko katedratiko Oskar Alvarez Gilak egingo du berba, Lope Agirrerri buruz Olaiturri kultura elkarteak antolatutako ekitaldietan lehena. Irekia. *Santa Anan, 19:00etan.*

MARTITZENA 14

OÑATI Giza eskubideen gaineko hitzaldia

Self-determination in the Italian 'end-of-life' izeneko hitzaldia egingo du Matteo Fincok. *Online, 17:00etan.*

ARETXABALETA 'Enperadorearen kondaira' antzezlan

Patata Tropikala taldearen lana, 4-12 urte artekoendako. *Zaraia aretoan, 18:00etan.*

BERGARA 'Trantsizio energetikoa. Klima aldaketa' hitzaldia

EVEko zuzendari Iñigo Ansolak eta Alet Taldea enpresako ordezkariak egingo dute berba, Bergarako EAJK gonbidatuta. *UNEDeko aretoan, 19:00etan.*

ARRASATE Gala lirikoa

David Baños tenorea, Helena Gallardo sopranoa, Arkaitz Mendoza pianista eta Goikobalu Abesbatza, Josean Garciak zuzenduta. Sarrerak, hamabost euro. *Amaia antzokian, 20:00etan.*



IKER PIRIS

ARETXABALETA Niko Wayne & Iker Piris bikotea

Blues doinuez gozatzeko aukera. Kantu propioak eta bertsoak bateratuko dituzte Piris tolosarrak eta Wayne frantziarrak, ikuskizun dinamikoa eta bizigarria egiteko. Sarrerak, lau euro. *Eguaztanean, Zaria aretoan, 19:00etan.*

EGUAZTENA 15**ELGETA Garbigune ibiltaria**

Egun osoan jasoko dute herritarrek utzitako materiala. Orduetgia: 10:00-21:00. *Salbador kalean.*

ARRASATE Goienagusiren X. urteurrena

Ekitaldi berezia egingo dute, eta gero, bazkideen arteko bazkaria. *Amaia antzokian, 10:00etan.*

BERGARA Odol ateratzea

Urteko azkena egingo dute. *Oxirondo azokan, 16:30ean.*

ARETXABALETA 'Elikadura osagarria. Baby Led Weaning: Janari solidoekin hasteko' hitzaldia

Nerea Iturbek egingo du berba. *Kukumikuren egoitzan, 17:30ean.*

OÑATI Irakurketa feminista zikloa

Luciana Alfaro gidatuta, Jabetze Eskolaren baitan. *Kultura etxean, 18:00etan.*

BERGARA Eguaztenetako azoka

Herriko baseritarren garaiako produktuak erosteko aukera. *Oxirondon, 18:00etan.*

ELGETA 'Eres una escritora creativa y lo sabes' liburuaren aurkezpena

Carlota Alfaro egilearekin. *Liburutegian, 18:30ean.*

ARRASATE 'Txileko eta Hego Amerikako egoera sozio-politiko' solasaldia

Militante maputxe, preso politiko ohi eta kazetari Sandra Trafilafek egingo du berba. *Zaria aretoan, 19:00etan.*

OÑATI 'Lope Agirre, izaera poliedrikoa zeluloide zatitan' hitzaldia

Agustin Goenagak egingo du berba, Olatiturrri kultura elkarteak antolatutako ekitaldien baitan. *Santa Ana antzokian, 19:00etan.*

ARETXABALETA Niko Wayne & Iker Piris

Blues doinuak. Sarrerak, lau euro. *Zaria aretoan, 19:00etan.*

BERGARA 'La hija' pelikula

Jatorrizko bertsoan eta azpitoluekin. Sarrerak, hiru euro. *Seminarioan, 20:00etan.*

EGUENA 16**ELGETA Kontalari boluntarioen bilera**

Orain artekoaren balorazioa eta aurrera begirakoak aztertuko dira. Batzar irekia da. *Liburutegian, 18:00etan.*

ESKORIATZA Literatura solasaldia

Eduardo Mendozaren *La ciudad de los prodigios* liburuaren gaineko saioa, Monica Leivak gidatuta. *Kultura etxean, 18:00etan.*

OÑATI 'Munduari bira (ia) 80 trukutan' ikuskizuna

Imanol Ituiñorekin, 6-9 urte arteko umeendako. Gonbidapenarekin. *Haur liburutegian, 18:00etan.*

ARRASATE 'Es Navidad... y en casa hay una silla vacía' hitzaldia

San Felipe Elkarlaguntzako kide Maite Urzainek egingo du berba. *Kulturaten, 18:30ean.*

ARRASATE Literatura solasaldia

Zerocalcareren *Kobane calling* liburuaren gaineko saioa egingo dute, Alex Gurrutxagak gidatuta. *Bibliotekan, 18:30ean.*

BERGARA 'Penintsulako arroilak' diapositiba emanaldia

Karmelo Oñatek eta Ainhoa Arizabaletak erakutsiko dituzte erretratuak. Debalde. *Pol-Poleko lokalean, 19:00etan.*

ARETXABALETA 'Emakumea eta kirola, oztopez harago' mahai-ingurua

Ainhize Barrainkuak, Oihana Azkorbebeitiak, Malen Ruiz de Azuak eta Garbiñe Etxebarriak egingo dute berba, Ane Urkiri kazetariak gidatuta. *Arkupen, 19:00etan.*

OÑATI 'Quo Vadis, Aida?' filma, zineklubean

Sarrerak, bost euro. *Zinema aretoan, 20:00etan.*

ARRASATE McOnak taldea

Kooltur Ostegunetako kontzertua. Sarrerak, zazpi euro. *Gaztetxean, 22:00etan.*

EGUBAKOITZA 17**BERGARA 'Txu-txu' trenaren herriko kaleetan**

Bedelkarren eskutik. Orduetgia: 17:00-20:00. *Kaleetan.*

ARRASATE 'Euskaratik mundura, eta mundutik euskarara' hitzaldia

Ttak!-ek eta AEDK antolatuta, 5 urtetik gorako umeendako. *Kulturaten, 18:00etan.*

ZINEMA**ARRASATE****AMAIA ANTZOKIA**

Way down
Domeka eta astelehena: 19:30.
Una familia feliz 2
Domeka: 17:00.

BERGARA**SEMINARIOA**

Way down
Egubakoitza, domeka eta astelehena: 19:30.
Un familia feliz 2
Domeka: 17:00.

OÑATI**KULTURA ETXEA**

El espía inglés
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:30.

Encanto
Zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABALETA**ARKUPE**

El buen patron
Egubakoitza: 22:00.

Zapatua eta domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.
Oltxiak
Zapatua eta domeka: 17:00.

GASTEIZ**GORBEIA**

Maixabel
Egubakoitza: 21:30.
Zapatua: 11:05.
Domeka: 19:10.
Astelehena, martitzena eta eguaztana: 20:00.

El lobo y el león
Domeka: 12:00.

Way down
Egubakoitzetik domekara: 17:00.
Astelehenetik eguaztenera: 17:30.

Encanto
Zapatua: 16:30, 17:30, 22:15.
Domeka: 12:00.

La casa Gucci
Egubakoitzetik domekara: 19:15.

Astelehenetik eguaztenera: 19:35.

Clifford
Egubakoitza: 17:00, 19:00.
Zapatua: 18:40.
Domeka: 12:00, 17:00.
Astelehenetik eguaztenera: 17:30.

Cazafantasma
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 12:00, 17:00, 19:30.
Astelehenetik eguaztenera: 17:30, 20:00.

La familia perfecta
Egubakoitza eta zapatua: 17:10.
Domeka: 12:00, 17:10.

Black box
Egubakoitza eta zapatua: 22:20.
Domeka: 20:15.
Astelehenetik eguaztenera: 17:30.

Nido de viboras
Egubakoitza: 22:40.
Zapatua: 22:15.
Domeka: 16:30.
Astelehenetik

eguaztenera: 17:30.

El buen patron
Egubakoitza eta zapatua: 21:00.
Domeka: 12:00, 19:00.
Astelehenetik eguaztenera: 20:00.

El lodo
Egubakoitza: 16:30, 20:35, 22:15.
Zapatua eta astelehenetik eguaztenera: 20:00.
Domeka: 18:35.

Querido Evan Hansen
Egubakoitza: 19:25, 22:05.
Zapatua: 19:25.
Domeka: 11:30, 19:25.
Astelehenetik eguaztenera: 20:00.

La familia Bloom
Egubakoitza: 16:45, 18:40.
Zapatua: 16:45, 22:35.
Domeka: 16:45, 20:45.
Astelehenetik eguaztenera: 20:00.

KRITIKA**Nido de viboras**

Zuz.: Kim Yong-hoon. **Herr.:** Hego Korea (2020). **Aktoreak:** Jeon Do-Yeon, Woo-Sung Jung. **Iraupena:** 108 minutu. ★★★★★

Diruaren hotsa**ANTONIO ZABALA**

Nido de viboras-en hasieran, bidaia-poltsa bat plano gertuan ikusten dugu. Norbaitek poltsa darama eta kamerak horren jarraipena egiten du. Argi geratzen zaigu, planoaren arreta-gunea denez, poltsa barruan dagoenak garrantzi nabarmena izango duela. Eta halaxe da, poltsa diruz beterik dago eta diru-hotsak pertsonaia askotxoren erakarpina lortuko du. Filma kapitulutan zatituta dago, eta nahastuta garatuko diren hiru azpi-istorioek osatuko dute istorio nagusia. Pertsonaiak, behararengatik edo diru-gosearengatik, ez dira kikiltzen ekintza basatiak burutzerakoan. Denborarekin jokatzeko eta jauziak emanez hiru istorioak garatzen joango da zuzendaria, eta, halako

filmetan gertatzen den bezala, amaieran, azpi-istorioak eta horietan parte hartzen duten pertsonaiak elkartu egingo dira.

Askotan, Koreako zuzendariak gustuko izaten dute umorearekin eta krudeltasunarekin jokatzeko. *Nido de viboras*, thriller bat izanik eta indarkeriaz beteta egonda, filma aurrera doan neurrian burugabeago eta sadikoago bihurtzen da. Horrela, *Parásitos* eta Tarantinoren filmen tonua gogoratzen du. Ez du *Parásitos*-en originaltasuna eta gizartearen deskribapen sakona, ezta ere Tarantinoren eszena onenek duten distira, baina *Nido de viboras* hilketaz beteriko thriller umoretsu, beltz eta dibertigarria da.



AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR

33 urte

Egunotan bete du *Arrasate Press* aldizkariak *Kristoren adina* deitzen zuten hori. Lehen zenbaki hartan hasi zen, duela 33 urte, nire lehen kolaborazio egonkorra euskal komunikabideetan. Gaurko hau izango da azkena.

Gogoz ekin nion idazteari, euskarak bultzatuta. Hasieran musikaz, gero autoez, eta gerora edozertaz, behin lotsa galduta *tuttologo* orojakile bihurtu bainintzen. Lehen urrats horren ondorioz etorri ziren Arrasate Telebista, Arrasate Komunikabideak, Euskadi Irratia, ETB, Goiena, Argia, Euskalerrria Irratia, Tokikom... Eta ibilbide horren haritik beste hainbat ardura, Kutxan, Topagunean, Aldundian, Soziolinguistika Klusterrean... Azkena Badalab-en, hizkuntza berrikuntzako laborategi sortu berrian. Honekin amaituko dut ardura publikoen aroa, adinari zor. Ondo bidean, urte eta erdi barru gertatuko da hori.

Orain dagokidana da iritzi-emaille ibilbidea ixtea, gaurko zutabe honekin. Idazteak idazten trebatu nau, noski; baina, gainera, bizi-ibilbidea ere aldatu dit hobera, nire zorionerako. Eskerrik onenak bidean izan eta egin ditudan lagun guztiei; eta animorik beroena atzetik datozenei, nik adina zorte izan dezazuela! Adiorik ez.

GOIENA OKM GIDA

"Jendearekin dudan harremana da onena"

ESTIBALIZ ETXABURU PROMISE ARRASATE

Bosgarren urteurrena du lentzeria dendak, eta urte hauetan arrasatearrek "oso ondo" hartu dutela aitortu du Etxaburuk: gertuko tratua pertsonalizatua da bere gako

Jone Olabarria ARRASATE

Duela bost urte jarri zuen mar txan Promise mertzeria denda Estibaliz Etxaburuk. Ondarrutarra den arren, Arrasatera etorri zen bizi izatera eta aspaldidanik zuen ideia egia bihurtzea erabaki zuen. Denda jarri nahi zuen, eta, merkatua apur bat aztertuta, lentzerian zentratzea erabaki zuen.

Bost urteren ostean, zer moduz hartu zaituzte arrasatearrek?

Oso ondo, ez dut inongo kezarik. Bezero fidelak ditut herrian eta pozik nago. Bost urte betetzea horren seinale ere bada.

Zergatik aukeratu lentzeria?

Nik denda bat jarri nahi nuen, eta apur bat aztertuta erabaki nuen, hutsune bat zegoela igarri ostean: kalitatezko mertzeriarik ez zegoen prezio orekatu batean. Bularretako on bat erosteko prezio oso altua ordaindu behar zenuen, eta kasu askotan, gainera, ez zeuden gorputz mota guztiendako aukerak. Hori baliatu eta denda jarri nuen, kalitate onekoa bai, baina politik eta prezio arrazoizko batekin.

Zure lanak duen onena zer da? Eta okerrena?

Onena jendearekin dudan harreman pertsonalizatua da, ger-



Estibaliz Etxaburu, duela bost urtetik Arrasaten duen lentzeria dendan. M.A.

Hain gustura izanda, jantzita etxera

"Nahiko ohikoa izaten da bezero batek kulero edo bikiniren bat probatu eta hain gustura zuela-eta jantzita eramatea, konturatu gabe. Egia da, askotan, bezeroarekin hitz egiten hasi eta bioi ahazten zaigula. Edo norbaitek ordaindu gabe alde egitea, konturatu gabe. Bestela ere, bezero askori atentzioa ematen die dendako usainak. Zerbait erosi, etxera eraman, armairuan gorde eta irekitzerakoan usaina igartzen dutela esaten didate".

tukoa. Azken batean, hori da gure erronka nagusia, eta merkataritza-gune handietatik ezberdintzen gaituena. Gure plusa bezeroari eskaintzen diogun tratua da. Okerrena, aldiz, dendak dakarren lotura da. Ni bakarrik nago dendan, eta, batzuetan, zaila da nire bizitzarekin uztartzea.

Nortzuk dira bezero errazagoak?

[Barre] Nirera gehiago etortzen dira emakumeak egunerokoan; gizonak, data puntaletan: Gabonak, urtebetetzeak... Hala ere, oparitzeko zerbaiten bila etorri eta gizonak ez dira ia inoiz bueltan etortzen erositakoa aldatzera. Tamaina eta diseinua oso argi izaten dute.

Hala ere, emakumeak dira gehien-goa Promiseen...

Bai, nire dendara egunerokoan etortzen diren bezero gehienak emakumeak dira. Baina, era berean, zalantza gehiago izaten ditugu: hau gustatu zait, baina beste hau ere polita da... Gauza kurioso bat ere gertatzen da: gizonak ez dira ia inoiz etortzen euren barruko arropak erostera, emakumeak etortzen dira be-
raiendako ere erostera.

Herriak ondo hartu zaitu, baina zer da zuk gehien baloratzen duzuna Arrasaten?

Zalantza barik, eta, beste behin, jendearekin dudan tratua pertsonalizatua eduki ahal izatea da gehien baloratzen dudana.

Zein da zure erakusleihoa?

Dendaz gain, sare sozialak oso garrantzitsuak dira; nire kasuan, Instagram (@promisearrasate).

Goiena OKm
Gidaren
eskaintza
osoa



goiena
Okm
gida

'BIXI IBILI!' LEINTZ GATZAGAN

GOIENA TELEBISTA

ABENDUAREN 16AN, EGUENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.

